

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2019

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@euskadi.eus

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

Aurkibidea

0.	EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
1.	EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	11
	1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera	11
	1.2 Analisia herrialdeka	15
	1.3 Espainiako ekonomia	22
2.	EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA	24
	2.1 Biztanleko BPGaren bilakaera eta bere determinanteak	24
	2.2 Ekoizpen arloak.....	29
	2.3 Eskaria.....	35
	2.4 Atzerriko inbertsioa EAEn	54
	2.5 BPGtik harantz	56
3.	LAN MERKATUA	62
	3.1 Biztanleria eta aktibitatea.....	62
	3.2 Tentsioa lan merkatuan: Beveridgeren kurba	71
	3.3 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa.....	74
4.	PREZIOAK	76
	4.1 Deflatoreak	76
	4.2 Kontsumo prezioak	77
	4.3 Industria prezioak	81
	4.4 Soldatak	82
5.	LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK	92
	5.1 Produktibitatea	92
	5.2 Lan kostu unitario nominalak eta errealak	98
6.	ARLO PUBLIKOA	101

6.1	Itundutako zergen diru bilketa	101
6.2	Eusko Jaurlaritzaren jarduera ekonomikoa	105
6.3	Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak 2019an	106
7.	ARLO FINANTZARIOA.....	110
7.1	Moneta politika	110
7.2	Truke tasak	113
7.3	Baloreen merkatua	115
7.4	Aurrezkia, kredituak eta gordailuak	116
7.5	Familien finantza egoera	121
7.6	Gizarte aurreikuspena	124

Taulen aurkibidea

1.	Ekonomia eremuen pisua, hazkundea eta ekarpenak.....	2
2.	BPG errealaren bilakaera.....	3
3.	EAEko taula makroekonomikoa.....	7
4.	EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait	8
5.	Munduko ondasunen merkataritza eremuka	12
6.	Ekonomiaren aldagai nagusiak	14
7.	Espainiako ekonomiaren taula makroekonomikoa	23
8.	Lehen arloko adierazle nagusiak	29
9.	EAEko industriaren BEGaren bilakaera.....	31
10.	Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak.....	33
11.	Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak.....	34
12.	Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka. Bolumenaren indize kateatua.....	35
13.	Errenten adierazleen bilakaera	37
14.	Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera	38

15. Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera	38
16. Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn	39
17. EAEk Europar Batasunera bidalitako esportazioak. 2019	44
18. Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena. 2019	46
19. EAEn eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga	48
20. EAEn eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria	52
21. Giza garapenaren indizea	56
22. Enplegua sektoreka	65
23. Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak.....	74
24. Erregistratutako lan kontratuen bilakaera	75
25. Deflatoreen bilakaera	77
26. Kontsumoko prezioen indizearen banaketa.....	78
27. EAEko kontsumo prezioen indizea	79
28. EAEko industriako prezioen indizea	82
29. Hitzarmenetan adostutako soldata igoserak	91
30. Produktibitatea orduko. EB27=100	97
31. Zerga itunduen bilakaera.....	102
32. Zerga nagusien diru-bilketa (%BPG)	104
33. Eusko Jaurlaritzaren eragiketa errealak	105
34. Eusko Jaurlaritzaren eragiketa finantzarioak.....	106
35. Banku zentralen interes tasak	111
36. 10 urterako zor publikoaren errendimendua	112
37. Gordailuen bilakaera	118

Irudien aurkibidea

1. EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak	1
2. BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn	4
3. EAEko BPGari eginiko ekarpenak	5
4. Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak)	15
5. Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak	16
6. Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak (I).....	18
7. Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak (II).....	20
8. BPG biztanleko. EAP. EB-15=100.....	24
9. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (I).	26
10. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (II).	27
11. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (III).....	28
12. EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.....	32
13. Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	36
14. EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko	40
15. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan Urte arteko aldakuntza tasak (I)	41
16. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)	42
17. Ondasunen esportazioak eta inportazioak arantzel sekzioka. Ehunekoak	43
18. Esportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura	45
19. Esportazioak guztira. AEB eta Erresuma Batua. Egitura	47
20. Inportazioak guztira Europar Batasuna 28 eta Erresuma Batua. Talde nagusiak. Egitura.....	49
21. Inportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura.....	50
22. EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak	53
23. Atzerriko inbertsioa ez ETVE (atzerriko baloreak edukitzeko entitateak). Milioi euro.....	55
24. Genero berdintasunaren indizea dimentsioen arabera. 2017	57

25. Genero berdintasunaren indizea herrialdeka. 2017	58
26. Pobreziaren edo bazterketa arriskuan dagoen biztanleriaren tasa. 2018.....	59
27. Desberdintasuneko adierazleak. 2018.	60
28. Landunen pobrezia tasa.	61
29. Jarduera tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	63
30. Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak.....	64
31. Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	66
32. Goi mailako hezkuntza maila (30-34 urte bitarteko taldea)	67
33. Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera.....	67
34. Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko	68
35. Lanaldi partziala duten landunek landun guztiekiko	69
36. Langabezia tasaren bilakaera EAEn	70
37. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn	71
38. Beveridgeren kurba 2013-2019	72
39. Trebetasunen desdoikuntza indizea. 2014-2019.....	73
40. Trebetasunen desdoikuntza indizea. Euskadi 2014-2019.....	73
41. KPIren bilakaera	80
42. EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tarte. 2019ko batez besteko balioak	81
43. Batez besteko eta erdiko soldaten bilakaera. 2008. urtea=100	83
44. Batez besteko soldataren bilakaera. 2008. urtea=100	83
45. Erdiko soldataren bilakaera. 2008. urtea=100	84
46. Soldaten bilakaera. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100.....	85
47. Soldaten bilakaera. Pertzentil 10. 2008. urtea=100.....	86
48. Soldaten bilakaera. Pertzentil 90. 2008. urtea=100	86
49. Soldaten bilakaera. Soldata arrakala. 2008. urtea=100.....	87
50. Lan kostuak hileko eta langileko. Euroak, 2019ko batez bestea	88
51. Lan kostu guztiak langileko. Sektoreak . Urte arteko aldakuntza tasak	89
52. Lan kostu guztiak langileko. Sektoreak. Alderaketa	90
53. Lan kostu nominalak orduko. 2015=100	90
54. Produktibitatea orduko (euroak/orduko). 2019.....	93
55. Produktibitatea lan ordu bakoitzeko. Bilakaera 2000 - 2019	94
56. Produktibitatea lan ordu bakoitzeko 2000- 2019. 2000=100.....	95
57. Produktibitatea orduko. Bilakaera 2000-2019	96
58. Lan kostu unitario nominala orduko. 2015. urtea=100	98
59. Lan kostu unitario nominala. Manufakturak. 2015-2019. 2015. urtea=100	99
60. Lan kostu unitario erreala orduko. 2015. urtea=100.....	100
61. Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala. Urte arteko aldakuntza tasak eta %BPG	103
62. Eusko Jaurlaritzaren gastuaren bilakaera. 2005-2019. BPGaren %.....	107


63. EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko	114
64. Barne aurrezki gordina.....	117
65. Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren %	119
66. Kredituen bilakaera	120
67. Etxebizitzen hipoteken bilakaera. Mila	122
68. Interes tasen bilakaera.....	123
69. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE). Milioi euro.....	125

0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA


EAEko ekonomiak, 2019an, hazkunde erritmo nabarmena izan zuen berriro,%2,2an zenbatetsi dena. Beraz, BPGak sei urteko igoera kateatu du jarraian. Hala ere, urte horretan lortutako tasa, EAEko ekonomiarentzat kalkulatu den BPG potentziala (%1,8 ingurukoa) baino handiagoa izan arren, azken bost urteetako txikiena da, eta zortzi hamarren galdu ditu aurreko urteko datuarekin alderatuta. Moteltzeko joera hori ia osorik 2018an gertatu zen, 2019ko lau hiruhilekoetan erregistratutako erritmoan ia ez baitzen alderik egon. Aipatutako intentsitate galera hori munduko ekonomian hauteman denaren antzekoa da.

EAEko eta munduko ekonomien hazkundeak. Urte arteko aldakuntza tasak
1. irudia

EAEko ekonomia



Munduko ekonomia



Iturria: Eustat eta NDF.

Izan ere, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, 2019an munduko BPGaren igoera % 2,9 izan zen erosteko ahalmenaren parekotasunean kalkulatzen denean, eta %2,4, berriz, kalkulua truke tasa kontuan hartuta egiten denean. Bi kasuetan, 2019ko zenbakia 2018koa baino zazpi hamarren txikiagoa da. Orobat, Atzeraldi Handiaz (2008-2009) geroztik erregistratu den baliorik xumeena da. Alde batetik, garatutako ekonomiek puntu erdi bat murriztu zuten beren urteko hazkunde tasa, %1,7ra arte; garapen bidean dauden herrialdeek, berriz, zortzi hamarreneko intentsitatea galdu zuten (%3,7).

Munduko ekonomia bere ibilera baldintzatu zuten bi gertakariren menpe geratu zen. Alde batetik, nazioarteko merkataritzak tentsio handiko uneak bizi izan zituen, AEBak eta Txina protagonista nagusizat hartuta, nahiz eta urduritasun uneak ere izan ziren herrialde iparramerikar horren eta Europako, Kanadako, Mexikoko eta Irango ekonomien arteko harremanetan. Beste aldetik, Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko negoziazioek ia urte osoa hartu zuten eta azken txanpan baino ez zen akordiorik lortu. Bi gertaera horiek ziurgabetasun giroa sortu zuten eragile ekonomikoengan eta horrek nazioarteko merkataritza geldiarazi zuen, haren hedapena %0,9ra mugatu baitzen soilik.

Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak
1. taula

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia aurreratuak	40,3	1,7	0,69	Garatu gabeak	59,7	3,7	2,21
AEB	15,1	2,3	0,35	Txina	19,2	6,1	1,17
Eurogunea	11,2	1,2	0,13	India	7,8	4,2	0,33
Japonia	4,0	0,7	0,03	Errusia	3,1	1,3	0,04
Erresuma Batua	2,2	1,4	0,03	Brasil	2,5	1,1	0,03
Kanada	1,3	1,6	0,02	Mexiko	1,8	-0,1	0,00
Besteak	6,5	2,0	0,13	Besteak	25,3	2,5	0,64

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Aurreikusi zen bezala, merkataritza gerrak faktura pasa zien bi herrialde protagonistei. AEBen kasuan, BPGa %2,3 handitu zen, aurreko urtean baino sei hamarren gutxiago. Beste herrialde batzuei ezarritako muga zergen igoerek esportazioen eta inportazioen zifra globaletan eragin txikia izan zuten, bi kasuetan beheranzkoa, eta kanpo saldoak BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena hamarren bat baino ez zen murriztu, -1,5 puntu arte. Kontsumo pribatuak (%2,6) herrialdearen motorra izaten jarraitu zuen, baina inbertsio pribatuak (%1,8) intentsitatea galdu zuen, bereziki azpiegituretan egindakoa (-%4,3). Bestalde, arlo publikoak BPGren ildotik egin zuen gora (%2,3).

BPG errealaeren bilakaera
2. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Munduko ekonomia	3,6	3,5	3,4	3,9	3,6	2,9
Herrialde garatuak	2,1	2,3	1,7	2,5	2,2	1,7
AEB	2,5	2,9	1,6	2,4	2,9	2,3
Japonia	0,4	1,2	0,5	2,2	0,3	0,7
Erresuma Batua	2,6	2,4	1,9	1,9	1,3	1,4
Eurogunea	1,4	2,1	1,9	2,5	1,9	1,2
- Alemania	2,2	1,7	2,2	2,5	1,5	0,6
- Frantzia	1,0	1,1	1,1	2,3	1,7	1,3
- Italia	0,0	0,8	1,3	1,7	0,8	0,3
- Espainia	1,4	3,8	3,0	2,9	2,4	2,0
- Euskadi	1,6	3,0	3,3	2,8	3,0	2,2
Garatu gabeak	4,7	4,3	4,6	4,8	4,5	3,7
Txina	7,3	6,9	6,8	6,9	6,7	6,1
India	7,4	8,0	8,3	7,0	6,1	4,2
Errusia	0,7	-2,0	0,3	1,8	2,5	1,3
Brasil	0,5	-3,6	-3,3	1,3	1,3	1,1

Iturria: NDF eta Eustat.

Euroguneak %1,2ra leundu zuen hazkunde erritmoa, aurreko datua baino zazpi hamarren beherago eta azken urteetako baliorik apalenetako bat, nahiz eta hazkunde potentzialarekin bat datorren. Merkataritza gerrak Europako herrialdeei ere eragin zien, AEBek kontinente zaharreko hainbat produkturi ezarri zieten muga-zergen igoeragatik. Europako ekonomiaren aurrerapenari kalte egin

zior beste alderdi bat Erresuma Batua Europako Batasunetik ateratzeko negoziazioak izan ziren, eta horrek ziurgabetasun handia sortu zuen enpresen artean. Urte amaieran, irteera desordenatua saihesten zuen akordio bat lortu zen. Azkenik, aipatu behar da automobilgintzaren sektoreak zailtasunak izan zituela isurien araudi berrira egokitzeko, mugikortasun jasangarriago baterako trantsizio une batean. Horrek bereziki Alemaniari egin zion kalte, bere BPGa %0,6 soilik handitu baitzuen, aurreko urtean baino ia puntu oso bat gutxiago. Europako gainerako herrialde garrantzitsuetan, igoera 2018koa baino zertxobait txikiagoa izan zen. Salbuespena Erresuma Batua izan zen, hamarren bat hobetu baitzuen bere aldakuntza-tasa (%1,4).


Garatzeko bidean dauden herrialdeen multzoak zortzi hamarren murriztu zuen hazkundera eta %3,7ko tasa izan zuten. 2009tik, lehen aldia da eremu hori %4,0 baino gutxiago hazten dela. Txinak talde horretako herrialde nagusia izaten jarraitzen du eta 2019an %6,1eko hazkunde tasa lortu zuen, balio apala herrialdearen ibilbidea ikusita, baina bere gobernuak ekoizpen eredu eraldatzeko egin duen apustuari erantzuten dio, industrian eta esportazioan oinarrituta egotetik, barnealdera eta zerbitzuetara gehiago begiratzen duen eredu batera igarotzeko. Asiako beste erraldoiak, Indiak, hazkunde erritmoa ia bi puntu moteldu zuen (%4,2). Kasu horretan, moneta eta kreditu merkatuko tentsioek, izen handiagoko billeteak kentzeko erabakiaren ondorioz, moderazio handia eragin dute barne eskarian. Azkenik, petrolioak ekoizten duten herrialdeei kalte egin zien lehengai horren prezioaren jaitsierak eta, ondorioz, hazkundera apal samarra izan zuten. Hala, Errusia %1,3 hazi zen, eta Brasil, berriz, %1,1.

BPG errealaeren eta enpleguaren bilakaera EAEn
2. irudia

BPG 2008=100



Enplegua 2008=100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

EAEko ekonomia ez zen salbuespena izan eta bertoko BPGaren hazkundera ere aurreko urteetako baino txikiagoa izan zen. Hain zuzen ere, 2019. urteko batez besteko tasa %2,2 izan zen, 2018koa baino zortzi hamarren txikiagoa. Hala eta guztiz ere, bizitasun galera hori 2018an zehar eta 2019ko lehen hiruhilekoan gertatu zen, aldi horretatik aurrera BPGaren gehikuntza tasa ia ez baita ezer aldatu. Beraz, ekonomiaren hazkundera sei urtez jarraian luzatu da jada, eta oraingo BPG erreala ia %10 handiagoa da Atzeraldi Handiaren aurrean zegoena baino. Enpleguaren arloan ere, 2019a ona izan zen, eta lanaldi osoko 15.000 lanpostu baliokide baino gehiago eman zizkion ekonomiari, guztira 978.800 lanpostu dituelarik. Beraz, 2008an zeuden lanpostu guztiak berreskuratzeko 20.000 (%2,0) soilik falta ziren.


Eskaera motaren araberako banakapena azken urteetan erregistratutakoaren antzekoa izan zen. Hala, EAEko ekonomiaren bultzada ia osoa barne eskariaren eskutik iritsi zen, kanpo eskariak 2014tik erakutsi duen neutraltasunari eutsi zion bitartean. Izan ere, barne eskaeraren ekarpena 2,2 puntukoa izan zen, eta kanpo eskariarena, berriz, hutsala. Bai esportazio errealak bai inportazio errealak %0,4 handitu ziren 2019an, aurreko bi urteetan baino nabarmen gutxiago, eta horrek agerian uzten du kanpo merkataritzan urtean zehar bizi izan zen galga.

EAEko BPGari eginiko ekarpenak
3. irudia

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren bi osagai nagusiek beren erritmoa leundu zuten 2019an zehar. Azken kontsumoko gastuaren aldakuntza tasa puntu erdi bat baino pixka bat gehiago murriztu zen, eta %1,9an kokatu zen, kontsumo pribatuaren igoerarekin bat datorren zenbakia delarik. Atzeraldiaren urteetan geroraturako eskaria ase ondoren, familien kontsumoa enplegu sorreraren eta soldata errearen igoeraren baturara hurbiltzen ari da. Beste aldetik, kontsumo pribatuaren gorakada BPGaren igoera baino txikiagoa izan zen, eta, ondorioz, familien aurrezki handitu zen. Administrazio publikoen kontsumoari dagokionez, 2019an %2,1eko gehikuntza tasa jaso zuen. Balio hori hiru aldiz errepikatu da azken bost urteetan, eta horrek pentsarazten du bilakaera egonkorra erakusten duela haien jokabidean.

Kapital eraketa gordinak berriz ere hazkunde esanguratsua eskuratu zuen 2019an (%2,8), baina aurreko urteetako baino txikiagoa. Brexit-erako akordiorik ezak eta AEBek muga zergen alorrean hartu duen politikak eragin zuten mesfidantza giroak, etorkizuneko mugikortasunari buruzko zalantzekin batera, inbertsio erabaki batzuk geldiarazi zituzten. Dinamismoaren galera bi osagaietan nabaritu zen. Alde batetik, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioa %2,3ra apaldu zen, eta gainerako inbertsioa, eraikuntzari oso lotuta baitago, %3,0 hazi zen. Nolanahi ere, EAEko ekonomiaren hazkundera, berriz ere, neurri handiagoan inbertsioan oinarritzea, 2015etik gertatzen ari den bezala, eredu iraunkorra dela adierazten du.

Ikuspegi sektorial batetik aztertuta, 2019ko ezaugarria sektore nagusi guztien hazkunde erritmoaren moteltzea izan zen. Horien artean, nabarmentzekoa da industriaren bilakaera, bere balio erantsia %1,1 handitu baitzen, aurreko urteetako balioen oso azpitik. 2018ko bigarren erdian automobilgintzak izan zituen zailtasunak, isuriei buruzko Europako araudi berriaren eta diesel motorrek sortutako mesfidantzaren ondoriozkoak, 2019ko lehen hiruhilekoetara ere luzatu ziren, eta urteko batez besteko emaitza baldintzatu zuten, nahiz eta laugarren hiruhilekoan industriak sendotasuneko irudia eskaini zuen berriro. Oro har, aldi horretan EAEko industriaren bilakaera Europako herrialde handienetakoaren oso antzekoa izan zen, bereziki Alemaniakoaren antzekoa, eta azken horrek ere balazta nabarmena izan baitzuen bere jardueran.

Atzeraldi Handiaren hasiera eragin zuen higiezinaren burbuilaren leherketak eraikuntzaren tamaina gutxitzea behartu zuen. Prozesu hori ia hamarkada oso batez luzatu da, sektore horrekak EAEko balio erantsiaren guztizkoan duen pisua %6,0aren inguruan utzi arte, 2008an izan zuenaren ia erdia. Azken bi urteetan, eraikuntzak bizitasun handia erakutsi du, ekonomiaren batez bestekoa baino puntu bat gehiagoko hazkundera eskuratuta. Hala eta guztiz ere, ez dago beste burbuila bat sortzeko arriskurik.

EAEko taula makroekonomikoa
3. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Barneko azken kontsumoa	1,9	3,1	3,0	2,9	2,5	1,9
Familien kontsumoko gastua	2,3	3,3	3,3	3,1	2,7	1,9
Herri administrazioen kontsumoa	0,7	2,1	1,8	2,1	1,6	2,1
Kapital eraketa gordina	-0,2	3,8	5,5	3,1	4,7	2,8
Ekipamenduko ondasunak	3,3	7,3	8,6	3,5	3,7	2,3
Gainontzeko inbertsioa	-1,9	2,0	3,8	2,9	5,2	3,0
Barne eskaria	1,5	3,2	3,6	2,9	3,0	2,1
Esportazioak	5,9	1,0	1,8	4,8	3,0	0,4
Inportazioak	5,5	1,4	2,2	5,0	3,0	0,4
BPG	1,6	3,0	3,3	2,8	3,0	2,2
Lehen arloa	-20,0	13,1	1,0	10,1	7,9	0,6
Industria	2,2	3,1	4,2	2,5	2,5	1,1
Eraikuntza	-1,7	1,1	0,2	1,6	4,1	3,1
Zerbitzuak	1,7	3,5	2,8	2,9	2,7	2,5
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,9	5,0	3,6	4,1	4,0	2,4
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,6	1,5	2,4	2,2	2,1	2,2
Gainontzeko zerbitzuak	1,0	3,6	2,5	2,6	2,2	2,6
Balio erantsi gordina oinarritzko preziotan	1,4	3,3	3,0	2,8	2,8	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,8	0,2	6,8	2,3	4,9	2,1

Iturria: Eustat.

Zerbitzuen multzoak egonkortasun handia erakutsi zuen bere bilakaeran eta erritmo onean hazi zen berriro. Hain zuzen ere, 2019an %2,5eko gehikuntza tasa jaso zuen, aurreko urtekoa baino bi hamarren gutxiago bakarrik. Halaber, sektorea osatzen duten jarduera blokeen erritmoak bateratu egin dira, eta beraien arteko aldeak lau hamarrenetara mugatu dira, sektore publikoari gehien lotutako jardueren %2,2tik gainerako zerbitzuen %2,6ra. Erdian, merkataritza, ostalaritza eta garraio blokeak %2,4 egin zuen gora.

Oro har, prezioek neurrizko portaera izan zuten 2019an, Atzeraldi Handiaz geroztik arlo horretan bizi den portaerarekin bat etorri eta aurreko hedaldietako erantzunetik guztiz urrunduta, non ekoizpen handi batek prezioak gorarazten baitzituen. Hala, BPGaren deflatoarea %1,0 igo zen 2019an, eta, beraz, hamabi urte daramatza jada Europako Banku Zentralak inflaziorako helburu gisa markatu duen %2,0ko erreferentziatik urrun. Prezioen beste adierazle batek, KPIak, urteko batez besteko %1,0ko igoera izan zuen, gorabehera gutxirekin urtean zehar. Azpiko inflazioak goranzko joera arina erakutsi zuen, baina garrantzi gutxikoa.

EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait
4. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Biztanleko BPG eurotan. EB-27=100	109,0	109,4	110,1	110,0	110,2	110,2
Biztanleko BPG eurotan. EB-15=100	90,0	89,0	91,6	93,2	93,9	94,2
BPG erreala merkatu prezioetan	1,6	3,0	3,3	2,8	3,0	2,2
Enplegua	0,2	2,1	2,2	2,1	2,6	1,6
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	1,4	0,9	1,1	0,7	0,4	0,6
BPG nominala merkatu prezioetan	2,2	3,2	4,0	3,5	4,2	3,2
BPGaren deflatoarea	0,6	0,2	0,6	0,7	1,2	1,0
KPI (urteko batez bestekoak)	0,2	-0,3	0,0	2,0	1,6	1,0
Kostu guztiak langile bakoitzeko	-1,0	-0,6	-0,9	0,5	2,5	1,8
Langabezia tasa	16,1	15,7	13,8	11,6	10,5	9,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

Lan faktorearen itxurazko produktibitatea %0,6 handitu zen 2019an, aurreko bi urteetan lortutako balioen antzekoa, eta 1995etik erregistratu duen batez besteko balioaren (%1,0) zertxobait azpitik. Orobat, 2019an Europar Batasunak izan zuen batez bestekoaren antzekoa da (%0,5), baina eurogunekoa (%0,1) baino handiagoa. Izan ere, eremu horretako ekonomia handi batzuek beherakada txikiak izan zituzten produktibitatean. Hori da Alemaniaren (-%0,3), Italiaren (-%0,3), Espainiaren (-%0,1), Belgikaren (-%0,2) eta Herbehereen (-%0,2) kasua, besteak beste.

Atzeraldi Handia hasi zenetik, batez besteko soldatak apur bat gora egin du Euskadin, 2018an, ezagutzen den azken urtea baita, %11,4ko igoera metatu arte, INEk argitaratzen duen soldata

egituraren inkestaren arabera. Bestela adierazita, hamarkada horretako hazkunde tasa, gutxi gorabehera, %1,0 ingurukoa da urtero, termino nominaletan. Hala eta guztiz ere, soldaten hobekuntza hori ez da berdin banatzen langileen kolektibo guztietan. Aitzitik, diru sarrera txikiak jasotzen dituzten emakumeak igoeratik kanpo utzi ditu. Izan ere, hamar urteko aldi horretan, emakumeen pertzentil txikiaren batez besteko soldata ia %9,0 murriztu da, eta gizonena, berriz, %8,5 igo. Era berean, emakumeen pertzentil handienak 2008an baino %22,8 gehiago jasotzen du orain. Zifra horiek eta beste batzuek adierazten dute soldaten bidez jasotako dirusarreretan desberdintasuna areagotzen ari dela.

Soldatak enpresen kostuen zati handi bat dira, eta, oro har, EAEko lan kostu unitario nominalak konstante mantendu dira 2015-2019 aldian. Are gehiago, azken urte horretan zertxobait murriztu ziren, lehiakortasun irabazi txiki bat lortu zela adieraziz. Aitzitik, inguruko ekonomia nagusiek kostuen igoerak izan zituzten. Manufakturen kasu zehatzean, EAEn 2019an kostua 2007ko maila berean zegoen.

Zerga itunduen bidezko diru bilketak inoizko kopururik gorena lortu zuen 2019an, 15.500 milioi euro ingururekin. Diru kopuru hori aurreko urteko zenbakia baino %3,3 handiagoa da. Bilakaera oso ona izan zen PFEZn (%5,7) eta zerga berezietan (%10,5). BEZak ere diru bilketa handitu zuen. Aitzitik, sozietateen gaineko zergak %11,7 murriztu zituen bere diru sarrerak, baina jaitsiera hori aurreko urtean abian jarri zen ordainketa zatituari lotuta dago, orduan diru sarreraren igoera handia eragin baitzuen (%32,8) eta orain zati batean konpentsatuta geratzen da. BPGaren ehunekotan, PFEZak berriz ere pisua irabazi du.

Eusko Jaurlaritzaren kontuek hoberantz egin zuten 2019an. Alde batetik, %0,5eko superabita lortu zen, 2018an bezala. Beste aldetik, zor publikoa 661 milioi eurotan murriztu zen eta 9.425 milioi eurotan geratu zen, hau da, BPGaren %12,6an.

2019an zehar bizi izan zen ziurgabetasuneko giroak hasiera batean iragarri zen normaltasunera itzultzea eragotzi zuen. Hala, banku zentral nagusiek atzera egin zuten beren bide orrian eta berriro ekin zieten aktiboak eta bonuak erosteko programei. Aldi berean, erraztasun handiagoak eman zizkieten banku sistemari eta interes tasak oso maila baxuetan mantendu zituzten. Erreserba Federalaren kasuan, bere erreferentzia tasak lau aldiz igoak zituen beheranzko bidera itzultzea erabaki zuenean, ekonomiaren ahultasun zantzuen ondorioz.

Interes tasa baxuko egoera horrek ez du berarekin ekarri familiak gehiago zorpetzea. Aitzitik, familiek aurreztea eta zorra murrizten jarraitzea erabaki dute. Izan ere, aurrezkiak %3,3 igo zen eta azken hamar urteetako kopururik altuenera iritsi zen. Ordainsari txikia eduki arren, gordailuen kopurua %6,6 hazi zen 2018ko zifrarekin alderatuta. Oso bereziki, ageriko eta kontuko gordailuak dira, interesa galtzen ari diren eperako gordailuen aldean. Azkenik, interes tasa finkoen pisuak igotzen jarraitzen du hipoteka berrien sinaduretan, eta kopuru osoaren %42,2 bereganatu dute dagoeneko.

1. EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera

Munduko ekonomiak 2008ko krisiaren ondoren izan zuen beherakadatik hamar urtera (munduko jardura ekonomikoa %0,1 uzkuritu zen 2009an), 2019. urtea hamarkadako BPGaren hazkunderik txikienarekin itxi zen. Merkataritza tentsio gero eta handiagoak, eskari pribatu txikiagoak eta ziurgabetasunak kaltetutako inbertsioak sortutako giro batean, munduko ekonomia %2,9 hazi zen, azken bosturtekoaren batez bestekoa baino puntu erdi gutxiago.

Txina eta AEBak izan ziren munduko ekonomiaren ahultze horren protagonista nagusiak. AEBek ezarri zituzten neurri protekzionistek eta Asiako ekonomiaren erantzunak nazioarteko merkataritza hozten lagundu zuten, eremu ekonomiko guztiei, baina bereziki potentzia esportatzaileei, kalte eginez. Zehatz-mehatz adierazita, Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) egindako lehen kalkularen arabera, merkantzien munduko merkataritzaren bolumena % 0,1uzkuritu zen urte horretan.

Zehatzago adierazita, bi potentzien arteko liskarra 2019 osoan zehar luzatu zen. Herrialde bakoitzak besteari muga zergak etengabe handitzeaz gain, Trump presidenteak Txinan ekoitzi beharreko beste aukera bat ebaluatzeko agindu zien Estatu Batuetako enpresei, ekoizpena AEBetara eramatea barne, eta konpainia estatubatuarrei debekatu egin zien enpresa txinatarrek fabrikatutako telekomunikazio ekipoak erabiltzea. Merkataritza gerraren larriagotze horrek, mahai gainean jarri ziren neurrietako batzuk gauzatu ez baziren ere, kalte egin zien munduko esportazioei ez ezik, nazioarteko inbertsioari eta fabrikazioari ere, enpresarien konfiantza eta merkataritza truke globalak ahultzea eraginez.

Hogeita bi hilabetez etengabeko gatazka komertzialak izan ondoren, 2019ko abenduan bi potentziek su eten bat hitzartu zuten euren merkataritza gerran. Hala ere, eremu handi guztiek ondorioak pairatu zituzten beren esportazio mailan.

Munduko ondasunen merkataritza eremuka
5. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila milioi AEBetako dolarrak

	Esportazioak				Inportazioak			
	Balioa	Aldakuntza tasak			Balioa	Aldakuntza tasak		
	2019	2017	2018	2019	2019	2017	2018	2019
Mundua	18.888,7	10,6	9,8	-3,0	19.237,6	11,0	10,2	-2,9
Ipar Amerika	2.553,7	7,3	8,0	-0,5	3.500,7	7,3	8,4	-1,7
AEB	1.645,6	6,6	7,6	-1,1	2.568,4	7,0	8,5	-1,8
Erdi eta Hego Amerika	594,3	13,3	8,4	-6,4	613,9	8,1	11,6	-5,5
Brasil	222,6	17,6	9,9	-7,0	184,1	9,9	19,7	-2,4
Europa	6.923,8	9,4	9,6	-3,0	6.858,4	10,2	9,8	-3,2
Europar Batasuna 28	5.813,2	10,0	9,6	-3,0	5.526,7	11,7	11,4	-3,8
EBE (*)	617,3	24,5	23,2	-3,2	458,3	21,6	8,7	5,1
Errusia	418,8	25,3	25,5	-5,5	254,1	24,5	4,3	2,2
Africa	462,2	18,1	14,2	-4,5	569,1	5,6	11,7	-1,2
Ekialde Hurbila	968,1	14,4	17,7	-12,5	744,4	3,5	1,5	-0,2
Asia	6.769,2	10,8	8,2	-2,0	6.492,9	15,2	12,5	-3,9
Txina	2.499,0	7,9	9,9	0,5	2.077,1	16,1	15,8	-2,7
Japonia	705,5	8,3	5,7	-4,4	720,7	10,6	11,4	-3,7
India	324,2	13,1	8,5	-0,2	483,9	24,4	14,3	-5,9

(*) Estatu Burujabeen Erkidegoa.

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.

Analisia balio nominaletan fokatuz, merkantzien munduko esportazioak, bi urtez jarraian %10,0 inguruko hazkundeak jaso ondoren, %3,0 jaitsi ziren. Beherakadak eremu guztietara zabaldu ziren, bai garatuetara, bai garatzeko bidean daudenetara. Uzkurdura nagusiak Ekialde Hurbilean (-%12,5), Erdialdeko Amerikan eta Hegoaldean (-%6,4) eta Afrikan (-% 4,5) gertatu ziren. Paradoxikoki, AEBak eta Txina, zurrumbilo guztiaren epizentroa eta eragileak izan baitziren, gutxien kaltetutako

herrialdeetakoak izan ziren. Hain zuzen ere, AEBetako esportazioak %1,1 bakarrik uzkurdu ziren; Txinako salmentek, berriz, %0,5eko hazkundera lortu zuten.

Europa, bestalde, nahiz eta bere esportazioen beherakada ez hain nabarmena izan (-%3,0), gerra honek gehien kaltetu zuen eremuetako bat izan zen. Azken urteetan, Europa munduko esportatzaile nagusia bihurtu da. Hala, 2019an saldutako guztiaren %36,9 berak esportatu zuen; ez du lehengairik, ezta erraldoi teknologikorik ere, baina lantegiak ditu. Izan ere, 2008 eta 2013 artean bizitako krisian eremu honetako ekonomia hondoratu zenean, kanpoko eskariak bakarrik eman zuen hazkunderako bultzada. Horren ondorioz, inguruko herrialde askok beren hazkunde eredia lehiakortasunean eta esportazioetan oinarritutako baterantz aldatu zuten, eta, ondorioz, eremu hori (bai Europa, bai Europar Batasuna, bai eurogunea) irekietako bat bihurtu zen eta nazioarteko merkataritzaren gorabeherak eragin handia izaten dute bertan. Horren ondorioz, merkataritza krisiak Europa ahulago bihurtzen du; izan ere, bere esportazio mailari ez ezik, bere hazkunde motor nagusiari ere eragiten dio, eta barne eskari ahularen mende geratzen da.

Arestian aipatutako hazkunderaren eragozpen nagusiari gehitu behar izan zitzaion Europako hauteskundeetatik, Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeari buruzko akordio faltatik eta gizarte protestetatik eratorritako faktore geopolitikoekin lotutako ziurgabetasuna. Protesta horiek Latinoamerikatik Ekialde Ertainera eta Asiara zabaldu ziren. Manifestariek hainbat herrialdetako kaleak hartu zituzten, gizarte, hezkuntza, osasun eta lan arloetako hobekuntzak exijitzeko eta garraioaren eta erregaiaren prezioen igoera salatzeko. Izan ere, petrolioaren prezioaren gorakada izan zen ekonomiaren bilakaeraren beste baldintzatzaile handietako bat. Petrolioaren prezioa profil baxuarekin hasi zen 2019an, baina gorantz egin zuen LPEE osatzen duten ekoizleek ekoizpenean egindako murrizketen ondorioz. Ondoren, beheranzko bideari ekin zion berriro, Saudi Arabiako petrolio planten aurkako erasoek unean-unean eten zutena.

2019ko amaieran, munduko ekonomia egonkortzen ari zelako zantzuak ikusi ziren, neurri batean, Estatu Batuen eta Txinaren arteko lehen merkataritza akordio bat lortzeak jardueran eragin zituen ondorio positiboengatik, eta akordiorik gabeko Brexit bat izateko probabilitate txikiagoagatik. Halaber, jarduera ekonomikoa lan merkatuaren erritmo onak babestu zuen. Hala, langabezia tasak jaisten jarraitu zuten ekonomia aurreratuetan zein gorabidean daudenetan, eta hainbat herrialdetan, hala nola Erresuma Batuan, minimo historikoak apuntatu ziren. Inflazioa, bestalde, maila globalean kontrolpean egon zen. Ekonomia aurreratuen artean, berriz, sei hamarren jaitsi zen 2018ko mailarekin alderatuta, %1,4ra arte, herrialde nagusien artean zabaldu zen beheranzko joera baten ondorioz. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, aldiz, inflazioa %5,0an kokatu zen, 2018ko

erregistrotik bi hamarren gorago bakarrik. Venezuelan inflazioaren goranzko ibilbide kontrolgabeak, 2019an %19.906,0 hazi zela kalkulatzeko baita, joera horren zati bat azaltzen du.

Ekonomiaren aldagai nagusiak
6. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Mundua	3,6	2,9	3,6	3,6	--	--
Ekonomia garatuak	2,2	1,7	2,0	1,4	5,1	4,8
AEB	2,9	2,3	2,4	1,8	3,9	3,7
Japonia	0,3	0,7	1,0	0,5	2,4	2,4
Europar Batasuna 28	2,0	1,5	1,9	1,4	6,8	
Alemania	1,5	0,6	2,0	1,3	3,4	3,2
Frantzia	1,8	1,5	2,1	1,3	9,0	8,5
Erresuma Batua	1,3	1,4	2,5	1,8	4,1	3,8
Italia	0,8	0,3	1,2	0,6	10,6	10,0
Espainia	2,4	2,0	1,7	0,7	15,3	14,1
Garapen bidean daudenak	4,5	3,7	4,8	5,0	--	--
Asia	6,3	5,5	2,6	2,3	--	--
Amerika Latinoa	1,1	0,1	6,2	7,1	--	--
Ekialdeko Europa	3,3	2,4	6,1	6,5	--	--


Iturria: NDF.

2020rako aurreikusita zegoen suspertzea bat-batean eten zen urte hasieran Covid-19aren agertzearen ondorioz. Pandemiaren hedapenak eta berau gelditzeko beharrezko neurriek izugarri aldatu zuten munduko ekonomiaren bilakaera. Orduz geroztik, jarduerak eta enpleguak beherakada nabarmena izan dute, eremu geografikoen arabera orokorra izan dena, eta bereziki handia zerbitzuen sektorean. Erakunde nagusien aurreikuspen guztiak berriz kalkulatu behar izan dira. Oraindik ez da ezagutzen noraino iristen den kalte ekonomikoa, eta zein intentsitate eta iraupen izango dituen. Askotarikoak dira pandemiaren aurrean ekonomiak izango duen bilakaerari buruz aztertzen diren eszenategiak. Horietan guztietan, 2020an BPGaren atzerakada oso nabarmena izango da, nahiz eta 2021ean susperraldi handia aurreikusten den. NDFk %4,9ko beherakada aurreikusi du 2020an munduko ekonomiarentzat, eta %5,4ko hazkundera, berriz, 2021erako.

1.2 Analisia herrialdeka

Azaleratzen ari diren herrialdeek munduko BPGaren ia %60,0 ematen dute; beraz, neurri handi batean, munduko bilakaera baldintzatzen eta markatzen dute. 2019an, talde hori %3,7 hazi zen, tasa garrantzitsua dena, baina azken hamarkadan batez beste izandako %5,1etik urrun dagoena. Faktore kaltegarri garrantzitsuak izan arren, Asiak munduko eskualderik dinamikoena izaten jarraitu zuen (%5,5), baita hazkunde globalari ekarpen handiena egin ziona ere. Hala eta guztiz ere, hazkunde erritmo hori 2018koa baino zortzi hamarren txikiagoa izan zen, eta gero eta gehiago urruntzen da krisi aurreko balioetatik, non kontinentea bi digituetara hazten baitzen.

Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak) 4. irudia




Iturria : NDF.

Dinamismoaren galerak bere ekonomia nagusienetan izan zuen eragina. Hain zuzen ere, Txinak %6,1 egin zuen gora 2019an, 2018ko %6,7aren aldean, eta Pekinek aurreikusitako helburuaren ildotik, jarduera %6,0 eta %6,5 artean handitzea espero baitzuen. Datuak agerian uzten du Txinako ekonomiaren moteltzea, hazkunde minimo berri bat markatu baitu 1990etik. Ameriketako Estatu Batuekin izandako merkataritza gerra gogortu izanak eragin handia izan zuen jarduera ekonomikoan, eta gobernua behartu zuen zorretan oinarrituta ez zegoen hazkunde sustatzeko


neurriak onartzera, bai eta kontsumoa sustatzeko eta ekonomia suspertzeko diru pizgarriak onartzera ere. Halere, Txinako agintariek defendatzen dute egitura ekonomikoa optimizatzen jarraitu zela 2019an; izan ere, zerbitzuen sektorearen balio erantsia BPGren guztizkoaren %53,9 izan zen jada, 2018ko pisua baino sei hamarren gehiago, industriaren %39,0ren aldean. Datu horiek aukera ematen diete Txinako agintariei eredu aldaketa bati buruz hitz egiteko, manufakturan eta "hazkunde azkarrean" oinarritutako batetik kontsumoan eta "kalitate handiko hazkunderan" oinarritutako bestera.

Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak
5. irudia


Amerika Latinoa




Brasil



Txina



India



Iturria: NDF.

Indiako BPGren %60,0 baino gehiago barne kontsumotik etortzen da. Beraz, mundu mailan bizi den moteltzeko testuinguru batean, esportazioekiko menpekotasun txikiak Indiari nolabaiteko isolamendu maila bat ematen dio. Hala ere, Indiaren jardura ekonomikoa ere beheranzko joerak eraman zuen eta bertako BPGaren hazkunde tasa %4,2an kokatu zen, 2018an erregistratutako maila baino ia bi puntu beherago. Urte hasiera oparoa izan zen arren, 2019an erronka ugari planteatu zituen Indiako ekonomiarentzat, eta, BPGaren moteltzea alde batera utzita, industria ekoizpenaren indizeak ere behera egin zuen, kontsumitzailearen konfiantza okertu egin zen eta langabezia hazi egin zen. Oraingoz, Narendra Modi lehen ministroak herrialdeko ekonomia suspertzeko egin dituen saiakerak ez dute fruiturik eman. Izan ere, India hazkunde handiena izan duen ekonomietako bat izan da, baina azken hamarkadako emaitza txarrenetako bat izan du.

Latinoamerikak espero baino erregistro txikiagoak izan zituen, eta azaleratzen ari diren herrialdeen artean erreferentziazko beste eremu batzuetakoak baino txikiagoak. Hain zuzen ere, %0,1 soilik hazi zen 2019an. Hazkunde urri hori, funtsean, barneko faktoreek azaltzen dute, batez ere ziurgabetasun politikoak eta politika ekonomikoei buruzko zalantzek, nahiz eta kanpoko ingurunea ere ez zen aldekoa izan; izan ere, bazkide komertzial nagusien jardura moteldu egin zen, eta lehengai nagusien prezioak 2014a baino lehen lortutako maximoetatik urrun zeuden. Argentinako ekonomiaren egoera nabarmendu zen, uzurtzen jarraitu baitzuen (-%2,2). Brasilek, berriz, BPGaren %1,1eko hazkundearekin itxi zuen urtea. 2015eko eta 2016ko atzeraldi historikoaren ostean, non bertako BPG %3,6 eta %3,3 jaitsi baitzen hurrenez hurren, Brasilgo ekonomiak ondoz ondoko hiru urtez jarraian gora egin du. Erritmo galera hori gorabehera, BPGaren osaerak hobekuntza nabarmena adierazten du, kontsumo pribatuaren eta inbertsio pribatuaren etengabeko hazkundearekin, eta, beraz, ekonomia sektore publikoarekiko dinamismo independentea erakusten hasi da.


Gorabidean dauden Europako herrialdeen artean, Errusiak ez zuen lortu 2017an hasitako goranzko bideari eustea eta erritmoa galdu zuen berriro. Errusiako ekonomia %1,3 hazi zen 2019an, gobernuak espero zuena baino gutxiago, eta 2018an lortutako %2,5etik urrun. Jardura meatzaritza sektorearen (%2,7) eta finantza sektorearen (%9,7) hazkudean oinarritu zen, eta, aldi berean, herrialdeko burtsa izan zen iaz errentagarritasun handiena lortu zuenetako bat. Aldiz, kontsumoak beherantz jarraitu zuen, azken urteetan bezala, eta 2019an are gehiago moteldu zen.

Ekonomia aurreratuei dagokienez, oro har, %1,7 hazi ziren, 2018an baino puntu erdi bat gutxiago. Zehatzago adierazita, AEBak ez ziren merkataritza gerratik at geratu eta muga-zergen inpaktua ere jasan zuten. Inbertsioak eta kontsumo pribatuak indarra galdu zuten eta hazkudeari egindako ekarpena murriztu zuten; kanpo sektoreak, berriz, 0,15 hamarren kendu zion BPGari. Horren


guztiaren ondorioz, AEBetako jardura ekonomikoa %2,3 hazi zen, 2018an baino sei hamarren gutxiago. Lan merkatuak, bestalde, ez zuen motelaldi ekonomikoaren ondorioz izan, eta %3,7ko langabezia tasarekin itxi zuen urtea, azken berrogeita hamar urteetako maila txikienean.

Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak (I)
6. irudia


AEB




Japonia



Europar Batasuna 28



Alemania



Iturria: NDF eta Eurostat.


Japonian, ekonomia jarduerak 2018an galdutakoaren zati bat berreskuratu zuen. Urtearen azken txanpan herrialdeari eragin zioten zenbait tifoiren eragin suntsitzailea eta BEZaren %8,0tik %10,0ra arteko igoera gorabehera, kontsumo pribatua pixka bat suspertu zen eta %0,2 hazi zen, aurrerapen eskasa, baina esanguratsua, 2018an izandako hazkunde hutsaren aldean. Inbertsioak indar handiagoz egin zuen gora, eta kanpo sektoreak, 14 hilabete baino gehiago (uztailean izan ezik) erorketa librean daramatzaten esportazioek kaltetuta, hainbat hamarren kendu zizkion jarduerari. Mundu mailako moteltzeak eta bere bazkide komertzial nagusien arteko merkataritza gerrak azaltzen dute kenketa hori. Hala eta guztiz ere, Japoniako BPG %0,7 hazi zen, aurreko erregistrotik lau hamarren gora. Hala ere, Japoniako BPGaren bilakaera zalantzazkoa da oraindik; izan ere, gorakada bakoitzaren ondoren beste apaltze bat pilatzen da –kasu batzuetan beste jaitsiera bat ere bai– eta horrek agerian uzten ditu haren egiturazko ahuleziak eta ezinezkoa da susperraldia finkatuzat jotzea. Datu positiboa lan merkatuaren eskutik iritsi zen, non langabezia tasa %2,4an mantendu baitzen, eta, neurri txikiagoan, prezioen bilakaeraren eskutik ere, tonua galdu arren, eremu positiboan mantentzea lortu baitzuten.

Europar Batasuneko BPGak moteltzen jarraitu zuen 2019an eta %1,5ean kokatu zen, aurreko urteko %2,0aren aldean. 2018an erregistratutako moteltzetik urrun, barne eskariaren nahiz kanpo eskariaren dinamismo txikiagoak eragin baitzuen, 2019ko moteltzea nazioarteko merkataritzaren ahultze garrantzitsuaren ondorioa izan zen batez ere, eta horrek ekarri zuen, lehen aldiz hiru urtean, kanpo sektoreak hamarrenak kentzea jarduera ekonomikoari. Zehazkiago adierazita, BPGari lau hamarren kendu zizkion, 2017an eta 2018an lau eta bi hamarren, hurrenez hurren, eman zituen bitartean. Aldeko finantzaketa baldintzen babesari, enpleguaren hobekuntza gehigarri eta soldaten igoerei esker, kontsumo pribatuak eta inbertsioak 1,9 puntu eman zizkieten BPGari eta 2018an baino portaera hedakorragoa erakutsi zuten. Izan ere, izakinen aldakuntzak eragindako kenketagatik izan ez balitz, eta kanpo sektorearen portaera txarra izan arren, BPGaren hazkundera 2018an erregistratutako mailaren antzekoa izango zatekeen.


Xehetasun handiagoz, Europako ekonomiarik handienak 2019an eskuratu zuen 2013tik izandako hazkunderik txikiena, merkataritza gerrak, Brexitak eta automobilaren industria nazionalaren arazoez eraginda. Esportazioak, Alemaniako ekonomiaren zutabea baitira, %1,0 baino ez ziren hazi, eta inportazioak, berriz, %2,5. Kontsumo pribatua %1,6 handitu zen eta ekipo ondasunetan egindako inbertsioak apenas egin zuen aurrera (%0,4), sektore pribatuak ekonomiaren etorkizuneko bilakaerari buruz dituen zalantzak agerian utziz. Izan ere, Alemaniako ekonomiak moteltze zantzuak erakutsi zituen 2019an, eta beldur ziren atzeraldi teknikoan sartuko ote zen, apiriletik ekainera bitarteko aldia eta urria-abenduari dagokiona negatiboan (hiruhileko arteko tasetan) itxi baitziren. Horren guztiaren ondorioz, Alemaniako urte arteko BPGa %0,6koa izan zen, 2018an baino bederatzi hamarren txikiagoa, eta 2013tik izan duen mailarik txikiena.

Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak (II)
7. irudia


Frantzia




Italia



Portugal



Erresuma Batua



Iturria: Eurostat.

Frantziako ekonomia ez zuten arestian aipatutako kanpo ziurgabetasunek bakarrik mugatu. Gizarte mugimenduek ere baldintzatu zuten jardura ekonomikoa eta politikoa. 2018. urtearen amaieran hasi zen eta 2019. urtearen zati handi batean zabaldu zen erreforma sozialak eta fiskalak eskatzeko txaleko horien mugimenduari, Frantzian hamarkadetan bizitako garraio greba luzeena gehitu zitzaion, pensio sistemaren erreformaren aurka deituta. Hala ere, nahiz eta beldur izan mobilizazioek kontsumo pribatuan eragin handia izango zutela, kontsumo pribatuak ez zuen etsi,

eta 2018an baino bizitasun handiagoa erakutsi zuen. Are gehiago, inbertsioak 2018ko erregistroa gainditu zuen, eta %4,2 handitu zen. Beste behin ere, kanpo sektorearen beherakada, zehazki esportazioen moteltzea, izan zen hazkundera baldintzatu zuen faktorea, %1,5ean kokatu baitzen, 2018an lortutako erregistroa baino hiru hamarren beherago.

Italian, Europako Batzordearekin izandako arazo politikoek eta zerga arloko tentsioek jarduera ekonomikoaren bilakaeraren zati bat markatu zuten. Izan ere, kontsumo publikoan eta, neurri txikiagoan, inbertsioan eragina izan zuten, 2018ko mailarekin alderatuta puntu bat eta erdi baino gehiago galdu baitzituen. Orobat, ezegonkortasunak eragin negatiboa izan zuen konfiantzan eta kontsumo pribatuan, %0,4ko hazkunde apatikoa lortu baitzuen, gainerako agregatuen narriadura konpentsatzeko nahikoa izan ez zena. Esportazioak, berriz, nabarmen moteldu ziren. Horren guztiaren ondorioz, Italiako ekonomia %0,3 hazi zen, 2014tik izan duen daturik txarrenea baita, baina Italiako gobernuaren aurreikuspena baino pixka bat hobea izan zen, %0,1eko igoera kalkulatu baitzuen.

Portugalek, berriz, %2,2ko hazkunderarekin itxi zuen 2019a, Europar Batasuneko handienetako bat delarik. Inbertsioaren sendotasunak kontsumo pribatuaren dinamismo txikiagoa konpentsatu zuen. Hala ere, kontsumo pribatua %2,2 hazi zen. Batasuneko gainerako herrialdeetan bezala, esportazioak nabarmen murriztu ziren ezegonkortasunaren eta beldurraren ondorioz, nahiz eta erritmo nabarmenean hazten jarraitu zuten. Erresuma Batuak, azkenik, Europar Batasuneko kide gisa egin duen azken urtean, alde batera utzi zuen eremuak nahiz merkataritza bazkide nagusiek izandako beheranzko joera, eta %1,5 hazi zen, aurreko erregistroa baino bi hamarren gehiago. Liberaren errebalorizazioak eragin positiboa izan zuen familien erosteko ahalmenean, eta horrek kontsumoan eta inbertsioan, zeinak hazkunde positiboak berreskuratzea lortu baitzuen 2018an jasandako uzkurduraren ondoren. Paradoxikoki, eta bere dibisaren indarra gorabehera, herrialdearen esportazioak modu indartsuan hazi ziren (%5,0) eta inportazioak baino gehiago.

Europar Batasunean ezegonkortasuna eta hazkunde erritmo oso txikia egon arren, lan merkatuak 2013an hasitako hobekuntzarekin jarraitu zuen. Hala, Europar Batasuneko langabezia tasa %6,3koa izan zen 2019an, 2000. urtean serie historikoa hasi zenetik erregistratutako mailarik txikiena baita. Eremua osatzen duten ia herrialde guztiek hobetu zituzten balioak aurreko urtearekin alderatuta, eta 2019an 1.200.000 lanpostu baino gehiago berreskuratu ziren. Are gehiago, eremuko 28 herrialdeetatik 16k 2019a itxi zuten krisiaren hasieran baino lan merkatu onbideratuagoekin, Europar Batasuna bere osotasunean barne. Langabezia tasarik altuenak Greziakoak (%17,3), Espainiakoak (%14,1) eta Italiakoak (%10,0) izan ziren, herrialde horien langabezia tasak bi zenbakitan jarraitzen baitu.

Inflazioa, azkenik, 2019an kontrolpean egon zen eta Europako Banku Zentralak (EBZ) ezarritako helburuaren azpitik. Europar Batasunak %1,5eko inflazioarekin itxi zuen 2019a. Herrialdeka, prezioen igoera Hungariaren %3,4 eta Portugalen %0,3 artekoa izan zen.

1.3 Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomia %2,0 hazi zen 2019an, gobernuak aurreikusitakoa baino hamarren bat gutxiago eta aurreko urteko %2,4 baino lau hamarren beherago. Honekin sei urtez jarraian egin du gora, nahiz eta 2019koa 2014tik, hots, susperraldia hasi zen urtetik, jaso duen tasa txikiena den. Sei urteko aldi horretako maximoa 2015ean lortu zen, %3,8ko hazkundearekin. Iazko hazkundeak oraindik igoera sendoa suposatu du, merkataritza tentsioak, Brexitak, Txinaren erritmo galerak, eurogunearen moteltzeak eta automobilaren zailtasunek markatu duten urte batan, eta euroguneak erregistratutako BPGa baino zazpi hamarren handiagoa izan da.

Dinamismoaren galera hori kontsumo pribatuaren bultzada txikiagoaren ondorioa izan zen, krisiaren ondoren bizi izan zuen errebotea agortu ondoren moteltze mailakatuarekin jarraitu zuena. 2019an, gutxieneko soldata %22,3 igo zen, soldatapeko langileen ordainsaria %3,2 igo zen administrazio publikoetan eta %1,6 nekazaritzakoa ez den sektore pribatuan. Igoera horiek krisiaren hasieratik izandako handienak dira. Hobekuntza horiek egon ziren arren, kontsumoak 2013. urtean susperraldia hasi zenetik izandako portaera okerrenera erakutsi zuen. Inbertsioari ere kalte handia egin zitzaion, batez ere etxebizitzetara eta eraikuntzetara bideratutakoa (%0,8) eta, neurri txikiagoan, ekipamendurako ondasunetara bideratutakoa (%2,6), biak ere murriztu baitziren, ziurgabetasuna areagotu eta konfiantza murriztu zelako. Aitzitik, gastu publikoa %2,3 hazi zen, 2018an baino lau hamarren gehiago eta hamar urteko igoera handiena izan zuen, 2019an egindako hauteskunde deialdien ondorioz. Horren guztiaren ondorioz, barne eskariak 1,5 puntu ekarri zizkion jarduera ekonomikoari.

Kanpoko eskariak, berriz, puntu erdiko hazkundea ekarri zion hazkundeari. Atzean geratu da 2018an egindako kenketa puntuala. Lehiakortasun irabaziek eutsi egin zieten esportazioei, 2018koa baino erritmo biziagoan hazi baitziren, eta inportazioek, kontsumo pribatuaren ildotik, tonua galdu zuten. Jarduera ekonomikoaren erritmoa txikiagoa izan arren, Espainiako ekonomiak hazkunde orekatua izan zuen, eta ekarpen positiboak izan ditu bai barneko eskariaren aldetik bai kanpoko eskariaren aldetik.

Eskaintzari dagokionez, lehen arloa izan ezik, gainerako adar guztiek, maila agregatuan, hazkunde positiboak eskuratu zituzten. Jardueraren datu oraindik onek, enplegua sortu zuten. 2019an, 406.000 lanpostu baino gehiago sortu ziren, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta. Horrek esan nahi du urteko batez besteko igoera %2,3 izan zela, 2018an erregistratutakoa baino bi hamarren txikiagoa. Azkenik, inflazioa urtarrilean %1,0an hasi ondoren, KPIaren urte arteko tasaren bilakaera goraka joan zen apirilera arte (%1,5era arte igo zen), eta abuztuan %0,1era jaitsi zen. Prezioak azaroan hasi ziren suspertzen, %0,4ko tasa batekin, eta urtea % 0,7an amaitu zuten, 2018ko itxiera baino puntu bat beherago.

Espainiako ekonomiaren taula makroekonomikoa
7. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017(B)	2018(A)	2019(A)
Azken kontsumoko gastua	1,1	2,7	2,3	2,5	1,9	1,4
-Familien gastua kontsumoan	1,7	2,9	2,6	3,0	1,8	1,1
-Administrazioaren gastua kontsumoan	-0,7	2,0	1,0	1,0	1,9	2,3
Kapital eraketa gordina	4,1	4,9	2,4	5,9	5,3	1,8
Esportazioak	4,5	4,3	5,4	5,6	2,2	2,6
Inportazioak	6,8	5,1	2,6	6,6	3,3	1,2
BPG	1,4	3,8	3,0	2,9	2,4	2,0
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza,	-1,3	4,7	4,8	-3,0	5,9	-2,6
Erauzketa industriak eta manufaktura	1,3	3,0	4,1	3,1	-0,4	0,6
Eraikuntza	-1,3	5,4	3,9	4,9	5,7	3,5
Zerbitzuak	1,1	3,1	2,4	2,9	2,7	2,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,1	9,6	5,2	2,8	1,2	-0,1
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	0,2	-0,5	-0,2	2,0	1,7	1,7
-Enplegua	1,0	3,2	2,8	2,8	2,5	2,3

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.


Iturria: INE.

2. EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA

2.1 Biztanleko BPGaren bilakaera eta bere determinanteak

Eustatek eta Eurostatek argitaratutako datu ofizialen arabera, 2019an Euskadiko biztanle bakoitzeko BPG Espainiako EAParekin neurtzen denean, EB-15ekoa baino %9 handiagoa eta Europar Batasun osokoa baino %17 handiagoa da. Hala ere, EB-15eko EAP berarekin neurtzen bada, maila eremu horretakoa baino pixka bat baxuagoa da (%2,4 txikiagoa), eta 34.273 eurokoa da.

BPG biztanleko. EAP. EB-15=100
8. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

Ondoko irudian ikus daitekeenez, EAEko per capita BPGk EB15ekiko erabateko konbergentzia erritmoari eutsi dio azken urteotan (2015-2019), aldi horretan batez besteko hazkunde tasa handia (%2,6) eskuratu duelako. Halaber, Alemaniarekiko aldea zertxobait murrizten du, nahiz eta herrialde horren posiziotik urrun dagoen oraindik (%15,1 gorago zegoen 2019an eta %21,3 gorago, berriz, 2015ean). Era berean, dibergentzia txiki bat dago EB28ren eta Espainiaren ibilbideekin, aurreko aldian hasi zena. Orobat, nabarmentzekoa da Txekiako per capita BPGaren hazkundera, 2019an Espainiarekiko erabateko bat egitea lortu baitzuen.

2015-2019 epealdi hori, aurrekoekin alderatuta, hau da, Atzeraldi Handiarekin (2008-2013) eta krisitik irteteko aldiarekin (2013-2015), oso egonkorra izan da, eta, egungo pandemiak ekonomian eragingo dituen ondorioak alde batera utzita, bi urteko epean EB15ekiko erabateko konbergentzia lortu zitekeela ematen du.

Biztanleko BPGaren hazkunderaren banaketa EAPeen

Biztanle bakoitzeko BPG ($BPG_{pc} = Y/N$) da, zalantzarik gabe, jarduera ekonomikoaren adierazle behinena, baina interesgarria da aztertzea, halaber, zer baldintzatzailek bultzatzen duten haren portaera, hau da, zer neurritan egiten duen gora lan partaidetzaren (L/N) eta lanaldiaren (H/L) aldaketan arabera edo orduko produktibitatearen (Y/H) aurrerapenen arabera. Bereziki garrantzitsua da produktibitatea; izan ere, epe luzera, lan merkatuaren modernizazioa amaitu eta enplegu tasa handiak lortu ondoren, eta, beraz, muga hori izanik, hura bihurtzen da aurrerapen orokorraren benetako erabakitzailea epe luzera.

$$\Delta Y/\Delta N = \Delta Y/\Delta H + \Delta L/\Delta N + \Delta H/\Delta L$$


2019an, EAEn per capita BPGren hazkundera moteldu egingo dela kalkulatu da, 2018an erregistratutakoarekin alderatuta (%1,7 eta %2,8, hurrenez hurren). Izan ere, orduko produktibitateak (%2,3) eta lan partaidetzak (%1,3) parte hartze handiagoa izan zuten, 2019an 15.335 lanpostu garbi sortu baitziren (%1,6), lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, baina murrizketa nabarmena gertatu zen lanaldiaren ekarpenean, BPGaren hazkunderari %1,8ko kenketa egin diolako (1.448 lanordu guztira enplegatutako pertsona bakoitzeko). Baliteke lanaldiaren murrizketa hori urte horretan negoziazio kolektiboetan hitzartutako baldintza berrien ondorio izatea; izan ere, hor ikusten da lanaldi-murrizketa funtsezko aldarrikapen gisa berreskuratzeko

interesa, bai sektore publikoan bai arlo pribatuan. Lanaldiaren ekarpenaren murrizketa hori Espainiako (-%0,6) eta Alemaniako (-%0,3) datuetan ere gertatu da, baina ez hain modu nabarmenean. Azpimarratu behar da EAEko ekonomian orduko produktibitateak ekarpen handia egin duela 2019an, gainerakoetan baino handiagoa, alegia.


BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (I).

9. irudia



Euskadi



Espainia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (II).**10. irudia****Europar Batasuna 15****Alemania**

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

2014-2019 aldia aztertuta, argi eta garbi ikusten da biztanleko BPGaren hazkundearen murrizketa kurba alderatu diren ekonomia guztietara zabaldu dela; 2015ean hasi zen Espainian, 2016an eta 2017an zabaldu zen besteetara, eta orain AEB izan da 2018tik aurrera nabaritzen azkena. Alemaniako ekonomiaren krisi industrialaren eraginaren ondorioak berretsi dira aurten; aurreko urtean hasi zen AEBen eta Txinaren arteko gerra komertzialaren ondorioz, Brexit-aren ondorioz eta


automobilgintzaren sektorearen krisiaren ondorioz, eta orain 15 kide-tako Europako Batasun osora zabaldu da.

Nolanahi ere, 2019a trantsizio urtetzat hartu beharko da, 2020an iritsi den pandemiak datu horiek guztiak aldatuko baititu, eta, printzipioz, herrialde guztiei eragingo baitie berdin, gutxienez Europako guztiei.


BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (III).

11. irudia

AEB



Txekiar Errepublika



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

2.2 Ekoizpen arloak

EAEko ekonomiaren hedapen ibilbidea luzatu egin zen 2019an ere eta BPGaren hazkundera %2,0tik gorakoa izan zen bosgarren urtez jarraian. Hain zuzen ere, barne produktu gordina %2,2 handitu zen, aurreko urtean baino zortzi hamarren gutxiago. Hazkunde guztia barne eskariaren bidez eskuratu zen eta kanpoko eskariaren ekarpena hutsala izan zen. BPGaren aurrerapenaren bilakaerak ez zuen ia gorabeherarik izan iazko urtean zehar, batez beste, %0,6koa izan baitzen hiruhileko arteko tasan, eta urteko bigarren seihilekoan apur bat behera egin zuen. Termino nominaletan, EAEko BPGa %3,2 hazi zen urtetik urtera, eta deflatoea %1,6an mantendu zen.

Sektoreen ikuspegitik, 2019an jarduera adar guztiek ekarpen positiboak egin zizkieten balio erantsiaren hazkunderari. Hala, nekazaritzako eta arrantzako sektoreak, bere ohiko portaera gorabeheratsuaren barruan, %0,6ko igoera txikia lortu zuen. Bestalde, azken urteetako moteltze joerari eutsi dio EAEko industriak eta %1,1eko batez besteko hazkunderarekin itxi zuen urtea. Eraikuntzari dagokionez, sektorerik dinamikoena bihurtu zen, batez beste %3,1eko gehikuntza batekin, nahiz eta apaltzeko joera nabarmena erakutsi zuen. Azkenik, hirugarren sektoreko jarduera adarrak ere aurrerapen esanguratsua izan zuen 2019. urtean (%2,5), azken bost urteetako hazkunderik txikiena izan bazen ere.

Lehen arloko adierazle nagusiak *8. taula*

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
BEG bolumeneko indizea	-20,0	13,1	1,0	10,1	7,9	0,6
BEG uneko prezioak	-9,5	3,9	4,2	25,2	3,9	-4,8
Deflatoea	13,2	-8,1	3,2	13,7	-3,7	-5,4
Enplegua	-1,3	-1,0	0,7	0,1	-1,0	0,9
Produktibitatea	-19,0	14,3	0,2	10,0	9,0	-0,3

Iturria: Eustat.

Lehen sektoreak balio erantsi gordinari egindako ekarpena %0,6koa izan zen 2019an. Eta hazkunde tasa hori urria bada ere, bost urtez jarraian hazkunde positiboak kateatzen dira jarduera adar

horretan. Unean uneko preziotan kalkulatur, gehikuntza tasa $-4,8\%$ koa izan zen. Beraz, sektorearen deflatoea $-5,4\%$ jaitsi zen.

Nekazaritza sektorearen azken ekoizpena murriztu egin zen 2019an laborantza eta abeltzaintza azpisektoreetan, baina izugarri handitu zen basogintzan. Laborantzako produktuen bolumena asko murriztu zen, batez ere Arabako Errioxako ardo beltzaren ekoizpena gutxitu zelako 2018ko mahats bilketa ugariarekin alderatuta. Halaber, laborantzako azken ekoizpenaren balioa jaitsi egin zen, funtsean, ardoaren prezioen beherakadaren ondorioz. Baratzeko laboreen eta frutaren kanpaina ona nabarmentzekoa da, uda-udazken lehor eta beroari esker. Abeltzaintza adarrari dagokionez, ekoiztako kopuruak gora egin du, eta oilo erruleen erroldak ere nabarmen egin du gora. Hala eta guztiz ere, joera orokorra izan da arrautzen, oilasko haragiaren eta ardi esne eta gaztaren prezioek behera joatea, eta horrek abeltzaintzako azken ekoizpenaren balioa murriztea eragin zuen. Azkenik, basogintzaren ekoizpenak gora egin zuen 2018ko emaitza txarrekin alderatuta, urte horretan pinuaren izurriaren edo banda marroiaren hedaturagatik. 2019an, izurritea ez zen hainbeste zabaldu, hezetasun faltagatik. Egur mozketak gutxitu egin ziren, baina izakinen aldakuntza gehituta saldoa positiboa da. Batez besteko prezioak jaitsi egin ziren. Kalterik gabeko pinuan, prezioa mantendu egin zen, baina banda marroiak kaltetutako egurraren prezioak behera egin zuen.

Arrantza azpisektorean, 2019an jaitsiera handiak gauzatu ziren salmenta-bolumenean. EAEko ontziei dagokien kopurua igo egin zen 2018. urtearekin alderatuta eta jaitsierarik handiena Frantziako ontzidiaren salmentei dagokie. Bereziki garrantzitsuak izan ziren sardinaren eta berdelaren porturatzeen jaitsierak eta bi espezie horien prezioek igoera nabarmena izan zuten. Horrek berdelaren kanpaina salbatu zuen, baina sardinaren kasuan balio galera nabarmena ekarri zuen berarekin.

2019an, EAEko industriaren moteltze handia gertatu zen, beraren jardueraren $1,1\%$ hazita. Balio hori aurreko datuaren ($2,5\%$) azpitik dago eta azken sei urteetako urtetik urterako aldakuntza tasarik txikiena da. Datu horrekin, sektoreak bere dinamismoaren narriadura nabarmena adierazten du, batez ere 2019ko lehen hiru hiruhilekoetan. Industriaren hazkundera barneko zein kanpoko eskarian oinarritu zen. Lehenengoari dagokionez, hazkunderaren bilakaera dinamikoa, iraunkorra eta egonkorra izan zen 2019an. Hala eta guztiz ere, esportazioen narriadura izan zen, batez ere urteko lehen eta hirugarren hiruhilekoan gertatutakoa, EAEko industria jardueraren moteltzea eragin zuena. Termino nominaletan, industriaren aldakuntza tasa $2,1\%$ izan zen, eta horrela, deflatoearen hazkundera $1,0\%$ koa izan zen.

EAEko industriaren BEGaren bilakaera
9. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
BEG bolumeneko indizea	2,2	3,1	4,2	2,5	2,5	1,1
BEG uneko prezioetan	0,8	4,4	4,0	2,8	4,5	2,1
Deflatorea	-1,5	1,3	-0,2	0,3	2,0	1,0
Enplegua	-1,0	1,3	1,9	2,9	2,2	0,6
Produktibitatea	3,3	1,7	2,3	-0,4	0,3	0,5
Industria produkzioaren indizea	1,4	3,3	3,1	5,7	2,2	1,6
Industria jarduera indizea	-12,6	-3,5	-4,8	-3,7	-6,9	-7,1


Iturria: Eustat eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa.

EAEko industriari buruz eskura dauden koitunturako adierazleek profil koherentea erakutsi zuten balio erantsiak marraztutako bilakaerarekin. Hala, Eustatek zenbatetsi duen IPI seriearen joerak dinamismo txikiagoa erakutsi zuen 2019an, batez beste. IPI indizea osatzen duten talde gehienek, ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenean, aurreko urtekoak baino hazkunde txikiagoak izan zituzten, energiaren ekoizpena salbuespen bakarra delarik. Izan ere, energiaren ekoizpenak erakutsi zuen sendotasun handiena, eta, ondoren, kontsumorako eta ekipamendurako ondasunen ekoizpenean hazkunde apalagoak jaso ziren. Bitarteko ondasunen ekoizpena tasa hutsalean hazi zen. EAEko industriaren azpisektoreak aztertuz gero, urteko batez bestekoan produktu farmazeutikoen eta energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren ekoizpenaren hazkunde handiak nabarmentzen dira. Moteltze nabarmenena garraiorako materialaren, makineriaren eta tresneriaren ekoizpenean gertatu zen.


Era berean, industria giroaren indizeak (IGI), Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresen iritziez argitaratzen duen inkestatik eratorritzen denak, IPIaren bilakaera bera erakutsi zuen. Zehazkiago adierazita, IGIaren hileko datuek uzkurdura profil txiki bat markatu zuten eta balio negatiboan eremuan mantendu ziren. Bilakaera hori bereziki nabarmena izan zen eskaera zorroaren aldagaian, -23,9ra jaitsi baitzen 2019ko urteko batez bestekoan, aurreko urtean jasotako -13,2aren aldean. Nazioarteko ingurune ekonomikoan ezarri diren aurreikuspen okerragoek intentsitatea kendu zioten EAEko industria jarduerari.

EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.
Urte arteko aldakuntza tasak
12. irudia


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Industriaren lan merkatuari dagokionez, enpleguaren hazkunde tasa %0,6an kokatu zen. Datu horrekin, industria izan zen 2019an lanpostuak sortzeko gaitasun txikiena zuen sektore ekonomikoa. Tasa horrek, balio erantsi gordinaren hazkudearekin batera, sektoreko lan faktorearen itxurazko produktibitate irabazia 2019an %0,5 izan zela esan nahi du, jarduera adar honetarako datu apal samarra dena.

Eraikuntzak hazkunde joera biziari eutsi zion eta sektore ekonomiko dinamikoena bezala agertu zen 2019an. Urteko batez bestekoan neurtuta, sektorearen hazkundera %3,1ekoa izan zen, aurreko urtean jasotakoa baino puntu bat txikiagoa. Sektorearen azpikategoriak aztertzeke orduan, jokabide profil bera hautematen da. Izan ere, bai eraikinak bai obra zibilak hazkunde positiboko tasa esanguratsuak izan zituzten, baina 2018ko datuekin alderatuta, moteldu egin ziren. Zehatzago adierazita, Eustatek argitaratu duen eraikuntzaren kointura indizearen arabera, 2019an eraikinen azpisektorearen gehikuntza tasa %9,2koa izan zen, eta obra zibilarena, berriz, %5,6koa. Adierazle guztiek norabide bera seinalatzen dute eta sektorea berregituratu ondoren izan zuen bultzadaren galera adierazten dutela ematen du. Beste aldetik, etxebizitzaren prezioaren igoerak eraikinen ataleko bultzada murriztu du.

Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak
10. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
BEG bolumeneko indizea	-1,7	1,1	0,2	1,6	4,1	3,1
BEG uneko prezioak	-2,1	1,2	0,6	2,4	5,7	4,3
Deflatorea	-0,4	0,1	0,4	0,8	1,5	1,2
Enplegua	-3,4	2,2	0,3	-0,1	3,6	2,8
Produktibitatea	1,7	-1,0	-0,1	1,7	0,5	0,3
Higiezinen transakzioak	8,8	21,1	12,2	11,4	13,8	-3,3
Prezioa €/m ²	4,4	-3,7	-18,1	2,0	3,1	12,8
Hasitako etxebizitzak	-7,6	-10,4	55,4	-19,3	57,6	-0,1
Amaitutako etxebizitzak	-16,8	15,4	-37,4	8,7	17,4	7,5
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	0,6	40,1	-14,0	20,2	16,9	-3,3
Eraikuntzaren kointura indizea	-4,6	-0,1	1,3	5,4	12,3	8,7

Iturria: Eustat, INE eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.

Lan merkatuaren ikuspegitik, 2019an eraikuntzaren sektorearen balio erantsiaren igoerak enpleguaren %2,8ko hazkundera ekarri zuen berekin. Hala ere, lanpostuak sortzeko erritmoaren moteltze handia bizi zen urteko bigarren seihilekoan. Dena dela, balio erantsiaren bilakaerak, enpleguaren datuarekin batera, produktibitatearen hazkundera %0,3izan zela adierazten du, hots, ekonomia osoarena baino txikiagoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuen sektoreak zertxobait murriztu zuen bere hazkunde tasa, %2,5ean geratu baitzen 2019an. Hori horrela izanda, jarduera adar hori bi hamarren moteldu zen aurreko urtearekin alderatuta. Azpisektoreen arabera aztertuz gero, moteltzea merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen adarrean soilik gertatu zen, %2,4ko hazkunde-tasarekin; hirugarren sektoreko gainerako kategoriek, ordea, egonkortasuneko eta bizitasun neurritsuko ibilbidea markatu zuten.

Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak
11. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
BEG bolumenen indizea	1,7	3,5	2,8	2,9	2,7	2,5
BEG uneko prezioak	2,0	3,7	3,6	3,8	3,7	3,4
Deflatorea	0,3	0,2	0,8	0,9	1,0	0,9
Enplegua	1,0	2,4	2,5	2,1	2,7	1,8
Produktibitatea	0,7	1,1	0,3	0,8	0,0	0,7
Bidaiarien gaualdiak	4,0	8,2	8,9	2,7	8,1	3,3
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,92	1,91	2,01	1,98	2,05	2,04
Plazen betetze maila (ehunekoa)	46,4	49,8	48,4	49,4	51,8	52,3
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,4	2,5	3,8	3,2	1,1	0,9

Iturria: Eustat.

Azterketa salmentara bideratutako zerbitzuen jarduera adarrean fokatuz, 2019ri dagozkion adierazle ekonomikoek beherakada txiki bat islatu zuten aurreko urtearekin alderatuta. Merkataritza azpisektorean, berezko adierazle ekonomikoek joera desberdina deskribatu zuten. Hala, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiunturako indizeak (ZKI) eta txikizkako merkataritzaren indizeak (BMIt) egonkortasuna islatu zuten, hazkunde txikiekin. Beste aldetik, azalera handietan eta elikadura kate handietan eraturako merkataritza-indizeak apaltzeko joera nabarmena eta orokorra erakutsi zuen kategoria guztietan. Lan arloan, ZKIk zenbatetsi du merkataritza azpisektoreko lanpostuen sorrera hutsala izan zela 2019an.

Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-sektoreari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen turismo establezimendu hartzaileen inkestak dinamismo galeraren zantzuak erakutsi zituen 2019an. Hain

zuzen ere, gualdien kopurua asko moteldu zen. Hala eta guztiz ere, batez besteko egonaldia eta okupazio maila aurreko urtean kuantifikatutako mailen inguruan mantendu ziren. Horiek horrela izanda, batez besteko egonaldi orokorra eta plazen arabera okupazio maila 2,04 egunekoa eta %52,3koa izan ziren, hurrenez hurren, 2019ko batez bestekorako. Gualdiei dagokionez, hazkunde tasa positiboak zenbatetsi ziren, baina intentsitatea galdu zuten aurreko urtearekin alderatuta. Bizitasunaren jaitsiera hori nazioarteko turistaren artean eta bereziki Estatutik etorritakoen artean gertatu zen.

Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka. Bolumenaren indize kateatua
12. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Zerbitzuak guztira	1,7	3,5	2,8	2,9	2,7	2,5
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,9	5,0	3,6	4,1	4,0	2,4
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	2,6	1,5	2,4	2,2	2,1	2,2
Gainontzeko zerbitzuak	1,0	3,6	2,5	2,6	2,2	2,6

Iturria: Eustat.


Garraioaren azpisektoreari dagokionez, ZKlaren datuek adierazten dute adar hori izan dela moteltzeak gehien eragiten duena. Hegazkingintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak aireportuetako trafikoari buruz emandako informazioaren arabera, 2019an hazkundera moteldu egin zen 2018arekin alderatuta, bai hegazkinen eta bidaiarien zirkulazioan, bai nazioan, bai nazioartean. Salgaien trafikoari dagokionez, Forondako aireportua joera horretatik kanpo geratu zen eta bizitasun handia erakutsi zuen, urtean %3,7 hazi baitzen. Beste garraio bide batzuk aztertuta, 2019an Bilboko metroa erabiltzen duten bidaiarien kopuruak igoera txikiagoa izan zuen.

2.3 Eskaria


BPGaren hazkunderaren oinarria 2019an barne eskariaren bizitasuna izan zen, eta haren aldakuntza tasa %2,1 izan zen, azken bosturtekoan erregistratutako urte arteko tasarik txikiena. Barne eskariaren osagai guztiek ekarpen positiboak egin zizkieten agregatuaren gehikuntzari.

Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak
13. irudia

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordina



Iturria: Eustat.

Jardueraren sendotasuna orokorra izan zen kategoría guztietan. Izan ere, kapital eraketa gordinaren hazkundera %2,8 izan zen eta barne eskariaren agregatuetatik bizitasun handienekoa izan zen, nahiz eta aurreko aldiarekin alderatuta moteltzeko joera handia izan erakutsi zuen. Osagai horretan, hedapena orokorra izan zen, bai ekipamendurako ondasunetan bai gainerako inbertsioetan. Beste aldetik, azken kontsumoko gastuak ere bilakaera ona erakutsi zuen 2019an zehar, osagai publikoari eta pribatuari esker. Kanpoko eskaerari dagokionez, EAEko BPGaren hazkunderari egindako ekarpena hutsala izan zen.

EAEko familien azken kontsumoko gastua %1,9 handitu zen 2019an batez beste, urte arteko tasan. Datu horrek hiru urteko moteltze bidea finkatzen du barneko eskarian pisu handiena duen osagaian. Gatazka politiko eta ekonomikoek ziurgabetasuneko giroa sortu zuten eta horrek zuhurtziazko portaera ekarri zuen EAEko kontsumitzaileengan. Erosteke erabakiak erraztu zituzten faktoreak finantzaketa baldintza onak, errenta eskuragarriaren igoera eta lan merkatuaren hobekuntza ingurunea izan ziren. Beste aldetik, administrazio publikoen gastuak urteko hazkunde dinamikoagoa erakutsi zuen, %2,1eko urteko batez besteko tasarekin. Oro har, azken kontsumoko gastuaren hazkunde tasa %1,9an kokatu zen.

Errenten adierazleen bilakaera
13. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Soldatapekoen ordainketa	0,8	2,5	3,0	3,2	4,3	---
Urtean adostutako soldata igoera	0,7	0,6	1,0	1,5	1,9	2,0
Enplegua	0,2	2,1	2,2	2,1	2,6	1,6
Pentsioen kopurua (*)	1,4	1,2	1,2	1,3	1,4	1,3
Batez besteko pentsioa (*)	1,8	2,0	2,0	2,0	2,7	4,9
PFEZren diru bilketa	2,9	5,9	4,1	6,0	5,4	5,7
Banku arteko int. tasa (urte 1erako euriborra)(**)	0,5	0,2	0,0	-0,1	-0,2	-0,2
KPI	0,2	-0,3	0,0	2,0	1,6	1,0

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (**) Hilabeteko batez bestekoekin osatutako urteko batez bestekoak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Familien gastuari buruzko adierazleek agregatu makroekonomikoaren bilakaera bera islatu zuten. Izan ere, hala lan errentek nola administrazio publikoetatik datozen transferentzia garbiek nabarmen handitu zituzten beren hazkunde tasak 2019an. Hitzartutako soldata igoerak, langile publikoen ordainsarien igoerak eta pentsioen birbalorazioak familien kontsumoaren igoeraren alde egin zuten. Beste aldetik, txikizkako merkataritzaren indizeek, Eustatek argitaratutako datuen arabera, hazkunde tasa positiboak izan zituzten 2019an. Hala eta guztiz ere, ondasun iraunkorren kontsumoari dagokionez, turismoen matrikulazioek %2,4ko jaitsiera nabarmena izan zuten. Konfiantza galeraren eragina eta ondasun mota horien eskari geroratua agortu izana dira adierazle horren beherakada azaltzen duten balizko zioak.

Kontsumitzaileek 2019an izan zuten konfiantzak narriadura profil bat deskribatu zuen, bereziki handia urteko bigarren seihilekoan. Laboral Kutxak egiten duen indizearen arabera, konfiantza indizearen urteko batez besteko balioa -2 izan zen 2019an, 2016tik izandako urteko erregistrorik txarrena baita. Datu globala ekonomia orokorraren eta lan merkatuaren bilakaerari buruzko konfiantzaren okerragotzearen emaitza da. Beste aldetik, Euskadiko kontsumitzaileek aurrezteko igurikimen positiboa agertu zuten. Zuhurtzia funtsezko elementua izan zen kontsumoko igurikimenetan.

Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera**14. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	2,3	3,3	3,3	3,1	2,7	1,9
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	0,7	2,1	1,8	2,1	1,6	2,1
IPI kontsumo ondasunak. EAE	0,0	3,1	1,4	5,4	5,5	2,5
IPI kontsumo ondasunak. Estatu	1,7	1,4	1,8	1,0	-0,7	1,6
Automobilen matrikulazioa	19,9	16,6	4,7	8,0	4,6	-2,4
Txikizkako merkataritzaren indizea	0,0	1,7	3,3	1,7	0,7	0,9

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera**15. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Kapital eraketa gordina (bolumenen indize kateatua)	-0,2	3,8	5,5	3,1	4,7	2,8
- Ekipamendurako ondasunak	3,3	7,3	8,6	3,5	3,7	2,3
- Gainontzeko inbertsioa	-1,9	2,0	3,8	2,9	5,2	3,0
IPI ekipamendurako ondasunak:	1,8	7,1	8,6	3,3	4,3	1,8
- IPI garraio materiala	0,8	3,0	20,3	6,5	3,9	0,8
- IPI makineria eta ekipamendua	0,8	7,0	2,2	0,1	4,7	1,0
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	-2,3	40,9	12,7	5,6	4,6	4,4
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	13,3	32,4	6,2	10,3	18,7	-12,7

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Inbertsioaren hazkundera moteldu egin zen aurreko urtearekin alderatuta, %2,8ko aldakuntza tasarekin, eta joera hori orokorra izan zen agregatuaren bi kategorietan. Hazkunderari lagundu zioten alderdiak enpresen finantzaketa kostu txikiak, enpresen ondare egoeraren hobekuntza eta barne eskariaren bilakaera ona izan ziren. 2019ko enpresa aurreikuspenek, Laboral Kutxak egindako enpresa konfiantzaren inkestan jasotakoek, EAEko enpresaburuen baikortasunaren apaltze txiki bat

islatu zuten aurreko urtearekin alderatuta. Narriadura hori are nabariagoa izan zen iazko bigarren sei hilekoan, kanpo ingurunearen okertzearekin eta ziurgabetasunaren gorakadarekin lotura izan zuena. Hala eta guztiz ere, oro har, enpresen egoera positiboa izan zen eta ekoizpen ahalmena zein enplegu kopurua handitzeko asmoei eutsi zitzaien. Kapitalaren eraketa gordinari buruzko beste adierazle batzuek ere, hala nola ekipamendurako ondasunen inportazioek, moteltze txiki bat izan zuten 2019an. Bereziki handia izan zen zama ibilgailuen matrikulazioaren aldagaiak jasandako narriadura, eta horrek agortasuneko zantzuak erakutsi zituen bilakaeran, urte askoan gorakada handiak izan ondoren.

Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn
16. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2014	2015	2016 (B)	2017 (A)	2018 (*)	2019 (*)	Milioi € 2019(*)
Erkidegoen arteko merkataritza							
Esportazioak	-6,2	4,9	-1,5	7,9	-2,2	15,0	16.277
Inportazioak	-1,3	10,9	0,2	7,7	0,5	2,0	15.799
Saldoa guztira (milioi €)	84	-673	-900	-939	-1.328	478	478
Erkidegoen barneko merkataritza							
Totala	13,2	-1,4	-3,4	8,8	3,4	7,5	12.289


(B) Behin-behineko datuak. (A) Aurrerapena (*) Aurreikuspena.

Iturria: C-interreg proiektua.

C-interreg datu basearen arabera, Euskadik Estatuko gainerako lurraldeekin (eskualdeen arteko merkataritza) eta hiru euskal lurraldeen artean (eskualde barruko merkataritza) dituen ondasunen merkataritza fluxuak (zerbitzurik gabekoak) aztertzea ahalbidetzen duena, ondasunen esportazioak Estatuko gainerako lurraldeetara %15,0 handitu ziren 2019an. Beste autonomia erkidego batzuetan egindako ondasun erosketek dagokionez, %2,0 egin zuten gora. Egindako esportazioen balioa inportazioena baino pixka bat handiagoa izan zen. Horiek horrela, merkataritza saldoa 478 milioi eurokoa izan zen, Euskadiren aldekoa, eta, beraz, bertan behera geratu da azken lau urteetan beste eskualde batzuekiko ondasunen fluxuan izan duen defizita. Eskualde barruko merkataritzari dagokionez, hazkunde tasa %7,5 izan zen.

Atzerriarekiko euskal merkataritzaren azterketan, kuota esportatzailea, hots, EAEk atzerrian egiten dituen salmentek munduko salmenta guztiekiko duten partaidetza neurtzen duena, murriztu egin zen. Hiru urtez jarraian hazkundeak lortu ondoren, merkataritza alorreko tentsioek eta hazkunde ekonomikoaren motelaldiak kalte egin zieten EAEko salmentei, eta haien merkatu kuota %0,159ra jaitsi zen; horrek merkatuak handitzeko egindako ahalegina galtzea ekarri zuen. Inportazioen bilakaera antzekoa izan zen, baina beherakada txikiagoa izan zen. Inbertsioaren eta kontsumoaren bilakaera positiboa izan da oraindik, nahiz eta tonua galdu duen 2018arekin alderatuta, eta, horri esker, erosketen merkatu kuota %0,121 izan da, 2017ko mailarekin bat datorrena. Edonola ere, egia bada ere bi agregatuen joera beheranzkoa izan zela, termino errealetan izandako aldakuntzak hutsalak izan ziren, baina 2007an lortutako maximoetatik are gehiago urruntzen dira.

EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko
14. irudia




Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta Eustat .

Eustatek argitaratutako datuen arabera, 2019an, atzerrira bidalitako ondasunen esportazio guztiek ia 25.397 milioi euroko balioa izan zuten, 2018an lortutako kopuru handienaren ondoren, inoiz eskuratu den bigarren erregistrorik onena baita. Urte arteko alderaketan, aldakuntza tasa pixka bat jaitsi zen (-%0,4). Nazioarteko merkataritzaren ezegonkortasunak eta merkataritza bazkide nagusietako baten ahultasunak eraginda, EAEko salmentak tasa positiboen eta negatiboen artean


aldatu ziren urtean zehar, joera argirik gabe. Uzkuadura hori are handiagoa zatekeen prezioen bilakaeragatik izan ez balitz, paper garrantzitsua jokatu baitzuen. Hain zuzen ere, esportazio guztien prezioak %1,9 igo ziren, eurotan baloratutako salmenten uzkuaturaren gainetik; tonatan egindako salmentak, berriz, %7,9 uzkurtu ziren.

**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan Urte arteko aldakuntza tasak (I)
15. irudia**


Esportazioak guztira




Inportazioak guztira



Energiaren esportazioak



Energiaren inportazioak




Iturria: Eustat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.

Inportazioei dagokienez, EAEko ekonomiaren egoera oraindik osasuntsuak, batez ere barne eskariarenak, erosketak bultzatu zituen, 20.121 milioi euro baino gehiago guztira, eta, esportazioak bezala, serie historiko osoaren bigarren erregistro onena izan zen, hain zuzen ere, 2018an lortutako balioen atzetik. Urte arteko alderaketan, erosketek %0,8 egin zuten behera, tonen igoeraren %0,4 baino balio txikiagoa dena, eta prezioak %2,3 igo ziren.


Energia alorreko produktuen esportazioek askoz ere uzkurtze nabarmenagoa eskuratu zuten. Prezioek %3,6ko igoera positiboa izan zuten, eta energiaren salmentak tonatan %19,6 eta eurotan, berriz, %21,2 jaitsi ziren. Petronorrek 2019an instalazioak prest jartzeko egin zituen bi geldialdi teknikoek beherakada horren zati bat azaltzen dute. Energiaren inportazioak eurotan murriztu ziren, baina tonatan tasa positiboak lortu zituzten. Datu horiek Euskadiren mendekotasun energetiko handia jartzen dute mahai gainean; izan ere, erregai mineralen esportatzen diren 2.022 milioi euroen aldean, epigrafe horren atzerriko erosketa salmenta baino 2,7 aldiz handiagoa izan zen. Hain zuzen ere, 2019an ia 5.409 milioi euroen truke erosi ziren produktu energetikoak. Horregatik guztiatik, 3.386 milioi euroko defizit komertziala sortu zen, 2018an erregistratutakoa baino 424 milioi handiagoa.

Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)
16. irudia

Esportazio ez energetikoak




Inportazio ez energetikoak



Iturria: Eustat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.

Energiaz bestelako esportazioen ibilbidea zertxobait mesedegarriagoa izan zen. Izan ere, eurotan neurtuta %2,0ko hazkundea jaso zuten, nahiz eta tonatan aldaketa negatiboa izan zen. Tasa horien ondorioz, esportazio ez-energetikoen orain arteko mailarik handiena eskuratu dute, 23.374 milioi euro baino gehiago salduta urte osoan. Gehikuntza hori are handiagoa izan zitekeen metal arruntek eta horien manufakturek izandako beherakadagatik izan ez balitz (-%5,5), saldutako guztiaren %21,6 bereganatzen baitu atal horrek. Alde positiboan daude ekipamendurako ondasunak, garraiorako materialak zein makina eta aparatuek igoera positiboak lortu zituztelako. Hala, ekipo ondasunek 12.514 milioi euro inguru bildu zituzten, aurrekaririk gabeko maila delarik, eta horren bultzatzaile nagusia garraio materialaren salmenta izan zen. Zehazkiago, ibilgailuen eta trenbideetarako materialaren esportazioei zor zitzaie, 2018an 500 milioi euro fakturatzetik 2019an 1.302 milioi fakturatzera igaro baitzen, eta itsasontzien eta beste tresna flotatzaile batzuen salmentari, zenbateko txikiagoa izan arren, aparteko dinamismoa erakutsi baitzuen (%150,8). Bi atalen bilakaera garrantzitsuak autoen salmenta txikiagoa konpentsatu zuen, epe berean %4,7 uzkuritu baitzen. Hala eta guztiz ere, ibilgailu automobilaren esportazioa 5.900 milioi eurora hurbildu zen, orain arteko zenbatekorik handienetakoa baita.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak arantzel sekzioka. Ehunekoak
17. irudia



Iturria: Eustat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.

Gainerako taldeetan, joera ez zen hain ona izan. Nekazaritzako produktuak izan ezik, horien salmentak %6,9 igo baitziren, gainontzeko epigrafeek behera egin zuten. Produktu kimikoak %2,5 jaitsi ziren, paperaren sektorea %1,3 uzkuritu zen eta plastikoaren salmenta %0,5 murriztu zen. Urte arteko bilakaera txarra izan zen arren, talde horietako guztietako esportazioak, eurotan, orain arteko altuenetakoak izan ziren.

EAEk Europar Batasunera bidalitako esportazioak. 2019
17. taula

Adarrak	Kopurua. Mila euro	Urte arteko aldakuntza tasa	Egitura
Nekazaritza produktuak	731.405	9,9	4,2
Produktu mineralak	1.485.213	-9,4	8,6
Produktu kimikoak	393.875	-1,4	2,3
Plastiko eta kautxua	1.357.680	-0,2	7,8
Metalak eta bere manufakturak	3.974.372	-5,3	22,9
Makinak eta aparatuak	2.470.036	0,1	14,2
Garraio materiala	5.727.918	17,7	33,0
Papera	413.479	-0,4	2,4
Bestelako manufakturak	718.230	9,0	4,1
Saillatu gabeak	68.215	48,2	0,4
Guztira	17.340.423	3,8	100,0


Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Eremu geografikoen arabera, EB-28k EAEko produktuen merkatu nagusia izaten jarraitu zuen eta esportatutako produktu guztien %68,3 bereganatu zuen. Ehuneko hori ez zen 2006az geroztik lortzen, kontinente zaharrera egindako esportazioek saldutakoaren %70,0 bildu baitzuten urte hartan. Merkataritza bazkide nagusiek, batez ere urtearen azken txanpan, erakutsitako ahultasuna gorabehera, EAEko produktuek %3,8 egin zuten gora EB-28ra egindako salmentetan. Esportatutako produktuei dagokienez, garraiorako materiala izan zen talde nagusia, eta gehikuntza tasa positiboak lortu zituen bakarrenetarikoa. Zehazkiago adierazita, ibilgailu automobileren saldutakoaren %27,1 bereganatu zuten, eta %3,8 hazi ziren. Era berean, trenbideetako ibilgailuen salmenta nabarmendu zen eta %309,9 igo ziren. Epigrafe horretatik, ia %75,0 merkatu britainiarrean joan zen. Makinak eta aparatuak izan ziren hazkunde positiboak lortu zituzten beste talde handiak, nahiz eta kasu honetan


hazkunde tasa apalagoa izan zen. Zehatz-mehatz, makina eta aparatu elektrikoen salmenta %7,6 hazi zen eta makineria mekanikoaren salmenta, berriz, %2,3. Horren guztiaren ondorioz, makina eta aparatuen multzoa %0,1 hazi zen. Gainerako talde nagusien artean, nekazaritzako produktuek bakarrik handitu zituzten salmentak.

Esportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura 18. irudia

Frantzia



Alemania



Iturria: Eustat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.

2019an, Frantziak lidergoari eutsi zion, EAEko produktuen 3.916 milioi euro baino gehiago erosit, aurreko urtean baino %0,8 gehiago. Alemaniako ekonomiak urtean zehar jasandako geldotzeak Frantziaren nagusitasuna erraztu zuen.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eragileek Frantziako merkaturan saldutako produktuak dibertsifikatzea lortu dute azken urteotan, eta, beraz, epigrafe jakin baten bilakaera txarrak ez du erabat baldintzatzen esportazioen emaitza osoa. Izan ere, talde nagusiaren beherakadak, hots, metal arruntek eta haien manufaktura (-%7,8), ez zuen beherantz eraman Frantziako herrialdean eginiko salmenten balantzea. Izan ere, 2019an, Frantziara bideratutako esportazioen buru produktu energetikoen salmenta egon zen, 580 milioi eurotik gora saldu baitzen, aurrekaririk gabeko maila bat delarik, saldutako EAEko energia guztiaren %27,5 biltzen zuena. Ondoren, makinaren eta tresnen

esportazioak kokatu ziren, %14,4ko hazkundera jasota, bereziki makina mekanikoen salmentak bultzatuta.

Alemaniarako merkatuak, frantsesak ez bezala, salmenten kontzentrazio handiagoa erakusten du epigrafe gutxi batzuetan, urtez urte pisua irabazten joan direnak, gainerakoek kaltetan. Haietako behinena garraio materiala da, esportatutako guztiaren ia %52,0 horretara bideratzen baita, eta, beraz, haren bilakaera da herrialderako salmenten baldintzatzaile nagusia. 2018an, automobilaren sektoreak zailtasunak izan zituen ingurumen estandar berriak ezartzeko, baina, horren ondoren, 2019an jarduera eta salmentak berreskuratu ziren, 1.944 milioi eurotik gorako kopuruak eskuratu arte, Alemaniari orain arte saldutako ibilgailu automobilen zenbatekorik handiena baita, eta 2018an erregistratutako esportazioak baino %10,8 handiagoa. Izan ere, Euskadik esportatzen dituen auto guztien %33,1 Alemanian saldu ziren. Sektore horren bilakaera onari esker, metal arruntak eta horien enbriaturak (-%17,9) eta makinak eta aparatuek (-%3,0) gutxiago saltzeagatik izandako galerak konpentsatu ahal izan ziren. Hala eta guztiz ere, emaitza oso estua izan zen, eta kontua da Alemaniara egindako esportazioen balioa %0,1 bakarrik hazi zela, azken sei urteetako emaitzarik txikiena baita.

Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena. 2019
18. taula


Esportazioak	Guztiarekiko %	Inportazioak	Guztiarekiko %
Frantzia	15,4	Alemania	15,0
Alemania	15,1	Frantzia	8,8
Erresuma Batuak	9,2	Txina	6,6
AEB	7,0	Errusia	5,7
Belgika	4,8	Italia	4,8
Italia	4,6	AEB	4,7
Portugal	4,0	Mexico	3,9
Herbehereak	3,8	Irlanda	3,7
Polonia	2,3	Norvegia	3,3
Txina	2,0	Erresuma Batuak	3,1

Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.


Erresuma Batura bidalitako esportazioak izan ziren dinamikoenak, eta AEBei EAEko produktuen hartzaile gisa zuten hirugarren lekua kendu zieten. Zehazkiago adierazita, EAEko salmentak %34,2 hazi ziren merkatu britainiarrean, eta bertan 2.325 milioi euro inguru saldu ziren guztira, beste errekor bat ezarriz. Honekin, hiru urtez jarraian maximoak lortu dira. Igoera nabarmen hori, batez ere, trenbideetarako materialaren salmentari zor zaio; izan ere, produktu horien esportazioak %3.053,0 handitu ziren, ezohiko emaitza eta ziur aski puntuala delarik. Izan ere, 699 milioi euro saldu ziren trenbideetarako ibilgailuetan, orain arte batez beste saldu ziren 25 milioietatik oso urrun. Orobat, ibilgailu automobiletan saldu ziren 534 milioi euro baino gehiago saldu ziren trenbideetako atalean, hain zuzen ere. Hazkunde indartsu horri esker, garraio-materialak Erresuma Batura esportatutako material guztiaren %53,6 bereganatu zuen, eta haren hazkundera %106,5era iritsi zen. Aitzitik, gainerako epigrafe ia guztiek ahultasuna erakutsi zuten. Produktu mineralak %38,4 uzkuritu ziren, makinak eta aparatuak %13,6, eta metal arruntak eta horien enfabrikaturak %13,0.

Esportazioak guztira. AEB eta Erresuma Batura. Egitura 19. irudia

AEB



Erresuma Batura



Iturria: Eustat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.

Esportazioek Europako herrialde nagusietan izan duten ibilbidetik aldendu zen AEBetan egindako salmenten beherakada handia (-%15,5). Makina eta aparatuen salmentak pisua hartu zuen berriro ere herrialdean saltzen diren produktuen egituran. 2019an, produktu multzo horrek AEBetara

bidalitako esportazio guztien %31,0 metatu zuen, eta, oro har, %14,1eko hazkundera izan zuen. Hamaika urtean hirukoiztu egin du merkatu horretan duen pisua. Zoritzarrez, emaitza on horiek ez ziren nahikoak izan gainerako epigrafeen bilakaera txarra konpentsatzeko. Izan ere, AEBetako merkatuan, makinaren eta aparatuen esportazioak alde batera utzita, merkataritza harremanen zati handi bat erregai mineralen esportazioan oinarritzen dira; esportatutako guztiaren %28,0 dira, eta %38,9ko jaitziera izan zuten. Halaber, metal arruntek eta horien manufaktura (-%15,6) eta garraio materialek (-%29,0) ere beherakada handiak izan zituzten.

Italiako ekonomiak 2019an erakutsi zuen ahuleziak, batez ere kontsumo pribatuarenak eta, neurri txikiagoan, inbertsioarenak, EAEko produktuen salmenta nabarmen ahuldu zuen. Izan ere, EAEko esportazioak Italian %5,9 uzkurdu ziren. Beherakada horren arrazoia izan zen epigrafe nagusiek, hau da, ibilgailu automobilen salmentak eta metal arruntak eta haien manufaktura esportazioak, bi zenbakiak gainditu zituzten uzkurdura eskuratu zutelako. Makinen eta aparatuen esportazioek bakarrik egin zuten gora (%8,4), baina igoera hori ez zen nahikoa izan gainerako erorikoak konpentsatzeko.

EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga
19. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2014	2015	2016	2017	2018	2019(*)	2019(*)
Esportazioak	9,1	-2,9	-1,6	11,6	7,0	-0,4	25.396,90
ELGE	9,0	-0,7	1,7	11,9	8,0	-0,2	20.949,5
Europar Batasuna 28	12,3	-1,6	1,6	10,9	7,9	3,8	17.340,4
Alemania	4,8	3,2	4,7	13,0	1,2	0,1	3.840,0
Frantzia	1,3	3,2	-0,4	4,0	5,0	0,8	3.916,8
Erresuma Batua	14,0	2,3	-7,7	16,1	14,5	34,2	2.324,5
Italia	9,9	13,0	-9,2	6,0	12,8	-5,9	1.177,8
AEB	15,0	0,6	-10,5	18,4	16,5	-15,5	1.789,2
Japonian	-60,4	90,8	191,9	-29,9	-13,0	11,9	125,0
Errusia	-3,6	-12,3	13,4	23,3	6,4	16,7	291,5
Txina	28,5	-30,5	18,9	2,3	-12,7	5,7	496,4


(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Merkatu tradizionaletako salmenten bilakaera alde batera utzita, EAEko eragileek beren zenbakiak hobetu zituzten gorabidean dauden hainbat merkatu nagusitan. Izan ere, Txinara ia 500 milioi euro balio zuten EAEko produktuak bideratu ziren, hau da, 2018an baino %5,7 gehiago, metal arrunten eta haien manufakturen salmentari esker, eta baita makina eta aparatu elektriko zein mekanikoei esker ere. Errusia, bestalde, merkatu dinamikoena izan zen eta EAEko esportazioak %16,6 hazi ziren herrialde horretan. Kasu honetan, garraio materialaren eta makina eta tresnen salmenta izan zen hazkunde horren bultzatzailea.


Lehenago ere adierazi den bezala, atzerritik etorritako ondasunen inportazioak %0,8 jaitsi ziren, hots, esportazioak baino zertxobait gehiago. Beherakada horrek gorabidean dauden herrialdeei eragin zien bereziki (-%6,5), herrialde garatuetan egindako erosketak %2,1 hazi baitziren. Bilakaera hain desberdin hori oso baldintzatuta egon zen arlo desberdinetako inportazioen osarearekin. Gorabidean dauden herrialdeetan, inportazioak ia ehuneko berdinetan banatzen dira energetikoen (%49,7) eta ez-energetikoen (%50,3) artean, eta azken horien artean erositako produktuen dibertsifikazio handiagoa dago. Herrialde garatuetan, ordea, energia erosketen pisua %16,2ra murrizten da, eta inportazio talde nagusiak ekipamendurako ondasunak eta metal arruntak eta horien manufakturak dira. Horregatik, epigrafe energetikoaren bilakaerak (-%5,6) nabarmen baldintzatzen du garapen bidean dauden herrialdeen inportazioen bilakaera eta eragin txikiagoa du ekonomia aurreratuen artean.

Inportazioak guztira Europar Batasuna 28 eta Erresuma Batua. Talde nagusiak. Egitura 20. irudia

Europar Batasuna 28



Erresuma Batua




Iturria: Eustat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.


Energiaz bestelako produktuen inportazioa, berriz, %1,1 hazi zen. Gehikuntza hori makinaren eta aparatuen (bereziki elektrikoak), paperaren (%1,1) eta produktu kimikoen (%0,8) erosketen bilakaera onean oinarritu zen, gainerako epigrafeek erosketak murriztu zituzten bitartean. Epigrafe kaltetuenen artean, metal arruntak eta horien manufakturak daude (-%3,6); izan ere, burdinaren, altzairuaren eta aluminioaren inportazioak izan ezik, gainerako metalen erosketak izugarri jaitsi zen. Hain zuzen ere, metal arrunten eta haien manufakturen erosketaren beherakada handia izan zen Europar Batasuneko 28 herrialdeen arteko inportazioen datu etsigarrien baldintzatzaile nagusietako bat, inportazioak %0,9 soilik hazi baitziren. Izan ere, kontinente zaharretik inportatutako guztizkoaren %25,1 epigrafe horri dagokio, eta %35,0tik gora dago portzentajea Italian, Erresuma Batuan eta Frantzian, besteak beste.

Inportazioak guztira. Frantzia eta Alemania. Egitura
21. irudia

Frantzia



Alemania



Iturria: Eustat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.

Zehatzago adierazita, Alemaniak EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia izaten jarraitu zuen eta atzerrian egindako erosketak guztien %15,0 bildu zituen, bai makina eta aparatu mekanikoetan bai metal arruntetan eta horien manufakturan pisu handia izan duelarik. Kapitulu horietan guztizkoaren ia %64,0 biltzen da. Zehazkiago, makinaren eta aparatuen inportazioa Alemaniako merkatuan erositako guztiaren %43,6 izan zen 2019an, 2008an baino askoz handiagoa (%23,1), eta 1.313 milioi euroko errekorra izan zuen, 2018an baino %7,6 gehiago. Metal arruntei eta horien

manufakturei dagokienez, oro har bilakaera txarra izan zuten arren, Alemaniako merkatutik inportazioak %5,3 hazi ziren. Izan ere, Europako herrialde nagusien artetik, EAEko merkatuan metal arrunten salmenta handitzea lortu zuen herrialde bakarra izan zen. Guztira, Alemaniako merkatutik etorritako inportazioak %3,2 hazi ziren

Frantzia EAEko bigarren hornitzaile nagusia da, merkatu kuotaren %8,8 bereganatuta. Herrialde horretatik inportatutako produktu nagusiak metal arruntak eta haien manufakturak, eta makineria izan ziren. Bi epigrafe horiek beherakada garrantzitsuak erregistratu zituzten (-%4,4 eta -%8,1, hurrenez hurren), gainerako talde nagusiek bezala. Izan ere, 2009. urtetik lehen aldiz, epigrafe guztiak, sailkatu gabeak barne, erori egin ziren. Horren ondorioz, Frantziatik etorritako erosketak %7,5 gutxitu ziren. Antzeko egoera pairatu zuen Italiako merkatuak ere, non talde guztiek, nekazaritza produktuek izan ezik, 2018an baino diru gutxiago bildu baitzuten. Zehazki, Italiatik etorritako inportazioak %3,7 murriztu ziren.

Erresuma Batuan egindako erosketen beherakada handia (-%16,1) metal arrunten eta makina eta aparatuen inportazioen beherakadak ez ezik, energia alorreko produktuen beherakadak ere baldintzatu zuen. 2014. urtean, dolarraren balio irabazi handiak eta gatazka geopolitikoek produktu energetikoen erosketak AEBetatik eta Errusiatik Erresuma Batura lekualdatzea ekarri zuten berekin, eta hori EAEko eragileentzako energia hornitzaile nagusia bihurtu zen, eta 2016ra arte mantendu zuen posizio hori. Hurrengo urteetan, dolarraren balio galerak eta Brexitaren ondorioen aurrean sortu zen ziurgabetasunak lehengo merkatu energetikoetara itzultzea ekarri zuen, baita merkatu britainiarrean erosketak nabarmen murriztea ere. Joera hori areagotu egin zen 2019an. Zehazki, 2019an, merkatu britainiarrean erositako zenbateko energetikoa 139,5 milioi eurokoa izan zen, 2015ean eskuratutako ia 1.200 milioietatik oso urrun.

Hala, Errusiak energia hornitzaile nagusiaren papera berreskuratu zuen berriro 2019an. Errusiako merkatuan gastatutako ia 1.143 milioi euroetatik 1.002 milioi energia erosteko erabili ziren. Kopuru hori 2018an erositakoa baino bost aldiz handiagoa da eta inportazioak % 196,2 igotzea ekarri zuen berekin. AEBek ere beren merkatuaren zati bat berreskuratu zuten eta produktu energetikoak saldu zizkieten Euskadiri, 500 milioi eurotik gorako balioan, 2018an baino bost aldiz gehiago. Bi igoera horiek Mexikok eta Libiak egindako salmenta txikiagoaren kontura izan ziren. Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako inportazioak %86,6 igo ziren.

ELGEkoak ez diren herrialdeetatik, erregai mineralez gain, metal arruntak inportatu ziren bereziki, batez ere burdinarekin eta altzairuarekin lotutakoak. Halaber, makineria mekanikoa zein elektrikoa

ere inportatu zen. Txina, gaur egun, EAEko hirugarren hornitzailea da eta era horretako produktuak saltzeagatik nabarmendu zen. Izan ere, metal arrunten eta horien manufakturen inportazioak eta Txinatik ekarritako makinak nabarmen hazi ziren urte horretan (%6,2 eta %36,3, hurrenez hurren). Aitzitik, garraio materialaren erosketak, batez ere ibilgailu automobilenak, historikoki bilakaera ona izan duen epigrafea baita, %1,5 gutxitu ziren. Aurrekoaren ondorioz, Txinatik etorritako inportazioak %16,3 hazi ziren.

EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria
20. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2014	2015	2016	2017	2018	2019(*)	2019(*)
Inportazioak	7,4	-1,8	-7,3	19,9	9,5	-0,8	20.121,5
ELGE	11,9	4,0	-6,9	17,1	5,3	2,1	13.696,7
Europar Batasuna 28	25,5	7,8	-7,9	13,1	0,4	0,9	10.598,9
Alemania	5,2	19,4	9,9	6,7	5,1	3,2	3.012,6
Frantzia	-2,2	11,1	-8,9	12,9	5,2	-7,5	1.769,8
Erresuma Batua	187,8	14,8	-52,5	60,6	-42,1	-16,1	633,7
Italia	2,8	2,2	3,1	8,2	7,7	-3,7	958,1
AEB	-52,5	3,1	-4,6	19,5	14,0	86,6	941,1
Japonian	-1,0	2,1	63,5	6,9	-8,9	-1,0	201,3
Errusia	-36,0	-47,2	33,7	-44,0	-38,5	196,2	1.143,0
Txina	15,7	25,0	-11,1	0,5	9,9	16,3	1.336,4
Brasil	-0,1	47,1	42,1	98,3	126,1	-69,6	193,6


(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Laburbilduz, hala esportazioak nola inportazioak 2018an kontabiliza ziren inoizko daturik altuenetatik oso hurbil mantendu ziren. Orobat, esportazioak 25.000 milioi eurotik gora sendotu ziren bitartean, inportazioak 20.000 milioitik gora izatera iritsi ziren. Salerosketa horien ondorioz, merkataritza saldoa Euskadiren aldekoa izan zen 5.275 milioi euro baino gehiagotan, 2018an lortutakoaren antzeko zifra bat delarik, baina zertxobait txikiagoa. Aurreko urteetan bezala, saldo energetikoa negatiboa izan zen. Hain zuzen ere, 3.386 milioi eurora iritsi zen, azken sei urteetako handiena delarik. Mendekotasun energetiko handiak azaltzen du hazkunde berri hori, eta, beraz, ez da harrizkoa gorabidean diren herrialdeekiko trukeak defizitarioak izatea, eta, aldiz, ekonomia


aurreratuekiko superabitarioak. Esportazio ez-energetikoen erregistratutako maximo berriari esker, haien saldoa ere errekorra izan zen. Zehazki, 8.661 milioi euro baino gehiago, 2018an lortutakoa baino %3,6 gehiago.

EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak
22. irudia


Esportazioak. Milioi euro




Inportazioak. Milioi euro



Saldoak. Milioi euro



Ondasun eta zerbitzuen irekiera maila



Iturria: Eustat EAEko datuentzat eta Datacomex eta Eurostat. 2019ko datuak behin-behinekoak dira.

EAEkoa oso ekonomia irekia da eta munduarekin oso konektatuta dago, bere merkataritza bazkide nagusiekin aldeko jarrera mantentzen duena. Hala baieztatu du estaldura-tasak, 2019an %126,2koa izan baitzen, 2018an jasotako tasa baino sei hamarren handiagoa. Erresuma Batuen (%366,8), Frantziaren (%221,3) eta AEBen (%190,1) aurrean zuen egoera nabarmendu zuen, baina bazkide komertzial nagusi guztiekin lortu zuen egoera positiboa. Halaber, irekiera maila %131,5ean kokatu zen, balio garrantzitsua dena, baina 2018an lortutako erregistroa baino 2,4 puntu txikiagoa. Joera motelago hori orokorra izan zen, nazioarteko merkataritzaren ezegonkortasunaren ondorioz. Alemaniaren irekiera maila %87,8koa izan zen (aurreko erregistrotik bederatzi hamarren gutxiago), Espainiarena %66,8koa (zazpi hamarren gutxiago) eta Italiarena, berriz, %60,1koa (lau hamarren gutxiago). Edonola ere, horiek guztiak Euskadiren irekiera mailaren azpitik daude. Herbehereek soilik gainditzen dute EAEko tasa, %154,8ko irekiera mailarekin, 2018an lortutako erregistroa baino 2,4 puntu txikiagoa.

2.4 Atzerriko inbertsioa EAEn


Atzerriko inbertsioek nabarmen egin dute behera EAEn azken urteotan. Izan ere, 2017an 2.691 milioi euro etorri ziren eta 2018an, berriz, 917 milioi euro, hurrengo urtean berriro behera egiteko. Zehazki, Euskadira bideratutako atzerriko inbertsioa 2019an 227,8 milioi eurora murriztu zen, 2018an erregistratutakoa baino %75,1 txikiagoa eta 2010etik krisi ekonomiko betean sartuta, izandako daturik txarrena.

EAEn kanpoko inbertsioak izan duen beherakada nabarmena hainbat faktorek eragin dute. Alde batetik, 2017an Gamesaren eta Siemens Wind Powerren arteko bat egitea gauzatu zen, eta, horren ondorioz, Alemaniako multinazionalak konpainiaren akzioen %59,0 edukitzera pasatu zen. Horrela, energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen horniduran aritzen den sektore alemaniarrek 1.905 milioi euro eman zizkion atzerriko inbertsio osoari aldi horretan, eta urte hartako balantzea puntualki puztu zuen, hurrengo ekitaldia beherantz baldintzatuz. 2019an, atzerriko inbertsioak beheranzko dinamika luzatu zuen.

Beste aldetik, 2018ko inbertsioen banaketari dagokionez, zatirik handiena, guztiaren erdia baino gehiago, eraikuntza aeronautikoaren eta espazialaren sektorera eta haren makineriara bideratu zen, 537,4 milioi eurekin. Halaber, edarien fabrikazioak 156,1 milioi erakarri zituen. Bi epigrafe horien artean, inbertitutako guztiaren %75,0 metatu zen. Maila txikiagoan kokatu ziren finantza zerbitzuak eta eraikinen eraikuntza, diru kopuru apalagoekin jada. Segmentu horiek desagertu egin ziren

atzerriko inbertsioaren helburuen artean 2019an. Iazko liderrak handizkako merkataritza eta merkataritzaren bitartekariak, ibilgailu motordunak izan ezik, metalezko produktuen fabrikazioa (makinak izan ezik) eta higiezin jarduerak izan ziren, hurrenez hurren %16,9, %14,9 eta %12,7 hazi zirela. Aipatutako horiek diru gehien bildu zuten jarduerak izan arren, zenbaki absolutuetan 100,7 milioi euro baino ez zituzten pilatu. Gainerakoa kopuru txikitik banatu zen hainbat sektoreen artean.

Atzerriko inbertsioa ez ETVE (atzerriko baloreak edukitzeko entitateak). Milioi euro
23. irudia



Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. DataInvest.

Herrialdeka, 2019an EAEn gehien inbertitu zuena Erresuma Batua izan zen, 67 milioi euro baino gehixeagorekin, EAEko ekonomiak jasotako guztiaren %29,5 bildu baitzuen. Ondoren, Frantziaren eta AEBen inbertsioek 32 milioi euro bana utzi zituzten Euskadin, eta Herbehereetako enpresek 29,7 milioi euro inbertitu zituzten, Txinaren mailaren zertxobait gainetik. Oro har, zifra txikiak dira, behin 2018ko bi foku inbertitzaile handi desagertzen direnean: Mexiko edo Luxenburgo.

Estatu mailan, Espainiak 22.376,6 milioi euro lortu zituen 2019an atzerriko inbertsio gordinetan, 2019an baino %55,8 gutxiago, baina 2008-2019 aldiaren erregistratutako 24.000 milioien batez bestekoaren ildotik. Erkidegoen araberrako sailkapenean, Euskadi zortzigarren postura jaitsi da.

2.5 BPGtik harantz

BPGa bizi kalitatearekin lotura duten beste aldagai batzuekin konbinatzen duten adierazleen artean, nabarmentzekoa da giza garapenaren indizea (GGI), Garapenerako Nazio Batuen Programak (PNUD) garatutakoa. Bere azken txostenak, 2018ari buruzko datuekin, 189 herrialdetako mundu sailkapena ezartzen du, bizi baldintzen arabera ordenatuta. Azterlanak GGI bat esleitzen dio bakoitzari (0tik 1era bitarteko eskalan), honako hauen arabera: jaiotzako bizi itxaropena, eskola adinean dauden haurrek espero dituzten eskolatze urteak, 25 urte edo gehiagoko helduen batez besteko eskolatze urteak eta per capita errenta nazional gordina.

Indize horretan oinarrituta, Euskadi planetako ekonomia garatuenen artean kokatzen da. Hain zuzen ere, Eustatek egindako kalkuluaren arabera, 12. postuan dago eta hobekuntza nabarmena lortu du 2010ean erregistratutako mailekin alderatuta. Alderaketa aurreko urtearekin (2017) egiten bada, GGIlaren lau osagaietatik hiruk hobera egiten dute: bizi itxaropenak, eskolatzearen batez besteko urteak eta errenta nazional gordinak. Aitzitik, espero diren eskolatze urteek 5 ehuneneko galdu dituzte.


Giza garapenaren indizea
21. taula

Postua		%	Postua		%
1	Norvegia	0,954	11	Danimarka	0,930
2	Suitza	0,946	12	Euskadi	0,926
3	Irlanda	0,942	13	Finlandia	0,925
4	Alemania	0,939	14	Kanada	0,922
5	Hong Kong, Txina (RAE)	0,939	15	Zeelanda Berria	0,921
6	Australia	0,938	16	Erresuma Batua	0,920
7	Islandia	0,938	17	AEB	0,920
8	Suedia	0,937	18	Belgika	0,919
9	Singapur	0,935	19	Liechtenstein	0,917
10	Herbehereak	0,933	20	Japonia	0,915

Iturria: Nazio Batuen Garapen Egitaraua (NBGE). 2019ko Giza garapenaren txostena eta Eustat. Gizarte-adierazleak. GGI18. Euskadiren datuak behin-behinekoak dira.

Aurreko indizearen osagarri gisa, PNUDEk beste adierazle bat garatzen du, BPGaren hazkundeak hertsiki eskatzen duenetik harago begiratzen saiatzen dena, kasu honetan arreta genero desberdineko pertsonen artean dagoen desberdintasunean jarriz. Genero berdintasunaren adierazle hori (GBI) kalkulatzeko orduan, hiru dimentsio hartzen dira kontuan: ugalketa osasuna, ahalduntzea eta egoera ekonomikoa. Azken neurri hori lan merkatuan parte hartzearen bidez kalkulatzen da.


Genero berdintasunaren indizea dimentsioen arabera. 2017
24. irudia



Iturria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea.

Eustatek EAerako kalkulatu du GBI hori, eta datu berrienak (2017) beste hobekuntza bat erakusten du. Indize hori adierazle sintetiko bat da, eta eskala adimentsional batean, non 1 zenbakiak desberdintasun erabatekoa eta 100ek berdintasun erabatekoa seinatzen duten, laburbiltzen ditu gizonen eta emakumeen artean oraindik dauden berdintasunik ezak. Osaeran 31 adierazle daude, sei dimentsiotan hierarkikoki egituratuta, eta 14 azpidimentsiotan banatuta. 2010 eta 2017 artean, lau neurketa egin dira, eta Euskadiko GBlaren balioaren ondoz ondoko hobekuntzak islatu dira: 2010eko 68,8 puntutik 2017ko 71,1 puntura.

Genero berdintasunaren indizea herrialdeka. 2017
25. irudia



Iturria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea.


2017an, dimentsio guztiek, denboraren arloak izan ezik, hobera egin zuten. Osasunaren dimentsioa (92,4) eta diruarena (83,7) izan ziren berdintasunera gehien hurbildu zirenak, eta boterea (58,0), zehazkiago botere ekonomikoa (41,3), beste muturrean kokatu zen. Europa mailan, Suedia (83,6) eta Danimarka (77,5) nabarmentzen dira, biak ala biak dimentsio guztietan EAE baino maila altuagoan baitaude, EAE bederatzigarren postuan baitago. 28 kidez osatutako Europar Batasunarekin alderatuta, EAEk puntuazio hobea lortu zuen dimentsio guztietan, eta gehieneko

aldea 6,7 puntukoa izan zen denboran. Espainiari dagokionez, Euskadi aurretik jarri zen osasunean, diruan eta denboran; Espainiak, berriz, Euskadi gainditu zuen enpleguan, ezagutzan eta boterean.

BPGaren zenbaki handietan ezkututzen den beste alderdi esanguratsu bat pobrezia eta bertan erortzeko arriskua da. Horri buruz Euskadin iaz egindako inkestak erakusten du, funtsean eta termino estatistiko hutsetan, egonkortze dinamika bat dagoela. Euskadik, %5,1eko tasarekin, Europako batez bestekoaren (%6,0) azpitik jarraitzen du. PGDI benetako pobreziaren adierazle sozialak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak neurtuak, European gero eta oparoagoa eta aurrerratuagoa den gizarte baten itxaropenak islatzen ditu.

2018an, sendotu egin da pobrezia arriskuaren eta gizarte bazterketaren AROPE adierazle orokorrean 2014 eta 2016 artean ikusitako murrizketa. Aldi horretan, adierazlea 2014an lortutako %22,7ko maximotik 2016ko %20,6ra murriztu zen. Proporzio hori mantendu egin da 2018an, %20,7rekin. Datu horrek EAE Belgikaren edo Hungariaren antzeko mailan kokatzen du, baina arlo horretan aurreratuen dauden herrialdeetatik urrun.


Pobreziaren edo bazterketa arriskuan dagoen biztanleriaren tasa. 2018
26. irudia



Iturria: Eurostat Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta (PGEI). 2018

Halaber, Europan desberdintasun maila txikiena duten herrialdeen artean jarraitu zuen EAEk 2018an. Euskadiko Gini koefizientea 2018an, eskuragarri dagoen azken datua hori baita, Europar Batasuna 28k erregistratutako balioa baino lau puntu beherago kokatu zen (26,7 eta 30,9) eta 3,7 puntu beherago euroguneko erregistroarena baino. Belgika eta Finlandia daude buruan sailkapen horretan.

Desberdintasuneko adierazleak. 2018.
27. irudia




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. PGEI eta Eurostat.

Lan bat edukitzea, kasu gehienetan, baldintza beharrezkoa da ongizate maila ona lortzeko. Baina ez da baldintza nahikoa. Horregatik, garrantzitsua da gaur egun lana dutenen pobrezia tasari ere erreparatzea, hau da, soldatapeko edo norberaren konturako gisa lanean ari diren 18 urtetik gorako pertsonen ehunekoari, haien errenta erabilgarria pobrezia-arriskuaren atalasearen azpitik badago (biztanle bakoitzeko batez besteko errenta eskuragarriaren %60,0).

2008an, Euskadirako erregistroak dauden lehen urtean, lan pobrezia tasa %5,4 izan zen. Finantza alorreko krisiak eta 2012ko lan erreformak, lehiakortasuna berreskuratzeko bigarren atzeraldi betean onartutakoak, enplegua sortzea bultzatu zuen, baina lan prekarietatea ere areagotu zuen, eta horrek lana duten pertsonen artean pobrezia areagotzea eragin zuen. Horren ondorioz, enplegatuen pobrezia tasa 2012ko %6,6tik 2014ko %7,9ra igaro zen. 2016an nolabaiteko egonkortasuna eta hobekuntza ikusi zen (%7,2), baina ez zen finkatu. 2018an, tasa %8,2 izan zen. Hala ere, datu horiek Espainiarako erregistratutako tasa baino 4 eta 6 puntu azpitik daude, eta 28 kidez osatutako Europar Batasunerako kalkulaturako erregistroak baino txikiagoak dira.

Landunen pobrezia tasa.
28. irudia



Iturria: Eurostat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina PGEIren datuen arabera. 2018.

Oro har, behatutako joerek erakusten dute EAEn egoera sozioekonomiko okerrenean dauden biztanleen oinarriko premiak asetzeari lotutako bizi baldintzen hobekuntza orokorra, baina badago tarterik desberdintasunari arrakastarik handienarekin aurre egiten ari diren ekonomietara hurbiltzeko.

3. LAN MERKATUA

3.1 Biztanleria eta aktibitatea

Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak (BJA) biztanleria aktiboari dagokionez 2019an aurkeztu zituen erregistroek aurreko urteko datu positiboak berretsi zituzten, %0,6ko hazkundearekin, 2016an eta 2017an hurrenez hurren erregistro negatiboak jaso ondoren. Hala ere, aldagai demografikoek erakusten dutenez, EAEko biztanleriaren zahartze progresiboak lan egiteko adinean dagoen biztanleria osatzen duen taldea murrizten ari da, eta adin handieneko segmentuek, berriz, gora egiten dute.


Horiek horrela, urtetik urtera EAEko lan merkatuan sartzen diren gazteen kopurua zaharragoa den pertsonena baino txikiagoa da eta prozesu horrek hurrengo urteetan jarraituko du, Eustatek 2017-2031 aldirako eskaintzen dituen biztanleria estatistikek eta proiektzioek aurreratzen duten bezala. Hain zuzen ere, proiektzio horiek adin txikikoen tarte handituko dela iragartzen badute ere, ez da nahikoa izango 35 eta 49 urte bitartekoen taldean aurreikusitako murrizketa nabarmena konpentsatzeko, ezta 50 eta 64 urte bitartekoen artean izandako gorakada konpentsatzeko ere.

Biztanleria aktiboak bilakaera ona izan zuen 2019an, eta, horren ondorioz, partaidetza tasa egonkor mantendu zen 2018. urtearekin alderatuta, 2016ko eta 2017ko erregistro negatiboak alde batera utzita. Hobekuntza horrek ez zien berdin eragin kolektibo guztiei. Izan ere, emakumeen partaidetza tasak bakarrik izan zuen hazkunde positiboa (0,1 puntu), eta gizonena, berriz, 0,2 puntu jaitsi zen. Horrek agerian uzten du emakumeek lan merkatuan duten presentzia erlatiboa gora egiten ari dela. Beherakada oso nabarmena izan zen gazteenen artean ere (0,5 puntu); izan ere, haietako askok lan

merkatuan sartzeko unea atzeratzea erabaki zuten, beren prestakuntza hobetzen jarraitu ahal izateko.

Jarduera tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn

29. irudia



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat.


Biztanleria aktiboaren gorakada horren ondorioz, landunen kopuruak gora egin zuen. Hala, lan merkatua aztertzen duten iturri guztiek datu positiboak aurkeztu zituzten 2019an, baina moteltzeko joera nabari da. Zehazkiago adierazita, hazkunde tasak %1,4 eta %2,0 artean mugitu ziren; Eustaten BJAko estatistikak eta INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren estatistikak izan ziren baliorik apalenak erregistratu zituztenak; aldiz, kontu ekonomikoak %1,6ko tarteko balioan kokatu ziren, eta Gizarte Segurantzako afiliazioak erakutsi zituen hazkunderik dinamikoenak.

Iturri estatistiko bakoitzaren analisisa kontu ekonomikoekin hasita, horiek agerian utzi zuten moteltzeko joera jarraituaren ibilbidea 2019ko lau hiruhilekoetan, gehikuntza tasa aurreko urteko %2,6tik lehen aipatutako %1,6ra murriztuz. Balio absolutuetan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 978.776ra iritsi zen, 2008tik inoiz jaso den kopururik handiena baita. Igoera hori jarduera sektore guztietan oinarritu zen, nahiz eta gehikuntza tasa horiek 2018an lortutakoak baino


txikiagoak izan ziren. Hori horrela izanda, aurreko urtean bezala, eraikuntza izan zen hazkunderik handienak erakutsi zituen sektorea (%2,8), eta, ondoren, zerbitzuak; izan ere, zenbait alditan %2tik gorako aldakuntza tasak izan ondoren, %1,8ko hazkundera izan zuten. Azkenik, industriak %0,6 egin zuten gora.

Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak
30. irudia


Kontu ekonomikoak




Gizarte Segurantzako afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Beste aldetik, afiliazioen kopuruak aurreko urteetan jaso zituen %2aren inguruko hazkunde tasei eutsi zien, ekoizpen adar gehienek bilakaera positiboa izan zutelako. Salbuespenetako bat etxeko enplegua izan zen (-%3,5). Aitzitik, afiliazio osoan pisu handia duten jarduera batzuek, hala nola osasun arloko jarduerak (%7,6), hezkuntzak (%4,0) eta ostalaritzak (%2,8), batez bestekotik gorako hazkundeak eskuratu zituzten.

Enplegua sektoreka
22. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Enplegua guztira	0,2	2,1	2,2	2,1	2,6	1,6
- Enplegua lehen arloan	-1,3	-1,0	0,7	0,1	-1,0	0,9
- Enplegua industrian	-1,0	1,3	1,9	2,9	2,2	0,6
- Enplegua eraikuntzan	-3,4	2,2	0,3	-0,1	3,6	2,8
- Enplegua zerbitzuetan	1,0	2,4	2,5	2,1	2,7	1,8


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

BJAren arabera, enpleguaren aurrerapen hori, lehen aipatu den bezala, pixka bat apalagoa izan zen termino erlatiboetan, nahiz eta zenbaki absolutuetan adierazi behar den eragiketa estatistiko horren bidez kalkulaturako pertsona landunen kopurua 950.000 pertsonara hurbildu zela, 2015ean 900.000 enplegatu izatera iristen ez zirenean. Aurreko aldietan ez bezala, igoera hori handiagoa izan zen emakume landunen artean (%1,6) enplegatutako gizonen artean baino (%1,3). Bi kolektiboetan izandako gorakadak enplegu tasaren beste igoera bat ahalbidetzen du, 16 urteko eta gehiagoko biztanleen %51,2raino iristen dena; hala ere, bi generoen arteko diferentziala bederatzi puntu ingurukoa da (%56,1 gizonentzat eta %46,7 emakumeentzat).


Era berean, adin tarteen arabera analisiak erakusten du talde gazteenak (-%0,5) eta adin multzo ertainak (25-44 urteko pertsonak biltzen dituen) beherakadak izan zituztela aurreko urtearekin alderatuta, lehenengo kasuan susperraldi bat egiaztatu zela iruditu eta gero. Bestalde, adin handieneko tartekak (45 urte eta gehiago) aurreko urteetako hazkundeak sendotu zituen, eta horrek lagundu zuen 20 eta 64 urte bitarteko enplegu tasak goranzko joerarekin jarraitzea (%72,4) eta Europak ezarritako %75eko helburutik oso hurbil egotea.

Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn
31. irudia

Gizonak



Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
 Iturria: Eustat.



Prestakuntza aldia luzatzearekin batera, hezkuntza maila hobetu egin zen, eta horren erakusgarri da goi mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko pertsonen ehunekoa (%59,0), hezkuntzaren arloan Europa 2020 Estrategiak ezarri duen beste helburuetako bat (%40ra iristea) nabarmen gaindituz. Aldeko bilakaera horri esker, Europako beste helburu bat lortu da: eskola uztea %10etik beherako tasara jaistea. Hain zuzen ere, azken urteotako beherakadak egonkortu egin dira, eta EAeko tasa %6,7an dago, Europak eskatutakoa baino hiru puntu beherago.

Hala ere, titulazio akademiko altuagoa izateak, kasu askotan, ez dakar berarekin enplegu hobek eta soldata handiagoak izatea. Izan ere, pertsona landunen prestakuntzaren eta betetzen duten lanpostuaren arteko doikuntzak berresten du pertsona horien zati handi bat gaitzakeria dagoela. Zehazki, eta Lanbidek 2015eko promozioan egindako unibertsitateko laneratzeari buruzko azken datuetan oinarrituta, oraindik ere EAeko unibertsitate landunen %20k baino gehiagok adierazten dute beren ikasketak ez datozela bat beren lanpostuarekin.

Goi mailako hezkuntza maila (30-34 urte bitarteko taldea)
32. irudia

Euskadi

EB-27





Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera
33. irudia

Enplegu tasa

Langabezia tasa




Iturria: INE.

Hala eta guztiz ere, agerikoa da prestakuntza akademiko hobea izateak lan emaitza hobek izatea eragiten duela. Hala, INEk jasotako prestakuntza mailaren arabera enpleguaren bilakaerari erreparatuz gero, egiaztatuta gelditzen da goi mailako prestakuntza duten pertsonen jardura tasak (%78,7) eta enplegu-tasak (%74,5) oso handiak direla gainerakoekin alderatuta. Aitzitik, prestakuntza txikiena duten pertsonak dira lan merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituztenak, enplegu tasa txikiagoak eta langabezia tasa handiagoak dituztenak. Haien prestakuntza hobetzea beharrezkoa da enplegua lor dezaten.


Analisia enpleguaren kalitatean fokaturaz gero, esan behar da EAEko lan merkatuaren behin-behinekotasunak oso zifra altuak izaten jarraitu zuela (%30,6), eta ia bikoiztu egin zituela Europako aldi baterako enpleguarenak (%15,0). Hain handia den erregistro hori jaso da, hain zuzen ere, BJaren datuen arabera, kontratu mugagabea zuten pertsonen kopurua 2013tik jasotako handiena izan den une batean, nahiz eta egia den kontratu horien proportzio esanguratsu batek ez duela denboran gehiegi irauten.

Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko
34. irudia

Euskadi



EB-27




Iturria: Eustat eta Eurostat.


Halaber, EAEko lan merkatuaren ahultasuna agerian uzten duen beste adierazle bat lanaldi partzialean lan egiten duten pertsonen kopurua da, landun guztiekiko, batez ere aukera hori borondatearen aurkakoa bada. Euskadiren kasuan, nahiz eta INEk ematen dituen datuek ez duten bereizten borondatezkoatasuna dagoen ala ez, zifrek Europakoak baino dezente txikiagoak izaten jarraitzen dute, baina duela hiru urte hasitako beherakada gelditu da. Zehazki, 2019an, lana zuten pertsonen %16,7k lanaldi partziala egiten zuten. Aurreko urteetan bezala, emakumeek okupatu zituzten lanaldi partzialeko enplegu gehienak (guztizkoaren %78,3 emakumeak ziren). Figura horrek lotura estua du etxeko lanen banaketarekin.

Lanaldi partziala duten landunek landun guztiekiko
35. irudia

Euskadi



EB-27



Iturria: INE eta Eurostat.


Aipatutako enplegu hazkunde txikiagoak eta biztanleria aktiboaren hazkunde handiagoak langabezia tasak aurreko urteetako erritmoan behera egiteari uzteak eragin zuten, urte horietan jaitziera nabarmenagoa izan baitzen. Hala, BJAren eta BAIren datuen arabera, 2019ko langabezia tasa %10etik beherakoa izan zen, eta zazpi eta zortzi hamarren murriztu zen, hurrenez hurren, 2018koekin alderatuta.

Langabeziaren atzerakadak intentsitatea galdu zuen aurreko hiru urteekiko, baina 2015ean hasitako langabeziaren beherakadari jarraipena eman zitzaion. Hala, BJAren estatistikaren arabera, jaitsiera horren partaide izan ziren gizonezko langabetuak eta emakumezko langabeak, nahiz eta, aurreko hilabeteetan bezala, jaitsiera nabarmenagoa izan zen gizonezko langabeen artean. Beraz, ez zen urrats gehigarrik eman bi langabezia tasen arteko arrakala murrizteko (gizonen tasa %9,0 izan zen eta emakumeena, berriz, %10,6).

Langabezia tasaren bilakaera EAEn
36. irudia

BJA


BAI



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Berrito ere, diferentzia esanguratsuenak adin taldeen araberako azterketan eman ziren. Izan ere, 25 urtetik beherako pertsonen langabezia tasa (%20,8) tarteko adin taldearen bikoitza izan zen (%10,4), eta bikoitzu baino gehiago egin zen 55 urteko eta gehiagoko segmentuarekin alderatuta (%8,2). Hain zuzen ere, langabeen kopurua murriztu egin zen adin tarte guztietan, 25 urtetik beherako kasuan izan ezik. Horrek azaltzen du, neurri batean, langabeziak eragin handiagoa izatea biztanle gazteen artean. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da adin taldeen araberako langabezia tasen arteko aldeak nabarmen jaitsi zirela 2017aren aurreko urteekin alderatuta.

Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn
37. irudia




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
 Iturria: Eustat.

3.2 Tentsioa lan merkatuan: Beveridgeren kurba

Beveridgeren kurbak langabezia tasaren eta lanpostu hutsen tasaren arteko erlazioa erakusten du (biak biztanleria aktiboarekiko definituta). Kanporantz joandako kurba batek, hau da, lanpostu hutsen ratio bererako langabezia tasa handiago batek, zailtasun gehiago adierazten ditu lan eskaintzaren eta enplegu eskariaren arteko parekatze prozesuan. Hori gertatzen denean zailagoa da lanpostu huts bat betetzea, eta, ondorioz, enpresa gehiagok adierazten dute eskulan faltak haien ekoizpena mugatzen duela. Fenomenoa lotuta dago enpresek behar dituzten trebetasunen eta lan indarrean eskuragarri daudenen arteko desoreka handiagoarekin. Erabilgarri dagoen denbora segida laburra dela eta, Euskadiren eta Estatuaren arteko konparazio bat baino ezin da egin 2013-2019 aldian, eta ezin da ikusi kurbak denboran zehar izan duen bilakaerarik, krisialdian lan merkatuak izan duen eraginkortasun galera kuantifikatzeko eta, ondoren, susperraldian hobera egiteko. Aldaketa horiek Beveridgeren bihurtzeko joan-etorrietan islatuko lirateke. Hala, Espainiako kurba eskuinerago egoteak lan merkatu ez hain eraginkorra islatzen du, egiturazko langabezia tasa handiagoarekin.

Beveridgeren kurba 2013-2019
38. irudia




Iturria: INE eta Eustat

Bestalde, Beveridgeren kurban zehar izandako mugimenduak ziklo ekonomikoaren gorabeheren emaitza dira. Hedapen faseetan, lanpostu hutsen tasa handiagoa da eta langabezia tasa txikiagoa, eta kontrakoa gertatzen da atzeraldi faseetan. Hala, 2014tik aurrera ekonomia suspertu egin da, eta, horren ondorioz, langabezia tasa murriztu egin da eta eskainitako lanpostu hutsen kopuruak gora egin du. EAEn, ordea, ibilbide hori eten egin da, 2019an hazkundera moteldu egin baitzen, bi ratioak murriztu baitziren, eta langabetu bakoitzeko lanpostu hutsen kopurua murriztu zen.


Lan eskaintzaren eta eskaeraren arteko doikuntza balioesteko modu bat trebetasunen desdoikuntza indizeak (TDI) ematen du, biztanleria aktiboaren hezkuntza maila (lan eskaintza ordezkatuko lukeena) landunekin alderatzen baitu (eskariarekiko hurbilketa). Indize hori handitu egiten da talde bateko eta besteko hezkuntza mailaren arteko aldeak gora egiten duenean, eta hori gertatu zen Atzeraldi Handiaren urteetan eta joan den mendeko azken hamarkadetan, langabezia tasa altuen ondorioz. Zehazkiago, 2008ko krisialdian, eskaintzaren eta eskaeraren arteko desoreka hori gertatu zen, batez ere, goi mailako ikasketak zituzten lan kontratadunen artean, eta, neurri txikiagoan, bigarren hezkuntza zutenen artean; 80eko eta 90eko hamarkadetan, berriz, batez ere bigarren eta lehen mailako ikasketak zituzten langileen artean gertatu zen.

Trebetasunen desdoikuntza indizea. 2014-2019
39. irudia



Iturria: INE.

Trebetasunen desdoikuntza indizea. Euskadi 2014-2019
40. irudia



Iturria: INE.

Ingurune ekonomikoa hobetzearekin batera, indizearen zuzenketa progresiboa ikusten da. Euskadiren kasuan, TDla erdira baino gutxiagora murriztu da. Hala ere, azken urtean, EAEko lan merkatuaren desorekak gora egin du, zikloarekiko mendekotasuna adierazten baitu, eta hezkuntza maila apalagoko langileak izan dira protagonista; aldiz, goi mailako ikasketak dituzten langileen artean, moteldu egin da krisialditik irten osteko mailakako egokitzapena.

3.3 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa

Aurreko urteetan gertatu zen bezala, ekonomiaren hobekuntzak nabarmen jaitsarazi zuen aurkeztutako enplegu erregulazioko espedienteen kopurua eta haiek eragindako langileen kopurua. Hala, berriro ere marka positiboak erregistratu ziren eta 2013an hasitako beheranzko joerari jarraipena eman zitzaion.

Zehatzago adierazita, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak argitaratzen dituen datuen arabera, 2019an EAEn 173 espediente zenbatu ziren, hau da, %7,5eko beherakada egon zen aurreko urtearekin alderatuta. Berriro ere, jaitsierarik handiena kontratua bertan behera uztea helburu zuten espedienteen artean gertatu zen (%44,3); hain zuzen ere, espediente horiek eragin negatiboa dute enpleguaren bilakaeran.

Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak

23. taula

Kopurua

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Espediente kopurua	1.434	695	446	266	187	173
Eragindako langileak	16.747	8.108	6.283	4.342	3.187	2.449
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	3.196	1.530	1.172	481	355	219
- Behin-behineko etetea	12.091	5.718	4.473	2.864	2.299	1.933
- Kontratua amaitzekoa	1.460	860	638	997	533	297

Iturria: Lan eta Justizia Saila.

Azkenik, kontratazioari dagokionez, joera hau errepikatzen da: jakinarazitako kontratu gehienak aldi baterakoak izaten jarraitu zuten (%94,7), eta kontratu mugagabeen kopuruak nabarmen egin zuen behera (-%9,4), kontratazio modalitate horrek azken urteetan izan duen hazkundearen ondoren.

Horregatik guztiagatik, aldi baterako kontratazioak garrantzi handia duenez, lan txandakatze handia hauteman zen kontratazioan. Zehatz-mehatz azalduta, 2019an 304.324 pertsona kontratatu ziren (-%0,9 2018arekin alderatuta), hau da, aldi horretan erregistratutako kontratu guztiak baino askoz gutxiago (1.008.175, mugagabe bihurtutako kontratuak barne hartuta), eta, horrela, txandakatze indizea %3,3an mantendu zen.

Erregistratutako lan kontratuen bilakaera
24. taula

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2019	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	975.677	12,1	14,1	6,5	3,0	3,9	0,7
Lanaldi osoko mugagabeak	29.159	34,0	12,4	-0,2	11,6	18,2	-10,8
Obra edo zerbitzukoak	161.813	8,7	9,2	1,3	2,2	3,4	-2,4
Abagunekoak	276.152	13,9	20,5	10,9	6,6	7,2	4,5
Lanaldi laburrekoak	396.059	12,3	12,8	8,6	3,7	3,1	2,6
Prestakuntzakoak (*)	7.704	36,3	29,8	-11,6	5,1	6,9	-17,2
Gainontzekoak	104.790	8,5	13,2	2,8	-6,2	-3,7	-5,9

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

4. PREZIOAK

2019. urtean, prezioak aztertzen dituzten adierazleek egiaztatu zuten inflazio presioek kontrolatuta jarraitu zutela eta guztiek balio neurritsuak erregistratu zituztela aurreko urtearekin alderatuta. Aldakuntza tasen jaitziera horiek IPRI indizeak lideratu zituen; indize horrek jaso baitzuen urte arteko tasarik txikiena. Beste aldetik, BPGaren deflatoreak eta KPI indizeak, berriz, modu leunagoan apaldu zituzten beren igoerak. Beste behin ere, petrolioaren merkatua inguratzen duten gertaerek eragin nabarmena izan zuten adierazle horien martxan eta inflazioari buruzko etorkizuneko igurikimenean.

4.1 Deflatoreak

BPGaren deflatorearekin hasita (ekonomia batean ekoizten diren produktu guztiak hartzen ditu barne), esan behar da 2016tik erakutsi duen goranzko joera leuna geldiarazi zuela eta urteko batez besteko aldakuntza tasa %1,0 izan zela, aurreko urtekoa baino bi hamarren txikiagoa. Hala eta guztiz ere, azken urteetako une bakar batean ere ez da BPGaren deflatorea ekonomiaren tentsio garrantzitsuetan pentsarazten duen maila batean kokatu, zikloaren iraupena goranzkoa izan arren, beti %2,0ko erreferentziatik urrun egon baita. 2019ko moteltzea, batez ere, esportazioen deflatorean eta inportazioen deflatorean oinarritu zen, 2018. urtearekin alderatuta petrolio gordinaren prezioak behera egin ondoren. Gainerako deflatoreek igoera apalagoak izan zituzten, kontsumo publikoarena izan ezik; izan ere, azken horrek bilakaera positiboarekin jarraitu zuen eta azken urteetako baliorik handiena erregistratu zuen.

Deflatoreen bilakaera
25. taula

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
BPGaren deflatorea	0,6	0,2	0,6	0,7	1,2	1,0
Barne eskariaren deflatorea	0,0	-0,2	0,2	0,8	1,5	1,2
Kontsumo pribatuaren	0,1	-0,2	0,1	0,9	1,6	1,0
Kontsumo publikoaren	0,8	-0,1	0,1	0,3	1,2	2,0
Inbertsioaren deflatorea	-0,7	-0,4	0,2	0,8	1,5	1,2
Esportazioen deflatorea	-2,0	-1,5	-0,7	2,1	1,6	0,8
Inportazioen deflatorea	-2,7	-2,0	-1,4	2,3	2,1	1,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

4.2 Kontsumo prezioak

KPlari dagokionez, urteko aldakuntza tasa 2018ko %1,6tik 2019ko %1,0ra jaitsi zen, energiaren prezioen beherakadaren ondorioz, aurreko urteko jaitsiera berretsiz. Izan ere, kontsumoko prezioek izan zuten bilakaera oso baldintzatuta egon zen nazioarteko merkatuetan petrolioak izandako gorabeheren ondorioz. Hala, urte hasieran, petrolioaren prezioa igotzen joan zen heinean, inflazioa ere gero eta balio handiagoak erakutsi zituen. Ondoren, urtearen erdialdeko hilabeteetan inflazioa murriztuz joan zen, behin petrolio bere prezioa doitu joan zenean. Azkenean, urtearen amaieran, igoera nabarmena izan zuen.

Zehatzago adierazita, 2019an Brent motako upelaren prezioak 50 eta 75 dolar artekoak izan ziren, eskaintzak urteko lehen erdian izan zuen bilakaeraren eta munduko eskariaren aurreikuspenen isla. Lehen seihilekoan, LPEE osatzen duten herrialde ekoizleek ekoizpenean egindako murrizketarik handienak, baita tentsio geopolitikoak ere, petrolio gordinaren prezioan igoera eragin zuten. Beste aldetik, urtearen bigarren erdian prezioek beherakada bat jaso zuten, merkataritza alorreko tentsioen eta munduko ekonomian izan dezaketen eraginaren ondorioz. Jaitsiera hori eten egin zen Saudi Arabiako petrolio lantegietan irailaren erdialdean gertatu zen erasoaren ondoren, baina eragina iragankorra izan zen, izakinen bolumen handia eta ekoizpen ahalmenaren berrezartze azkarra zirela eta.

Petrolioak bezala, gainerako lehengaiak ere neurritasun soslaia mantendu zuten beren prezioetan. Hala, bai industriako lehengaiak bai elikagaien prezioak murriztu egin ziren 2018. urtearekin alderatuta, eta neurritasun hori datorren urtean ere mantentzea espero da, munduko eskariaren ahultasuneko testuinguru batean herrialde bakar bat ere ez baita ari Txina lehengaien kontsumitzaile nagusi gisa ordezkatzeko.

Bestalde, azpiko inflazioak egonkor jarraitu zuen, %1aren inguruko balioak erregistratu baitziren; beraz, ekonomiaren eta enpleguaren bilakaera positiboak ez zituen prezioak goraka bultzatu. Egia da erregistroak neurritzkoak izan zirela, baina azpiko inflazioa indize orokorraren gaintik egon zen ekainaz geroztik; beraz, bi adierazleek batez besteko aldakuntza tasa bera ezarri zuten, bi urtez indize orokorra altuagoa izan ondoren.

Kontsumoko prezioen indizearen banaketa
26. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017	2018	2019	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	-0,3	0,0	2,0	1,6	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,4)	0,7	0,9	1,1	0,9	1,0	0,9
KPI landutako elikagaiak (%13,6)	1,1	0,9	0,0	0,9	0,6	0,1
KPI industriako ondasunak (%24,8)	0,3	0,8	0,3	-0,1	0,3	0,1
KPI zerbitzuak (%43,0)	0,8	1,1	1,7	1,5	1,6	0,7
Hondarreko inflazioa (%18,6)	-4,5	-4,2	6,5	4,6	0,8	0,1
KPI landugabeko elikagaiak (%7,6)	1,9	2,6	3,7	2,9	1,3	0,1
KPI energia (%11,0)	-8,4	-8,2	8,2	5,9	0,4	0,0

Iturria: INE.

Azpiko inflazio hori osatzen duten taldeen artean, prestatutako elikagaiak izan ziren beren aldakuntza tasak murriztu zituzten bakarrak, lehengaien prezio apalagoetan oinarrituta. Hala eta guztiz ere, urteko azken hilabeteetan nabarmen bizkortu zituzten beren hazkunde erritmoak. Aitzitik, bai energiaren bestelako industria ondasunek bai zerbitzuek igoera txikiak izan zituzten 2018. urtearekin alderatuta. Lehenengoek aurreko urteko balio negatiboak alde batera utzi eta beharrezko joera hautsi zuten bitartean, bigarrenak beren batez besteko historikoari eutsi zioten.

Era berean, elementu lurrunkorrenak izan ziren inflazioaren nukleo egonkorren hazkunde handiagoa eragotzi zutenak. Horiek horrela, landu gabeko elikagaiak balio negatiboak markatzera ere iritsi ziren, 2019ko azken hilabeteetan tasa goratzen hasi baziren ere. Aldi berean, energiak beheranzko jokabidea erakutsi zuen, Brent motako petrolio upelaren prezioan gertatu zen jaitsierak eraginda.

EAEko kontsumo prezioen indizea
27. taula

Urte arteko aldakuntza tasak


	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Indize orokorra	0,2	-0,3	0,0	2,0	1,6	1,0
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,6	1,4	1,6	1,2	1,5	0,9
- Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	0,9	0,4	1,7	2,2	0,3
- Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,4	0,8	0,7	1,1	1,0
- Etxebizitza	2,0	-1,7	-4,1	3,7	2,6	-1,4
- Etxeko hornidura	-0,4	0,0	0,5	-0,3	0,3	1,0
- Medikuntza	4,3	0,1	1,0	1,1	0,2	0,4
- Garraioa	-0,5	-4,1	-1,8	4,3	3,4	2,7
- Komunikazioak	-6,1	-1,7	2,6	1,3	2,4	0,9
- Aisia eta kultura	-1,2	-0,2	-1,0	1,9	-0,4	-0,2
- Irakaskuntza	2,7	2,2	0,6	1,6	1,0	1,0
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	0,7	0,3	1,0	1,8	1,9	1,9
- Besteak	1,2	1,7	1,7	0,7	0,7	1,6

Iturria: INE.


Gainerako taldeen artean, oro har, neurritasuna izan zen nagusi. Etxebizitzaren taldea nabarmendu zen, argindarrak erregistratu zituen beheranzko prezioek oso baldintzatuta, aldakuntza tasa negatiboetara itzuli baitzen eta -%1,4an geratu baitzen. Jaitsiera horiekin batera, beste talde batzuen prezio baxuagoak ere hauteman ziren, hala nola edari alkoholdunak eta tabakoa, haien serie historiko osoaren erregistrorik txikienak izan zituztenak (%0,3) eta komunikazioak, telefonia eta fax-zerbitzuen prezio egonkorraoetan oinarrituta, %0,9an kokatu zirenak.

KPIren bilakaera
41. irudia

Indize orokorra: EAE



Indize orokorra: Eurogunea




Iturria: INE eta Eurostat.

Neurritasun horren ondorioz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako prezioek berretsi egin zuten inflazioaren diferentzial positiboa Europarekiko, eta aurreko urtean bezala, diferentzial hori bi hamarrenetako izan da, autonomia erkidegoko prezioen alde. Beste behin ere, petrolio gordinaren prezioa izan zen bilakaera horren arduradun nagusia, erregaien prezioak gehiago aldatzen baitira lehengai horren prezioaren aldaketekin.

2020ra begira, bi lurraldeetako egungo inflazio maila baxuei eustea espero da, koronabirusak eragindako krisiaren ondorioz. Neurritasun horren zati handi bat lehengaien prezioetan gertatzen ari diren beherakada nabarmenei zor zaie. Halaber, konfinamenduaren ondorioz hilabete batzuk gutxieneko gastuekin igaro ondoren, familietako gastuan izandako jaitsieraren ondorioak batuko dira.

EAEn eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2019ko batez besteko balioak
42. irudia



Iturria: INE eta Eurostat.

4.3 Industria prezioak

KPI indizeak bezala, industriako prezioek ere aurreko urtekoak baino aldakuntza tasa txikiagoak erakutsi zituzten 2019. urtean, nahiz eta egia den IPRIaren jaitsiera askoz ere handiagoa izan zela KPIarena baino. Zehazkiago adierazita, 2018ko erregistroak (%3,2) 2019koaren bikoitza baino gehiago gainditu zuen (%1,4), adierazle horren ia osagai guztiek 2018koak baino aldaketa apalagoak erakutsi eta gero.

Hala, prezioak eratzeko prozesuaren faseetako inflazio-presioen adierazleek erakusten dute industriako prezioen urte arteko aldakuntza tasak neurritsua izaten jarraitu zuela urtean zehar. Salbuespen bakarra kontsumo iraunkorreko ondasunak izan ziren, $-0,5\%$ etik $1,9\%$ ra igo baitziren. Industria produktuen gainerako taldeek merkatze nabarmena izan zuten eta mesede egin zieten, neurri handi batean, lehengaien prezioaren beherakadari. Horien artean bitarteko ondasunak nabarmentzen dira; izan ere, 2018an $2,6\%$ ko aurrerapena izatetik 2019an prezioak aldatu gabe mantentzera igaro ziren.

EAEko industriako prezioen indizea
28. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Indize orokorra	-1,1	-2,6	-2,9	2,8	3,2	1,4
- Kontsumoko ondasunak	-0,2	-0,6	0,6	1,0	2,1	-0,3
- Kontsumo iraunkorrak	-1,2	-0,3	-0,7	2,4	-0,5	1,9
- Kontsumo iragankorrak	0,1	-0,7	0,8	0,7	2,5	-0,7
- Ekipamendu ondasunak	-0,4	0,3	0,8	2,7	1,9	1,6
- Bitarteko ondasunak	-0,6	-0,8	-1,9	1,9	2,6	0,0
- Energia	-3,6	-11,6	-10,4	6,6	7,8	5,0


Iturria: Eustat.

4.4 Soldatak

2014tik aurrera ziklo ekonomikoak izan duen bilakaera onak soldata nominalak igotzea ahalbidetu du. Zehatz-mehatz azalduta, INEk argitaratzen duen soldaten egiturari buruzko informazioak adierazten du 2018an, hots, informazioa dagoen azken urtean, batez besteko soldata 2008an jasotzen zena baino %11,4 handiagoa zela. Hala, urte horretan pertsona bakoitzak jaso zuen soldata konpentsazioa 28.471 eurokoa izan zen batez beste, aurreko urtekoa baino %0,9 handiagoa. Hala ere, soldaten sakabanaketak gora egin zuen pixka bat 2017. urtearekin alderatuta, urte hartan ia ez baitzen alderik izan batez besteko soldataren eta erdiko balioaren igoeren artean, 2008ko posizioekin alderatuta. Hain zuzen ere, 2018an 25.428 eurokoa izan zen batez besteko soldata, 2008ko datua baino %9,9 handiagoa, baina 2017an zuen balioa baino %0,6 txikiagoa. Beraz, 2018ko soldata-hobekuntza txikia ez zen kolektibo guztietara iritsi.


Oro har, ez da alderik ikusten generoaren arabera soldata-bilakaeran. Hala, emakume baten batez besteko soldata 2008an baino %13,7 handiagoa izan zen 2018an, eta gizon batena, berriz, %13,1 handiagoa aldi berean. Bilakaera horren ondorioz, 24.757 euro eta 31.970 euro jaso ziren, hurrenez hurren; beraz, soldata-arrakala 7.213 eurokoa izan zen. Aldi osoko ikuspegi batek 2012an kokatzen du bi generoen arteko arrakala handiena (7.771 euro) eta data horretatik aurrera pixkanaka murrizten joan da.

Batez besteko eta erdiko soldaten bilakaera. 2008. urtea=100
43. irudia



Iturria: INE. Soldaten egitura.


Batez besteko soldataren bilakaera. 2008. urtea=100
44. irudia



Iturria: INE. Soldaten egitura.

Erdiko soldatei buruzko azterketak ere ez du erakusten generoaren araberako dispersio desberdinik, emakumeen balioak gizonenak baino gorabehera handiagoak izan arren. 2018an, emakumeen artean soldaten erdiko balioa %11,5 igo zen 2008an jasotzen zutenarekin alderatuta, eta gizonen arteko aldakuntza tasa %11,8 izan zen aldi berean. Hala ere, 2017ko datuekin alderatuta, informazio estatistikoak adierazten du batez besteko soldata igo egin zela bi generoetan, baina erdiko soldata jaitsi egin zela bietan ere, eta, beraz, ondorioztatzen da urte horretan sakabanaketak gora egin zuela bi kolektiboetan.

Erdiko soldataren bilakaera. 2008. urtea=100
45. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

10. eta 90. pertzentilen azterketak agerian uzten du azken hamar urteetan batez besteko soldata nabarmen igo bada ere, kolektibo guztiek ez dutela horren onurarik jaso. Izan ere, soldata baxuenak jasotzen dituzten pertsonak ekonomiaren hobekuntzatik kanpo geratu dira eta irabaziak, berriz, soldata altuenetan pilatzen dira. 46. irudiak soldaten multzoen bi muturren bilakaera erakusten du. 10. pertzentilean, 2018an lortutako diru sarrerak 2008koak baino txikiagoak izan ziren, nahiz eta 2014tik hautematen den Atzeraldi Handiaren lehen urteetan galdutako guztiaren zati bat berreskuratu zela. Gainera, 2018an atzerapauso bat eman zen aurreko urtearekin alderatuta, eta batez besteko diru sarrerak ez ziren 10.000 eurora iritsi.

Aitzitik, 90. pertzentilak, soldata altuenen %10 biltzen duenak, batez bestekoa baino bilakaera hobea izan zuen, eta bere batez besteko soldata %14,7 igo zen 2008arekin alderatuta, %3,4ko igoerarekin 2017arekin erkatzen denean. Zehazki, talde horretako batez besteko diru sarrerak 48.542 eurokoak izan ziren, eta, beraz, ia boskoiztu egin dira pertzentil baxuenaren diru sarrerak. Muturren arteko erlazio horrek gora egiteko joera du azken hamar urteetan, nahiz eta puntu gorena 2014an gertatu zen.

Soldaten bilakaera. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100
46. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.


Pertzentilen portaera desberdina larriagotu egiten da horiei genero ikuspegia gehitzen zaienean. Izan ere, horrek erakusten du diru-sarrera txikiko emakumeen posizioa okertu egin dela estatistika honetan jasotzen den aldirian. Hain zuzen ere, 10. pertzentila osatzen duten emakumeen batez besteko soldata 2008an jasotzen zutena baino nabarmen txikiagoa zen 2018an. Zehatzago, diru sarrera garai hartako 8.362 eurotik 2018ko 7.669 eurora igaro da eta %8,0ko galera metatua izan du. Gizonen 10. pertzentilaren bilakaera emakumeen bilakaeraren antzekoa izan zen Atzeraldi Handiaren lehen urteetan, baina 2017an eta 2018an nabarmen hobetu dute beren posizioa, aurreko urteetako galera guztiz berreskuratuz eta %8,4ko gehikuntza metatuz, 2018an 14.445 euro irabazi arte, emakume batek pertzentil horretan jasotzen duenaren ia bikoitza.

Soldaten bilakaera. Pertzentil 10. 2008. urtea=100
47. irudia

10 pertzentila. Emakumeak




10 pertzentila: Gizonak




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Soldaten bilakaera. Pertzentil 90. 2008. urtea=100
48. irudia

Pertzentil 90. Emakumeak



Pertzentil 90. Gizonak




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Kontrako norabidean, 90. pertentilean bilakaera hobea izan da emakumeentzat gizonentzat baino, bereziki 2018. urtean. Urte horretan, batez besteko diru sarrera 2008koa baino %22,8 handiagoa izan zen, eta gizonen artean hobekuntza %14,7 izan zen. Emakume batentzako diru kopurua 45.479 euro izan ziren, batez beste, eta 51.280 euro, berriz, gizon batentzat. Soldata arrakala 5.801 eurokoa da pertzentil altuenean, pertzentil baxuenean dagoena baino txikiagoa (6.776 euro).

Oro har, emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala zuzentzeko urrats batzuk egin dira 2012az geroztik. Urte horretan, alde handiena jaso zen eta batez besteko soldatan zegoen aldea 7.771 eurokoa izan zen. Sei urte beranduago, 2018an, soldata arrakala 7.213 eurora jaitsi da. Hala eta guztiz ere, 2008an zegoen arrakala baino %11 handiagoa zen 2018an. Adin taldeka egindako azterketak adierazten du arrakalaren igoera bereziki handia dela 45 eta 54 urte bitarteko adin tartean, nahiz eta azken ekitaldietan tarte horretan ere diferentziak behera egin duen. Adin tarte gazteenetan, arrakala nabarmen murriztu da, baina bi generoen batez besteko soldatek behera egin dutelako.

Soldaten bilakaera. Soldata arrakala. 2008. urtea=100
49. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Soldata arrakalaren azalpen nagusia genero bakoitzak lanean ematen duen denboratik dator. Izan ere, 7.213 euroko arrakala global horren aurrean, lanaldi osoko kontratua zutenen arteko aldea 3.530 eurokoa zen, eta lanaldi partzialeko kontratua zutenena, berriz, 2.533 eurokoa. Beraz, kolektibo bakoitzaren osaera efektuak igotzen du batez besteko zifra. Hala, INEren beste inkesta baten arabera, enplegua duten emakumeen %27,2k lanaldi partziala izan zuten 2019an, baina gizonen %7,0k soilik.

Badirudi jarduera garatzen den ekoizpen sektorea ez dela soldata arrakala azaltzen duen faktorea, guztiek antzeko balioak baitituzte. Hain zuzen ere, industrian generoen arteko aldea 5.969 eurokoa izan zen 2018an eta zerbitzuetan, berriz, 6.755 eurokoa. Gainera, bi kasuetan nabarmen jaitsi da, 2012an eta 2013an izandako maximoetatik.

2019ko soldatei buruzko informazioa beste estatistika eragiketa batetik dator. Hala, INEren Lan Kostuen hiruhilekoko Inkestaren arabera (ETCL), langile bakoitzeko hileko lan kostuak aurreko urteko inertzia eta bultzada jarraitzen du EAEn (%2,5), eta %1,8 igo zen 2019an. Bultzada hori Espainiara (%2,2) eta Nafarroara (%2,0) ere helarazten da, indar handiagoz, Euskadiren lekukoa hartzen baitute. Hala eta guztiz ere, EAEk langile bakoitzeko lan kosturik handiena izaten jarraitzen du, 3.092 eurora iristen baita, Madrilen parean (3.089 euro), eta Nafarroakoa %8 batean eta Espainiakoa %17,5 batean gaindituz.


Lan kostuak hileko eta langileko. Euroak, 2019ko batez bestea
50. irudia



Iturria: INE (ETCL).

Kostuen igoera hori azal dezaketen faktoreen artean honako hauek daude: a) hitzarmen kolektiboetan 2018. urtearekin alderatuta itundutako ordainsarien igoera, bai Estatuan bai EAEn; b) Gobernuak sektore publikoko langileentzat dekretatu zuen %2,25eko igoera, handitu daitekeena; c) urtarrilean lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) %22,3ko igoera, eta, beraz, 2019an edozein jardueratarako gutxieneko soldata zehaztuta geratzen da 30 eurotan eguneko edo 900 euro hilabeteko, soldata egunetan edo hilabetetan finkatuta badago eta d) Gizarte Segurantzako kotizazio oinarri maximoen %7,0ko igoera, 4.070,1 euro arte.


Lan kostu guztiak langileko. Sektoreak . Urte arteko aldakuntza tasak
51. irudia



Iturria: INE (ETCL).


Espainiari buruzko azterketa horrek berak egoera ezberdina islatzen du. Izan ere, Espainiako aldakuntza tasak homogeenagoak dira sektoreen artean eta zerbitzuek baino ez dute Euskadiren bilakaeraren antzeko portaera erakusten (%2,6 eta %2,5, hurrenez hurren). Gainerako sektoreek, Euskadikoekin alderatuta, emaitza desberdinagoak izan dituzte, bereziki eraikuntzak, nabarmen hazi baita (%1,7 eta -%1,2, lurralde bakoitzean). Bestalde, industrian ia bikoiztu egin da hazkunde tasa (%1,5 eta %0,8).

Lan kostu guztiak langileko. Sectoreak. Alderaketa
52. irudia



Iturria: INE (ETCL).

Lan kostu nominalak orduko. 2015=100
53. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

Euskadiko orduko lan kostu nominalek igoera neurritsua izan zuten 2015-2019 aldian. Zehazkiago adierazita, urteko batez besteko hazkunde tasa %1,9 izan zen. 2019rako hazkunde tasa berdina izan zen, eta datu horrek esan nahi du azken batez besteko kostua 26,9 euro ordu bakoitzeko izan zela, Austriakoaren oso antzekoa dena (orduko 26,3 euro), Europar Batasuneko baina zertxobait handiagoa (orduko 25,8 euro), eta Alemaniakoa (orduko 29,3 euro) eta AEBetako baina txikiagoa (orduko 30,1 euro). Beste aldetik, Espainiak eta Estatu Batuek hazkunde txikiagoa eskaini zuten 2015-2019 aldian, %0,3ko eta %0,5eko batez besteko tasekin, hurrenez hurren. Txekia, aldiz, herrialderik dinamikoena izan zen (%4,3), nahiz eta haren orduko kostua (16,1 euro) gainerakoetatik oso urrun egon. Alemaniak eta Austriak, berriz, batez besteko kostuak %3,1 eta %3,0 igo zituzten, hurrenez hurren.

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak
29. taula

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Indarrean dauden hitzarmenak	0,7	0,6	1,0	1,5	1,9	2,0
- Urtean zehar sinatutakoak	0,5	0,7	1,1	1,7	2,2	2,3
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	0,7	0,6	1,0	1,5	2,0	2,1
- Enpresako hitzarmenak	0,6	0,6	1,1	1,5	1,6	1,8

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Lan Harremanen Kontseilua lan hitzarmenei buruz aurkezten duen estatistikari dagokionez, nabarmentzekoa da 2019an negoziazio kolektiboak EAEn izan zuten aurrerapen nabarmena. Zehatz-mehatz adierazita, EAeko langileen %51,6k iraupen arrunteko hitzarmena sinatu zuten urtean zehar. Zifra horiek ez ziren 2009. urteaz geroztik lortzen. Urte horretan, erregistro hori %57,7 izan zen.

Era berean, soldata igoerei dagokienez, datuak ere oso positiboak izan ziren. Hala, ekonomiaren hobekuntza soldaten bilakaeran islatzen hasi zen, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan batez besteko igoera %2,0 izan baitzen, inflazioa baino puntu bat handiagoa. Beste aldetik, urte horretan bertan sinatutako akordioetan, igoera are handiagoa izan zen, %2,3ra iritsi baitzen. Beraz, bi kasuetan erosteko ahalmenaren irabazia nabarmena izan zen.

5. LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK

5.1 Produktibitatea


Produktibitatea lehiakortasunaren eta hazkundearen oinarria da. Produktibitatea hobetu ahala, lehiakideen aldean lehiakorra izatea lortzen da. Halaber, eraginkortasuneko neurri bat da, zeren eta baliabide berberekin produktibitatearen handitze batek ekoizpen handiagoa lortzea ahalbidetzen baitu. Beste aldetik, soldaten bidezko errentak banatzeko erreferentzia bat da, produktibitatearen bilakaerari erreparatuta zehazten baitira askotan. Eraginkortasuna hobetzea ekoizpen sistema guztien muinean dagoen zerbait da. Hori dela eta, interesgarria da norberaren bilakaera aztertzea ez ezik, erreferente izan daitezkeen beste ekonomia batzuekin konparazioak egitea ere.

2019an, EAEko ekonomiak lan faktorearen itxurazko produktibitatearen %0,6ko hazkundera lortu zuen, hots, aurreko bi urteen antzeko balioa, baina 1995etik lortutako batez bestekoa (%1,0) baino txikiagoa. Oro har, produktibitatearen irabazian moteltzeko joera nabaritu da azken hamarkadetan. Fenomeno hori orokorra da, eta ekonomia eremu nagusi guztiei eragiten die, hainbat arrazoiengatik. Besteak beste, biztanleriaren zahartzea, lan merkatuko gabeziak eta I+Gko gastu ez-nahikoa aipatu behar dira. Produktibitatearen hazkunde txikien adibide gisa, nahikoa da aipatzea 2019an Europar Batasun osoan %0,5eko igoera izan zela, baina Alemanian eta Italian negatiboa izan zela (-%0,3), Espainian bezala. Frantziak (%0,3) eta Erresuma Batuak (%0,4) EAEko ekonomiak baino igoera txikiagoak izan zituzten.

Balio absolutuetan, lan egindako ordu bakoitzeko produktibitatea 42,2 eurokoa izan zen EAEn 2019an. Kopuru hori Europar Batasuneko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa da, baina beste erreferentzia interesgarri batzuen azpitik, hala nola euroaren eremuko batez bestekoa eta 15 kidez

osatutako Europar Batasunaren batez bestekoa. Orobat, distantzia handia dago EAEko produktibitatearen eta Europako herrialde liderren produktibitatearen artean, eta horien artean Irlanda edo Danimarka aipa daitezke.

Lan produktibitatea orduko. 2019
54. irudia




Iturria: Eurostat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Orduko produktibitatearen kalkulua erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) egiten bada, herrialde bakoitzeko prezioen mailan dagoen aldea zuzentzen duena, EAEko ekonomiaren posizio erlatiboa hobetu egiten da eta gehiago hurbiltzen da euroguneko eta Europar Batasun 15eko herrialde aurreratuenetako batez bestekoari. Kalkulu hori ez da guztiz zehatza, zeren eta, Eurostatek prezioen maila bera erabiltzen baitu herrialde bateko lurralde osorako, nahiz eta jakin haren barruan alde nabarmenak daudela gehien eta gutxien garatutako eremuen artean.


Produktibitateak orduko denboran zehar izan duen bilakaerak berretsi egiten du gorakada herrialde guztietan. Euskadiren eta Europako batez bestekoaren arteko alderaketak hobekuntza nabarmena erakusten du 2000ko hamarkadaren eta Atzeraldi Handiaren hasieraren artean. Hala ere, ordutik hona, aldagai horren hobekuntza Europako batez bestekoa baino txikiagoa izan da EAEn eta hamabosteko taldetik alden du, eta berriro bat egin du, beherantz, hogeita zazpiko batez bestekoarekin.

Produktibitatea lan ordu bakoitzeko. Bilakaera 2000 - 2019
55. irudia

Euro/orduko



Euro / orduko




Iturria: Eurostat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Euroguneko herrialde nagusiekin alderatuta, nabarmentzekoa da Alemaniaren produktibitate handia. Izan ere, 2009az geroztik goranzko joera irmoa izan du, orduko 54,8 eurokoa, eta EAEn, berriz, 42,2 eurokoa. Hango lan ordua, beraz, EAEko ordukoa baino ia %30 produktiboagoa da, Atzeraldi Handiaren hasieran %18ra baino ez baitzen iristen. Egoera antzekoa da Frantziarekin alderatuta (56,6 euro) eta hobe Italiaarekin alderatuta (40,8 euro). Herrialde horrekin 2007an bat egin zuen eta ordutik Euskal Autonomia Erkidegoaren antzeko bilakaera izan du. Konparazio horretan, Espainiaren posizioa (36,5 euro) atzeratuagoa da.

Eurotan dagoen posizioari erreparatu beharrean, ekonomia bakoitzak 2000. urtean izan zuen posiziotik begiratuta, ikusten da EAEko ekonomiaren jarduna Europako batez bestekoaren antzekoa edo hobe izan dela. Hain zuzen ere, 2000. urtean 100 balio batetik abiatuta, EAEko ekonomia 144ko balioarekin iritsi zen Atzeraldi Handira, Europar Batasuneko 133ren eta Alemaniako 120ren aldean. Hala ere, hurrengo bost urteetan jasandako atzeraldi bikoitzaren eraginak pisu handiagoa izan zuen EAEko ekonomian, 2019ra 167ko datuarekin iritsi baitzen, Europar Batasuna 27ri dagokion kopuru bera, nahiz eta oraindik ere Alemaniaren (152) eta EB-15en (148) balioen gainetik egon.

Produktibitatea lan ordu bakoitzeko 2000- 2019. 2000=100.
56. irudia




Iturria: Eurostat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Europar Batasuneko 27 kideko batezbestekoa 100eko balioari dagokiola, 57. irudiak aurreko paragrafoetan aipatutako bi etapak erakusten ditu: 2000-2009 aldiari dagokiona eta ondorengo fasea. Lehenengoan, EAeko produktibitatea 15 puntu igo zen Europako batez bestekoarekin alderatuta. Bigarrenean, ordea, bilakaera ez zen batez besteko hori baino hobe izan, eta ia hasierako egoera erlatibora itzuli zen. Espainiaren kasua antzekoa izan zen, baina hobekuntza erlatiboa eta ondorengo moderazioa txikiagoak izan ziren, hamar puntu ingurukoak. Azkenik, Alemaniak alderantzizko bidea egin zuen: lehen fasean produktibitate galera erlatiboa izan zuen, eta Atzeraldi Handitik hobekuntza txiki bat lortu du.

Europar Batasuneko punta-puntako herrialdeez osatutako EB-15ari dagokionez, 2000. urtean EAeko ekonomia atzeratuago zegoen (77) eta aurrerapen esanguratsu bat lortu zuen. Horren ondorioz, 2009an batez bestekotik sei puntura baino ez zen kokatu. Ondorengo urteetan, galera erlatiboak 87ra arte urrunduzuen. Beraz, EB-27rekin ez bezala, bidaia hori ez da izan joan-etorrikoa izan hasierako posiziora arte, baizik eta 2019an hamar bat puntu gorago zegoen 2000. urteko egoera erlatiboa baino.

Produktibitatea orduko. Bilakaera 2000-2019
57. irudia



Iturria: Eurostat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

A priori pentsa daiteke EAEko ekonomiak Europako batez bestekoarekin alderatuta duen produktibitate erlatibo apur bat handiagoa industria sektoreak EAEko ekonomian duen pisu handiagoarekin lotuta dagoela, sektore hori baita, hain zuzen ere, produktibitate irabazi handienak lortzen dituen. Hala ere, jarduera adarren azterketa zehatzago batek adierazten du ez dela hori bakarrik arrazoia. Izan ere, industriak zeregin garrantzitsua du, ez bakarrik duen pisuagatik, baita Europar Batasunean batez beste dagoena baino %10 produktiboagoa delako ere. Baina beste sektore batzuek ere paper garrantzitsua jokatzen dute emaitza hobe horretan.

Eraikuntza da produktibitate erlatibo oso handia duten sektore horietako bat. Izan ere, lan ordu bakoitzeko, %50 produktu gehiago lortzen da EAEn Europako batez bestekoan baino. Sektorearen osaerak justifikatuko du, ziurrenik, alde hori, ez baitago lurralde baten esku bakarrik egongo den teknologia diferentzialik. Hori horrela izanda, EAEn egiten ari diren azpiegitura handietan egiten ari diren inbertsioak, abiadura handiko tren bereziki, obra zibilaren tamaina handiago baten atzean egon daitezke, eta horrek eraikinen atalarena baino balio erantsi handiagoa izan ohi du.

Produktibitatea orduko. EB27=100
30. taula

	Euroak			EAP		
	2000	2008	2018	2000	2008	2018
Guztira	103,0	111,5	103,6	115,7	119,2	111,0
Lehen arloa	237,0	175,7	162,9	266,1	187,8	174,7
Industria	103,8	120,1	109,8	116,6	128,4	117,7
- Manufakturak	103,0	120,9	110,1	115,6	129,2	118,0
Eraikuntza	133,6	161,7	153,8	150,0	172,9	164,8
Merkataritza eta ostalaritza	120,4	123,3	110,0	135,2	131,8	117,9
Informazioa eta komunikazioak	100,1	90,1	73,6	112,4	96,3	78,9
Finantza-jarduerak	111,4	149,2	123,6	125,0	159,5	132,5
Higiezinaren jarduerak	82,7	168,0	258,7	92,9	179,5	277,3
Jarduera profesionalak	72,6	77,5	79,2	81,5	82,8	84,9
Administrazio publikoa	115,9	118,4	103,8	130,1	126,5	111,3
Jarduera artistikoak	82,5	98,4	101,5	92,7	105,2	108,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eurostaten datuetan oinarrituta.

Zerbitzuen alorreko jardueren artean, produktibitatea Europako batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da higiezinaren adarrean, nahiz eta denboran zehar gorabehera handiak dituen sektorea den. Deigarria da produktibitate handiena higiezinaren burbuilaren unerik gorenean zein egungo fasean antzematen dela. Beste aldetik, finantza jarduerak Europakoak baino %24 produktibitate handiagoa lortzen dute, EAEko erakundearen jardunbide egokitik eratorria, Kutxabank Estatuko erakunde kaudimendunena eta koronabirusaren krisiari begira posizio onenetakoa duena izateak erakusten duen bezala.

Aitzitik, ahulezia nabarmenak daude bi jardueraren adarretan: informazioa eta komunikazioak, eta jardueraren profesionalak eta zerbitzu osagarriak. Bi kasuetan, EAEko produktibitatea Europakoa baino %20-%30 txikiagoa da, nahiz eta baterean eta bestearen bilakaera kontrakoa izan diren. 2000. urtean, komunikazioak Europako batez bestekoaren antzekoak ziren, baina urtetik urtera okerrera egin dute. Aitzitik, jardueraren profesionalak puntu gutxi batzuk hobetu dituzte azken bi hamarkadetan.


5.2 Lan kostu unitario nominalak eta errealak

2015-2019 aldian, Euskadiko lan kostu unitario nominalak (LKUn) ia konstante mantendu dira (batez besteko tasa %0,4 igo da epealdian), eta, zehazki, 2019an, %0,4 murriztu ziren (lehiakortasuna irabazi da).

Gainerako herrialdeek eta eremuek arinki moteldu zuten beren lehiakortasuna. Horrela, Alemania izan zen LKU nominalen lehiakortasun galeraren buru (%3,1eko igoera), ondoren Austria (%2,5), Espainia (%2,4) eta Txekiar Errepublika (%2,4), aurreko urteetako KLU nominalen hazkunde handiak leundu zituena eta gainerako herrialdeekin bat egite txiki bat hasi zuena, lehen aipatutako lan kostuen igoera handien ondorioz.

Azkenik, AEBetako LKU nominalen hazkundera %1,9koa izan zen, eta horrek -%0,3ko batez besteko tasa ekarri zuen epealdian. AEBek kostu eta ekoizpen aldaketak orekatzeko gaitasun handia mantendu zuten, 2007tik eskaintzen zituena, eta 2015-2019 epealdi honetan oraindik ere mantentzen direnak.

Lan kostu unitario nominala orduko. 2015. urtea=100
58. irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

Analisia manufaktura azpisektorean fokatzan bada (oso garrantzitsua da balio erantsia, I+G+b edukia, esportatzeko gaitasuna eta gaitasun profesional teknikoen eskakizun maila handia dituelako), ikusten da 2015-2019 aldi honetan EAEk, Europar Batasuna 15ak eta AEBk bezala, bere manufaktura lehiakortasun mailari eutsi diola.

Beste aldetik, Alemaniak eta Espainiak, aldi horretan %1,0tik zertxobait goragoko batez besteko tasarekin, zertxobait murriztu dute manufaktura duten lehiakortasun maila. Txekiar Errepublikak da gainerakoekiko aldea handitu duen herrialdea, eta KLUk %4,3ko (batez besteko tasa) igoera izan du aldi horretan.

2019ko datuen arabera, EAEk bere manufaktura KLUk konstanteei eusten die, baita pixka bat hobetzen ditu ere, %0,3ko murrizketa bati esker. Adierazi behar da KLU nominalen mailak EAEko manufaktura sektorean 2019an 2007ko mailetan kokatu zirela. Aitzitik, Alemaniakoek nabarmen egin dute gora (%6,3), Europar Batasunean (%3,6) eta Txekiar Errepublikan (%3,3) gertatu den bezala.


Lan kostu unitario nominala. Manufaktura. 2015-2019. 2015. urtea=100
59. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

Azkenik, lan kostu unitario errealar dagokionez (LKUr), 2015ean adierazle horrek EAEn eta Espainian izan zuen beherakada txikiak soldatek errentan duten partaidetzaren galera erlatibo txikia islatzen du. Euskadiren kasuan, azken urte honetan izan da batez ere; aldiz, parte hartze hori gero eta handiagoa izan da Alemania, Txekiar Errepublikan edo Europar Batasuna 28 herrialdeetan. Europar Batasuna 15ean eta AEBetan ia ez da aldaketarik egon.

Lan kostu unitario erreala orduko. 2015. urtea=100
60. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta. (2020ko maiatzean eguneratuta).

6. ARLO PUBLIKOA

6.1 Itundutako zergen diru bilketa

2019. urtean zehar, zerga itunduen bidezko diru bilketak errekor historikoa ezarri zuen berriro, aurrekontuan jasotakoak baino 204 milioi euro gehiago bilduz. Zehazkiago adierazita, 15.470 milioi euro bildu zituen eta urte arteko aldakuntza tasa %3,3koa izan zen. Aldakuntza tasa hori aurreko ekitaldietakoa baino zertxobait apalagoa izan bazen ere, 2013an hasitako goranzko joerari eutsi zion.

Diru bilketa horren hazkundera, nagusiki, lan atxikipenetatik eta zeharkako zergapetzetik eratorritako diru sarreretan kontzentratu zen. Aitzitik, zuzeneko zergapetzea, berriz, %1,6 baino ez zen handitu, 2018ko %10,2ko igoera nabarmenaren aldean. Zerga horren diru bilketa kaltetuta atera zen, sozietateen gaineko zergak, ondarearenak eta oinordetza eta dohaintzenak izan zuten portaera txarraren ondorioz,

Zuzeneko zergapetze horren azterketan sartuta, PFEZaren bilakaera positiboa nabarmentzen da (%5,7). Izan ere, lehen aipatu den bezala, lan atxikipenek jokabide positiboa erakusten jarraitu zuten, enpleguaren hobekuntzaren eta soldaten igoeraren efektu bateratuagatik. Aldiz, kapital higigarriaren atxikipenek eta ondare irabazien atxikipenek aldakuntza tasa negatiboak izan zituzten, eta kuota diferentzial garbiak balio negatiboa izan zuen, nahiz eta %13,9ko hazkunde nabarmena gertatu zen. Eraitza hori azaltzen da amatasunagatik eta aitatasunagatik prestazio publikoen salbuespenetik eratorritako zenbatekoen itzulketak txikiagoak izan zirelako 2019ko lehen hiruhilekoan 2018aren amaieran baino.

Zerga itunduen bilakaera
31. taula

Mila euro


	Diru-bilketa		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2019	2014	2015	2016	2017	2018	2019
PFEZ	5.713.671	2,9	5,9	4,1	6,0	5,4	5,7
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikip.	5.310.336	1,8	1,6	2,8	3,7	4,7	6,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	141.252	-8,7	-11,0	-13,8	10,7	8,4	-21,8
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	83.339	-3,3	-1,8	-2,9	1,9	1,1	1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	39.701	11,9	59,7	-44,5	52,0	14,6	-22,6
- Esp. zergak hainbat loteria sarien gain	56.935	-	25,5	-63,8	57,5	80,3	30,7
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	176.994	-2,6	3,8	2,3	6,7	6,4	4,8
- Kuota diferentzial garbia	-94.885	6,9	35,1	43,9	38,9	0,7	13,9
Sozietateen gaineko zerga	1.303.792	-4,7	-10,4	-3,5	10,9	32,8	-11,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	141.252	-8,7	-11,0	-13,8	10,7	8,4	-21,8
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	83.339	-3,3	-1,8	-2,9	1,9	1,1	1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	39.701	11,9	59,7	-44,5	52,0	14,6	-22,6
- Kuota diferentzial garbia	1.039.502	-4,5	-13,8	1,9	10,2	41,9	-10,5
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	51.835	-77,8	-669,3	95,6	-	-2,4	59,8
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	122.339	6,6	1,2	-2,4	6,2	12,0	-7,4
Ondarearen gaineko zerga	167.643	10,4	-0,9	6,8	1,2	13,3	-9,3
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.163	-	98,6	-0,4	2,1	-1,0	-1,6
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	23.698	15,1	32,2	-13,9	2,2	6,1	-32,0
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA	7.407.142	1,2	1,6	3,5	7,2	10,2	1,6
BEZaren bertoko kudeaketa	4.129.679	13,2	2,5	0,9	2,3	7,9	1,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	162.760	25,5	12,7	19,3	19,0	10,8	1,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	47.502	-4,9	19,3	-10,2	-0,9	20,9	1,1
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	28.131	9,3	10,8	8,6	21,1	20,0	7,9
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.903.946	0,9	0,9	4,6	1,7	2,0	10,5
Aseguru sarien gaineko zerga	78.931	-1,1	3,2	2,4	2,0	4,6	-0,3
Joko jardueren gaineko zergak	6.227	-	-46,6	20,6	20,5	11,0	-5,9
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.044	-	266,7	-16,3	65,2	-7,6	-20,8
Iraungitako zergak	-2.804	-97,6	-3.891,3	15,0	20,6	-23,5	70,2
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	6.357.416	9,1	2,1	2,3	2,9	6,3	4,3
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	109.675	-8,5	10,9	4,7	-11,5	11,0	-7,5
BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK	13.874.233	4,7	1,9	3,0	5,0	8,4	2,7
BEZaren doikuntza	1.898.909	8,5	5,1	3,0	70,0	-21,9	6,9
Zerga berezian doikuntza	-303.555	-18,9	5,2	-19,9	-4,1	-17,2	-0,5
ITUNDUTAKO ZERGA GUZTIRA	15.469.587	4,8	2,4	2,7	11,8	3,5	3,3

Iturria: Foru Aldundiak.

Beste zuzeneko zerga handiak, hau da, sozietateen gaineko zergak, %11,7ko beherakada nabarmena izan zuen, 2018an %32,8ko gorakada jaso eta gero. Jaitsiera horren arrazoia izan zen egindako ezohiko itzulketen igoera, eta 2018a izan zen foru araudiaren mendeko erakundeek zerga horren ordainketa zatikatua egin zuten lehen ekitaldia, 2019an itzuli beharrekoa.

Zeharkako zergapetzeak, berriz, hazkunde sendoagoa erakutsi zuen, nagusiki zerga berezien bilakaeran oinarrituta. Kudeaketa propioaren ondoriozko BEZa ere hazi egin zen, baina modu neurritsuagoan (%1,7), itzulketek nabarmen egin baitzuten gora 2018. urtearekin alderatuta. Urtean zehar, zerga horrek aldizkakotasun handia izan zuen aldi batzuetan, diru bilketaren jaitsierekin eta igoera txiki batzuekin.

Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala. Urte arteko aldakuntza tasak eta %BPG
61. irudia



Iturria: Eustat eta Ogasun eta Ekonomia Saila.

Azkenik, kudeaketa propioako diru bilketa, fabrikazioko zerga berezien multzoagatik, %10,5ean kokatu zen, 2013tik izandako hazkunderik handiena baita. Ekarpen positibo handiena hidrokarburoek egin zuten, zerga tasa autonomikoa Estatuko tasa berezian integratu zuen araudi aldaketaren ondorioz. Hidrokarburoen kasuan bezala, tabakoaren laboreak zergapetzen dituen zergak (%1,4) eta alkoholarenak (%23,4) hazkunderik izan zituzten, eta nabarmentzekoa da azken horrek gora egin zuela, nahiz eta zerga bilketan duen garrantzia oso txikia izan. Aitzitik, elektrizitatearen bilketak -%5,5 egin zuen behera, 2018arekin konparatu baitzen, eta aldi horretan prezioen igoera handia izan zen.

Azken urtean, zerga itundu horien presio fiskala aurreko ekitaldian izandakoaren oso antzeko balioetan mantendu zen, BPGaren %19,5ean. Euste hori BPG nominalaren eta zerga bilketaren bilakaerak ia intentsitate bereko hazkunderik izan zituztelako gertatu zen. Izan ere, lehenengoa %3,2 handitu zen 2019an, aurreko urtearekin alderatuta, eta diru bilketak, berriz, %3,3ko tasa eskuratu zuen.

Zerga nagusien diru-bilketa (%BPG)

32. taula

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
PFEZ	6,1	6,4	6,6	6,6	6,6	6,8	6,8	7,0	7,0	7,2
Sozietateen g/ zerga	1,5	1,7	1,7	1,9	1,7	1,5	1,4	1,5	1,9	1,6
BEZa	6,8	6,1	6,1	6,6	7,2	7,2	7,0	8,2	7,6	7,6
Guztira	17,6	17,1	17,3	18,1	18,6	18,4	18,2	19,6	19,5	19,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Aurrekontu Egikaritzaren Estatistiken datuak erabilia.

Zerga nagusien xehetasunetan sartuz, PFEZa nabarmentzekoa da, bere portzentajea igo zuen bakarra izan zelako, %7,2ra iritsi arte. Hori horrela, BEZarekin zegoen aldea murriztu egin zen, aurreko urteko erregistroa errepikatu baitzuen (%7,6), 2017an nabarmen handitu ondoren, kupoari buruzko akordioetatik eratorritako doikuntza positiboari esker. Azkenik, sozietateen gaineko zergak aurreko bi urteetako igoerak alde batera utzi zituen eta bere ehunekoa hiru hamarren murriztu zuen (%1,6) 2018arekin alderatuta.

6.2 Eusko Jaurlaritzaren jarduera ekonomikoa

2019an, Eusko Jaurlaritza egiten ari den kontsolidazio ahalegina berretsi zen, BPGaren gaineko superabita lortu baitzen berriro, aurreko urteko erregistro bera eskuratuta (%0,5). Hala ere, moneta terminoetan, finantzaketa ahalmena zertxobait murriztu zen (378 milioi euro 2019an, eta 389 milioi euro, berriz, 2018an), langile gastuen (%5,7) eta funtzionamendu gastuen (%5,0) aurrerapena eta kapital sarreren beherakada nabarmena direla eta (-%52,4).

Eusko Jaurlaritzaren eragiketa errealak
33. taula

BPGaren%	2014	2015	2016	2017	2018	2019
1. SARRERA ARRUNTAK	13,0	12,8	12,7	13,7	13,4	13,5
2. GASTU ARRUNTAK	12,9	12,6	12,5	12,4	11,9	12,0
Langileen gastuak	2,8	2,8	2,8	2,7	2,7	2,7
Funtzionamenduko gastuak	5,0	4,8	4,8	4,7	4,6	4,7
Finantza gastuak	0,4	0,3	0,3	0,3	0,2	0,2
Transferentzia arruntak	4,7	4,7	4,6	4,8	4,4	4,4
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	0,1	0,2	0,3	1,3	1,5	1,5
4. KAPITALEKO SARRERAK	0,5	0,2	0,2	0,2	0,2	0,1
5. KAPITALEKO GASTUAK	1,4	1,1	1,1	1,2	1,1	1,1
Inbertsio errealak	0,5	0,3	0,3	0,3	0,2	0,2
Kapitaleko transferentziak	0,9	0,8	0,8	1,0	0,9	0,9
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	-0,8	-0,8	-0,6	0,3	0,5	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

Finantza doikuntza egitean, egiaztatu da aurrekontu superabita aurreko urtekoa baino nabarmen txikiagoa izan zela. Superabit horri esker, inbertsio finantzarioki jasangarriak egin ahal izango dira, gastu arauan kutxari dagokionez kontuan hartzen ez direnak. Hala, 808 milioi eurotik 215 milioi eurora murriztu zen, zorpetze txikiagoaren (-%31,6) eta zorraren amortizazio handiagoaren (%11,9) ondorioz.

Hain zuzen ere, 9.425 milioi euroko zorpetzearekin itxi zen 2019a, 661 milioiko jaitsierarekin, eta, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren zor garbiak behera egin zuen bigarren urtez jarraian, 2008tik aurrera etengabe gora egin ondoren. Krisialdian hartutako zorraren murrizte horri esker, BPGaren gaineko zorraren ehunekoa %14,0tik %12,6ra jaitsi zen, mapa autonomiko osoko erregistrorik txikiena baita.

Eusko Jaurlaritzaren eragiketa finantzarioak
34. taula

BPGaren%	2014	2015	2016	2017	2018	2019
1. BALIABIDEAK						
Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-)	-0,8	-0,8	-0,6	0,3	0,5	0,5
Pasiboen gehikuntza eta aktiboen murrizketa	1,8	1,8	1,6	1,4	1,7	1,1
Ordaintzeko dauden obligazioak	0,9	0,9	0,9	1,1	1,0	1,0
2. ENPLEGUAK						
Aktiboen gehikuntza eta pasiboen murrizketa	0,9	1,1	1,0	1,0	1,7	2,1
Kobratzeko dauden eskubideak	0,8	0,3	0,3	0,4	0,4	0,3
Aurrekontu superabit/defizita kutxa terminoetan	0,2	0,5	0,7	1,3	1,1	0,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

6.3 Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak 2019an


Atzeraldi Handian gastua jaitsi egin zen eta 2014an hasi zen susperraldian berriro gora egin zuen. Harez gozotik, Eusko Jaurlaritzaren gastua BPGaren %14,7an egonkortu zen. 2019an, berriz, Eusko Jaurlaritzak %6,4 handitu zuen gastua, BPGaren terminoetan puntu erdi bateko igoera delarik. Hori horrela, gastua BPGaren %15,2ra iritsi zen, azken hamabost urteetako tasarik altuena, finantza krisiaren lehen urteetan izan ezik, orduan ekoizpenaren ahuleziak gastu publikoaren pisu erlatiboa handitu zuelako.

2019an, Eusko Jaurlaritzak 12.039 milioi euro gastatu zituen, hots, 2018an baino 721 milioi euro gehiago. Igoera horren zatirik handiena Osasun Sailera bideratu zen, gastu bolumenari dagokionez lehen funtzioa baita. Moneta terminoetan 0,2 puntu baino gehiago edo 309 milioi eurotik gorako

gehikuntzak BPGaren %5,1era igo zuen bere pisua, serie osoko kopururik altuena, krisialdian izan ezik.

Diru kopuru hori, nagusiki, Osakidetza finantzatzera bideratzen da. Izan ere, 2019ko ekitaldi horretan Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duen finantzaketa %10,0 handitu zen, eta horietatik 134 milioi euro finantza aktiboen gehikuntzei zegozkien. Kapital eragiketetara bideratutako transferentziak 18 milioi eurotan handitu ziren, baina 94 milioi euro horiek krisiaren aurreko urteetako kopuruen oso azpitik daude oraindik (134 eta 151 milioi euro 2008 eta 2009 urteetan, hurrenez hurren).

Eusko Jaurlaritzaren gastuaren bilakaera. 2005-2019. BPGaren %
62. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Osasun zerbitzuen eta hezkuntza zerbitzuen ezaugarrietako bat da intentsiboak direla langileen kopuruan, eta haien kalitateari eusteko nahiak inbertsioetara eraman zuen Atzeraldi Handiaren aurrekontu doikuntza, diskrezionalitate handiagoa baitu, eta, ikusten denez, oraindik ez du aurreko maila berreskuratu. Aitzitik, gastu sanitarioa murriztu egin zen, pixka bat bada ere, beste partida batzuetan, farmazian esaterako, eta horrek gastuari eusteko ahaleginarekin jarraitzen du, 2009tik 115 milioi aurreztu baitira.

Hezkuntzako gastua ere nabarmen handitu zen, bigarren funtzioa baita gastu bolumenean. 144 milioi euroko hazkundeak ia 0,1 puntu igo zuen bere pisua, eta BPGaren %3,6an kokatu zen. Ehuneko hori krisiaren aurreko urteetako baino apur bat gorago dago. Gehikuntza hori, batez ere, unibertsitatez kanpoko hezkuntza etapetara bideratu zen (haur hezkuntzara, lehen hezkuntzara, bigarren hezkuntzara eta lanbide heziketara).

Etxebizitza politikak ere igoera nabarmena izan zuen ekitaldi horretan. Hain zuzen ere 73 milioi euroko hazkunde jaso zuen eta krisiaren aurreko mailetan kokatu zen (BPGaren %0,3 suposatzen du). Gehikuntza hori, neurri handi batean, sozietate publikoei emandako kredituak 65 milioi eurotan handitu zirelako gertatu zen. Izan ere, 2010etik aurrera, sozietate publikoek etxebizitza politikako gastuan duten partaidetza handitu egin da. Hala eta guztiz ere, kapital eragiketetako gastua ia %5,0 jaitsi zen, urte batzuetan krisiaren urteetan jasan zituzten doikuntzak arintzeko izugarri handitu ondoren.

2016tik aurrera, ekonomiaren eta enpleguaren susperraldiak egoera okerreanean zeuden pertsonen premiei erantzuten zieten heinean, gizarteratze gastua jaisten hasi zen, baina krisiaren aurreko urteetako baino maila altuagoetan kokatu zen. Izan ere, 2018an zuen pisua (0,6 puntu) krisiaren hasierakoa (0,3 puntu) halako bi zen. Baina 2019an joera hori hautsi egin zen eta enpleguak hazten jarraitu zuen arren, gizarte babeseko gastu horrek gora egin zuen berriro (2018an baino 13 milioi gehiago).

Krisiaren ondorioetako bat gastuaren berrantolaketa funtzionala izan zen. Antolaketa berri horretan, zorrera bideratutako gastuak pisua irabazi zuen argi eta garbi, interesak 2014ra arte handitu zirelako eta amortizazioa etengabe handitu zelako krisia hasi zenetik. Hala, 2008-2014 aldian zorraren interesetan egindako gastua 14 milioi eurotik 245 milioira pasatu zen. Interes tasen ondorengo jaitsierak finantza gastuak murriztea bultzatu zuen, 2019an bideratu ziren 179 milioi eurora arte.

Zorraren amortizazioak kontrako bidea jarraitu zuen, 2009an 61 milioi eurotik 2019an 1.359 eurora handituz (BPGaren %1,7). Jarraitutako finkatze prozesuaren eta jarduera ekonomikoaren oparotasunaren ondorioz, eta bederatzi ekitalditan saldo negatiboak izan ondoren, Eusko Jaurlaritzak superabiteria itzuli zen 2017an, eta superabita 2018an eta 2019an ere mantendu zuen. Horri esker, zorra murrizteko politika gauzatu ahal izan zen, eta 2018an amortizazioan jauzi handia egin zen, 0,7 puntuko igoerarekin. 2019an, gastu horrek beste 0,1 puntu egin zuen gora, eta interesekin batera, 1.538 milioi euroekin, BPGaren %1,9 eta gobernuaren gastu osoaren %13,0 inguru ordezkatzeko du.

2019an egindako zorraren amortizazio garrantzitsu horrek, BPGari dagokionez dagoen zorraren maila murrizteaz gain, 2009tik lehen aldiz moneta terminoetan ere behera egin zuen. 2019an ia 490 milioi euro murriztu izanak 8.645 milioi eurotan kokatu zuen zorraren saldo bizia, BPGaren %10,9an, hau da, aurreko ekitaldian zegoena baino puntu bat gutxiago.

Igoera horiek, neurri batean, azpiegituretako gastuaren beherakadak (83 milioi euro eta 0,1 puntu) konpentsatu zituen, 2011n hasitako beheranzko joerari jarraituz. Gastu hori oso baldintzatuta dago euskal "Y"-aren kudeaketa gauzatzearen ondorioz. Izan ere, gastu hau alde batera utzita azpiegituretako gastua 2010 eta 2013 artean erdira jaitsi zen, ondoren, 2017ra arte handituz joan zen; eta azken bi ekitaldietan, berriz ere behera egin zuen. Zehatz-mehatz, 2019an, %7,6 egin zuen behera (22 milioi euro).

Laburbilduz, osasun, hezkuntza eta etxebizitza arloko funtsezko zerbitzuak lehenesteak, gizarte babesari dagokionez pertsonen beharrak ahaztu gabe, zorrera bideratutako gastuarekin batera, azaltzen du 2019an Eusko Jaurlaritzak izandako gastuaren igoera.

7. ARLO FINANTZARIOA

7.1 Moneta politika

2019an, merkataritza tentsioen gorabeherak finantza merkatuak astindu zituzten, batez ere AEBen eta Txinaren artean bizi ziren mehatsuek eta hartutako neurriek, nahiz eta noizean behin Europar Batasunera eta Mexikora ere hedatu ziren. Era berean, haren bilakaera honako hauek baldintzatu zuten: munduko ekonomiaren aurreikuspenei buruzko kezka gero eta handiagoak, Erresuma Batua Europar Batasunetik akordiorik gabe irtetearen ondoriozko ziurgabetasuna, Ekialde Ertaineko tentsio geopolitikoak eta urtearen bigarren zatian Italian eta Espainian gobernu osatzeko izandako arazoak. Jarduera ekonomikoaren moteltzeak eta beheranzko arriskuak biderkatu izanak mundu mailan moneta politika egokitzaleago baterantz aldatzea ekarri zuen. Joera horrekin batera, merkatuaren errendimenduak nabarmen murriztu ziren.

Europako Banku Zentralak (EBZ) aktiboen erosketa garbiei amaiera ematea erabaki zuen 2018ko abenduan, eta interes tasak aldatu gabe mantentzeko asmoa berretsi zuen, gutxienez 2019ko uda igaro arte. Hala ere, euroaren eremuko ekonomia ahultzen ari zenez eta inflazio aurreikuspenak helburuaren azpitik zeudenez, EBZko Gobernu Kontseiluak erabaki horiek birplanteatu zituen. Hala, 2019ko azaroan, Europako erakundeak zorra erosteko programari ekin zion berriro, hilean 20.000 milioi euro arte, gordailuaren erraztasuna $-%0,4$ tik $-%0,5$ era jaitsi zuen, eta aldatu gabe mantendu zituen finantzaketa eragiketa nagusiei aplikatu beharreko interes tasak ($0,0$), bai eta kreditu erraztasun marjinala ere ($0,25$). Orobat, interes tasa oso apaleko garaia hasieran uste baino gehiago luzatuko dela iradoki zuen.

Japoniako Bankuak ia ez zuen aurrera egin inflazio helburua lortzeko, eta bertako ekonomia oraindik ez da suspertu. Beraz, interes tasa oso apalen politikari eustea erabaki zuen (-%0,1). Estatuko bonuen erosketa masiborako programa ere ez zuen aldatu, 10 urterako bonuen errendimendua %0,0 ingurukoa izan zedin. Bere aldetik, Txinako Banku Popularrak, bere barne eskariaren ahultasuna eta AEBetako merkataritza gerraren aurrean, moneta politika malgutzea erabaki zuen, lau urtez aldatu gabeko interes tasen politiken ondoren. Zehazki, bere erreferentzia tasaren hiru beherapen egin zituen, %4,35etik %4,15era, gutxieneko beherapen batzuk, baina diru politika oldarkorrago baten atariko izatea espero da.

Banku zentralen interes tasak
35. taula

	01-04	05-08	09-12	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Europako Banku Zentrala	2,5	3,1	0,9	0,25	0,05	0,05	0,0	0,0	0,0	0,0
Erreserba Federala	1,6	3,5	0,3	0,25	0,25	0,50	0,75	1,5	2,5	1,75-1,5
Japoniako Bankua	0,0	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Ingalaterrako Bankua	4,1	4,3	0,5	0,5	0,5	0,5	0,25	0,5	0,75	0,75
Txinako Bankua	1,8	6,1	5,9	6,00	5,60	4,35	4,35	4,35	4,35	4,15
Indiako Bankua	7,3	6,9	6,9	7,75	8,00	6,75	6,25	6,00	6,50	5,15
Brasilgo Banku Zentrala	17,1	14,1	9,4	10,0	11,7	14,25	13,75	7,00	6,5	4,5

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Ameriketako Estatu Batuetako Erreserba Federalak (Fed) bere ibilbide orria eten zuen 2019an. 2018an hasitako moneta normalizazioko planen ondoren, eta erreferentziako interes tasak lau aldiz handitu ondoren, 2019an ere joera horri eusteko asmoa zuen. Hala eta guztiz ere, Trump presidentearen muga zergen gerrak sortu zuen ziurgabetasunaren eta horrek AEBetako ekonomian izan ditzakeen ondorio negatiboen aurrean, eta epe laburreko finantzaketaren murrizketa eta, horrekin batera, zorraren merkatuko tentsioak arintzeko, Erreserba Federalak esku hartzeko interes tasa %1,75-%1,50 artean jaitea erabaki zuen. Halaber, hamar urteko epean lehen aldiz, likidezia injekzio batzuk egitea erabaki zuen eta herrialde hartako Altxorraren bonuen erosketa berpiztu zuen. Erosketa hauek 60.000 milioi dolarreko erritmoan hasi ziren, ondoren 700.000 milioi dolarreaino igotzeko.

Brexitaren eta mundu mailako moteltzearen beldur izan arren, Ingalaterrako Bankuak bere herrialdeko ekonomiaren hazkunderan konfiantza izan zuen eta moneta politika aldatu gabe mantentzea erabaki zuen. Zehazki, interes tasak %0,75ean mantentzea erabaki zuen, eta moneta sustatzeko neurri ez konbentzionaletan aldaketarik ez egitea erabaki zuen. Horrela, 10.000 milioi libera esterlinatan (11.646 milioi euro) mantendu zuen banku zentralaren erreserben jaulkipena zor korporatiboaren erosketa finantzatzeko, eta 435.000 milioi libera esterlinako bonu subiranoen erosketa programarekin jarraitu zuen.

Garapen bidean dauden ekonomietan, unean uneko ziurgabetasunaren aurrean, banku zentral nagusiek moneta politika malgutzea erabaki zuten, hazkundera suspertzeko. Indiako Bankuak bere erreferentzia tasa bost aldiz jaiste erabaki zuen 2019an, %5,15ean kokatu arte. Mugimendu horien helburua ez zen soilik hazkunde ekonomikoa bultzatzea, baizik eta inflazioa %4,0ra igotzea, bi puntu gorago edo beheragoko urkila batean. Brasilgo Bankuak, bere aldetik, bere erreferentzia tasaren (Selic tasa) lau murrizketa egin zituen, %4,5era arte; hau da, 2016. urtearen erdialdean, Brasilgo ekonomia atzeraldian zegoenean, kokatu zen %14,25aren ia herenean. Gobernuak espero du interes tasen murrizteak kredituaren kostua gutxitzea erakarriko duela, bai enpresei eta bai kontsumitzaileei, eta horrek inbertsioa eta kontsumoa sustatuko duela, Brasilgo ekonomiaren motorrik handiena hori baita.

10 urterako zor publikoaren errendimendua

36. taula

	Errendimendua (%)							Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak)						
	11-12	13-14	2015	2016	2017	2018	2019	11-12	13-14	2015	2016	2017	2018	2019
Alemania	1,6	1,2	0,6	0,2	0,4	0,3	-0,2							
Frantzia	2,6	1,6	1,0	0,7	0,8	0,7	0,1	100	40	36	47	35	46	31
Italia	5,8	3,0	1,6	1,8	2,0	2,8	1,4	414	175	98	161	157	252	162
E. Batua	1,9	2,4	2,0	1,2	1,2	1,3	0,8	31	116	133	103	76	102	102
Espainia	5,2	2,9	1,8	1,4	1,6	1,4	0,5	362	164	117	119	114	117	66
Irlanda	6,5	2,4	1,2	0,8	0,7	0,9	0,1	493	112	52	56	24	66	31
Portugal	10,3	4,4	2,5	3,8	1,9	1,7	0,5	875	313	191	357	151	147	64
Grezia	22,9	9,1	8,4	7,1	4,1	4,4	1,5	2.130	785	772	690	363	413	167
AEB.	1,8	2,6	2,3	2,5	2,4	2,7	1,9	21	136	164	224	198	244	210
Japonian	0,9	0,5	0,3	0,1	0,1	0,0	0,0	-73	-71	-36	-16	-38	-25	17

Iturria. Espainiako Bankua.


Zorraren bigarren mailako merkatuan, zor publikoaren errentagarritasunek nabarmen egin zuten behera 2019an. Errenta aldakorreko merkatuen ezegonkortasunak Europako errenta finkorantz bideratu zuen inbertsioa, uste baino mundu mailako moteltze sakonago baten kezka babesleku aktibo gisa ikusita, eta horrek azaltzen du bonuen errentagarritasunen etengabeko beherakada. Beheranzko joera hori euroguneko ia herrialde guztietara hedatu zen, eta herrialde horietako batzuek balio negatiboetan kotizatu zuten. Hori izan zen Alemaniaren kasua, bere bonua $-%0,7$ tik behera jaitsi baitzen, baita Herbehereak, Austria, Finlandia, Belgika, Frantzia, Irlanda, Letonia, Eslovakia eta Eslovenia herrialdeetakoak ere, urte zati batean balio negatiboetan kotizatu baitzuten. Maila horretatik oso gertu kokatu zen Portugal eta haren erreferentzia bonoa zero errentagarritasunetik gertu egon zen, $%0,058$ an. Greziako zorra ere minimoen eremuan kokatu zen, 10 urterako bonuaren errendimendua $%1,5$ ingurukoa izan zelarik. Aitzitik, Italiako zorrak bere gobernuari buruzko zalantzak salatzen jarraitu zuen, eta, nabarmen murriztu zen arren, bere minimo historikotik urrun jarraitu zuen.

Egoera honetan, Espainiak inbertitzaile kontserbadoreena berreskuratzea lortu zuen, Atzeraldi Handiaren hasieran galdu zuena, eta lehen egonkortze zantzuak ikusten hasi ziren arte itzuli ez zena. Hobekuntza gorpuztu ahala, lehen hedge funds edo arrisku handiko funtsak agertu ziren, susperraldiaren berehalako irabaziaz ikusten zituztenak, hain espekulatiboak ez ziren beste batzuk atzetik zituztela. 2017an, kapitalen itzulera eten egin zen, neurri batean Kataluniako tentsio independentistengatik, baina 2018an, desagertu ondoren, inbertsiogile kontserbadoreagoen etorrera masiboa gertatu zen, 2019an zehar hedatu zena. Horrela, urte horretan, Espainiako zorrak Alemaniako zorrak baino 66 puntu gehiago eskaini zituen errentagarritasunean (arrisku saria), euroguneko batez bestekoa baino hazkunde ekonomiko handiagoa erakusten zuen, eta pixkanaka diru sarreraren eta gastuen arteko desfasea murrizten joan zen. Horri guztiari esker, Espainiako bonuak 2019a $%0,5$ eko errendimenduarekin itxi ahal izan zuen, eta udako hilabeteetan ia ez zuen interesik ordaindu hamar urterako zorragatik. Hain zuzen ere, 10 urterako bonuaren errendimenduak minimoa $%0,028$ an ezarri zuen abuztuaren erdialdean, zeroaren ertzean.

7.2 Truke tasak

Dibisen merkatuari dagokionez, euroaren truke tasa efektibo nominalak, euroaren aldeko truke tasen batez besteko haztatua neurtzen duenak, euroguneko 38 bazkide komertzial nagusien monetekin alderatuta, urteko balantzea $%97,3$ an itxi zuen, 2018an lortutako erregistroaren azpitik ($%99,0$), nahiz eta azken bosturtekoaren bigarren daturik onena izan.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko
63. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.

Euroak dolarraren aurrean duen truke tasak beheranzko joera argia izan zuen 2019. urte osoan zehar, nahiz eta une jakin batzuetan, hala nola Fed-ek tasak murriztu zituenean, euroaren kotizazioak galdutako eremutik zertxobait berreskuratu zuen. Egoera horren faktore erabakigarriak honako hauek izan ziren: tentsio geopolitikoak, merkataritza gerra, Brexit-a, munduko ekonomiaren moteltzea, eta Europako ekonomiaren eragile nagusiaren, Alemaniaren, beherakada

handia. Euroari ere ez zion lagundu EBZren erabakia, QE mugarik gabe berriro irekitzea. Zehatzago esanda, euroak 1,10 dolarren euskarria ezabatu zuen, 2017ko udaberritik indarrean zegoena, eta irailean 1,088 dolarreraino jaitsi zen, azken 27 hilabeteetan ezezaguna izan den maila. Handik, gorabehera batzuekin, euroa 1,1240 dolarrera iritsi zen abenduaren 31n. Urteko batez bestean, euroak %2,2 galdu zuen dolarraren aldean.

Dolarraren sendotasuna ez zen bakarrik euroarekin gertatu. Akordiorik gabeko Brexit baten mehatxuaren eta Erresuma Batuko manufaktura jardueraren datu okerrenaren ondorioz, irailean liberaren kotizazioa 1,20 dolarretik behera jaitsi zen, 2017tik izandako minimoa. Ondoren, Erresuma Batuko hauteskunde orokorren emaitzak eta 2020ko urtarrilaren 31n adostutako Brexit baten perspektibak liberaren kotizazioa bultzatu zuten eta dolarrarekiko truke tasa 2019an %4,5eko batez besteko errebalorizazioarekin amaitu zen. Liberaren irabaziak euroaren aldean askoz ere garrantzitsuagoak izan ziren eta moneta bakarra liberaren aurrean %5,9 depreziatu zen.

Yena ere, dibisen merkatuaren barruan babesleku aktibotzat jotzen baita, nabarmen igo zen euroaren aurrean. Zehatzago esanda, 2018an 130,15 yen euro bakoitzeko izatetik, 2019an 118,00 yen euroko inguru izatera igaro zen. Japoniar dibisaren bat-bateko balio irabazi hau, bereziki, merkataritza gerraren eta munduko ekonomia nagusien (Txina eta Estatu Batuak) arteko muga zergen aplikazioaren, tentsio geopolitikoaren, munduko apaltzearen eta Europako ekonomiaren moteltzearen ondorio izan zen. 2019ko hirugarren hiru hilekotik aurrera, yenak balioa galdu zuen euroaren eta dibisa nagusien aldean, merkataritza arriskuak arintzearen eta ekonomia nagusien politika ekonomikoa lasaitzearen ondorioz. Hala ere, urteko balantzean yenak %3,2 irabazi zuen euroaren aldean.

7.3 Baloreen merkatua

2019an, iragarpen guztien aurka, burtsek 2018ko amaierako zuzenketa gogorrak markatutako ekitaldiari aurre egitea lortu zuten. Une horretan, berehalako atzeraldi baten beldur izan ziren. Urtea, argi eta garbi, goitik behera joan zen, eta, neurri handi batean, AEBen eta Txinaren arteko merkataritza alorreko tentsioek baldintzatuta egon zen. Munduko bi potentziek erabaki protekzionistak areagotu zituzten, nahiz eta hazkunde globala arriskuan jarri eta kontsumitzaileen konfiantza kaltetu eta baldintzatu. Horregatik, banku zentralak hazkundeari ekitea eta eustea erabaki zuten, hainbat neurri egokiren bidez, horiek izan baitziren burtsa igoeretarako euskarri nagusia.

Zehazki, burtsek goranzko joera argia izan zuten, nahiz eta gorabeherak izan zituzten, baita merkataritza ziurgabetasuna uxatetik urrun egon zenean ere. Fed-ek tasak jaitsi izanak eta EBZk diru pizgarri berriak eman izanak inbertsiogileei konfiantza berreskuratzeko aukera eman zien, eta urte amaieran Washington eta Pekinen arteko hurbilketa finkatu zen. Horrela, 2019ak irabazi garrantzitsuak izan zituen eta burtsa nagusi guztietara zabaldu ziren, ekonomia aurreratuen kasuan metatutako %30,0tik gertu eta azaleratzen ari direnen kasuan %15,0 inguruan. Igoera horiek 2018ko udazkenean izandako zurrumbilo gogorren errebote efektutik harago joan ziren, eta, izan ere, indize nagusiak 2018ko udako maximoak baino nabarmen handiagoak izan ziren. Ekonomia aurreratuetan %10,0tik gora gainditu zituzten, eta azaleratzen ari diren ekonomietan, berriz, %6,0tik gora.

Zehatzago, Standard & Poors indizeak %28,9ko errebalorizazioa lortu zuen, Eurostoxx-50ek %24,8koa, eta Dow Jonesek %22,3koa. Ibex-35ak ere %11,82ko igoera bikainarekin itxi zuen urtea, nahiz eta Europako bizilagunen aurrean pixka bat atzeratuta geratu zen. Indize horiek guztiek aise gainditu zituzten 2018an izandako galerak, baina Ibex-35ek, portaera positiboa izan arren, ez zuen aurreko urteko galera iraultzea lortu, orduan %15,0 jaitsi baitzen. 2019ko abenduaren amaieran zituen 9.549,2 puntuak 2018ko abuztuan kotizatzen zuen maila baino ez dira, 2018ko hasieran kotizatzen zituen 10.451,5 puntuetatik oraindik urrun.

Azkenik, Ibex-35ean sartuta dauden EAEko sei enpresek balio handitze handiak lortu zituzten. Siemens Gamesaren akzioak %48,0 igo ziren eta Iberdrolak %42,0ko irabaziak izan zituen. Apalagoak izan ziren BBVAren (%6,4) eta Más Móvil enpresaren (%3,4) errebalorizazioak. CIE automotibek zerrenda itxi zuten, %0,9ko irabaziekin, eta Viscofan enpresa nafarrak %0,5eko igoera pilatu zuen.

7.4 Aurrezkia, kredituak eta gordailuak


Aurrezki tasaren bilakaera eragile ekonomikoen sentimenduak baldintzatzen du beti, bereziki kontsumitzaileena. Errenta edo kontsumitu edo aurreztu egiten da. Eta aurreikuspen ekonomiko onak daudenean, kontsumitzaileek nahiago dute errenta kontsumorantz bideratu, aurrezkirantz baino. Ziurgabetasunaren ikuspegi bateratu batek aurrezki tasa handiagoak sortzen ditu, eta hori izan zen, hain zuzen ere, 2019an bizi izan zen agertokia, Europar Batasunak bizitako apaltze handiagatik, Espainian eta EAEn ere eragina izan baitzuen, nahiz eta Europako batez bestekoaren gainetik hazten jarraitu zuten, bai eta arestian aipatutako gainerako ziurgabetasunengatik ere.

Hala izanda, 2019an, barne aurrezki gordina 17.640 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko hori 2018koa baino %3,3 handiagoa da, azken hamar urteetako handiena da, Atzeraldi Handia hasi zenetik, eta serie historiko osoko hirugarren kopururik handiena da. Atzean geratzen dira krisiaren urte gogorrenak, non langabeziaren igoera handiak, kreditua eskuratzeko zailtasunak eta EAEko eragileen zorpegabetzeko beharrak beren aurrezkiatara jotzea behartu zuten. Sei urtean, EAEko eragileek 5.000 milioi euro aurreztu zituzten eta aurrezki gordinaren tasa 13.900 milioi eurora jaitsi zuten.


Aurrezki tasa gordinaren hazkundeak kontsumoaren hazkunde txikiagoa dakarren arren, familien finantza koltxoien hobekuntza ere bada, eta, beraz, erresilientzia handiagoa ematen dio ekonomiari.

Barne aurrezki gordinaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro
64. irudia

Barne aurrezki gordina. Urte arteko aldakuntza tasak



Barne aurrezki gordina. Milioi euro



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Gaur eguneko finantza baldintzekin, ez dago arrazoirik familiek kontsumo erabakien aurrean aurreztearen alde egiteko, baina, hala eta guztiz ere, barne aurrezki gordinak ondoz ondoko seigarren hazkunde urtea kateatu zuen. Aurrezki horren zati handi bat bankuen gordailuetara

bideratu zen. Hala dago jasota Espainiako Bankuaren azken txostenean, non islatuta geratu baita eskudirua eta banku gordailuak izan zirela berriz ere EAEko eta Espainiako familien aurrezteko modu nagusia 2019an.

2019an zehar, EBZk erabaki zuen gordailuen tasa -%0,50era jaistea eta zor publikoaren hileko erosketa programa aktibatzea, hilean 20.000 milioi euro erosteko. Hori dela eta, ez ziren aurreztaileen gordailuak ordaindu eta, beraz, ez zegoen aurrezteko benetako pizgarririk. Zehazkiago adierazita, ageriko gordailuei %0,03 ordaindu zitzaizkien, urtebetera arteko ezarpenei %0,02, eta 2 urtetik gorako epemugei, berriz, %0,18. Gordailuek errentagarritasunik ez izan arren, eta errenta aldakorak irabaziaz eskaintzen bazituzten ere, EAEko eragileek ez zuten arriskurik hartu nahi izan eta gordailuen aldeko apustua egin zuten berriro.

Gordailuen bilakaera
37. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2008-2019 arteko aldea	
							Mila €	Tasak
Guztira	-2,0	3,3	1,9	4,7	2,3	6,6	10.591	13,9
Gordailu publikoak	6,1	3,0	-0,2	11,2	36,6	8,9	-934	-16,3
Gordailu pribatuak	-2,3	3,3	2,0	4,4	0,9	6,5	11.525	16,3
Ageria eta aurrezkoa	7,0	18,2	15,4	20,9	6,6	11,4	42.117	156,1
Epera	-10,3	-12,0	-16,6	-27,3	-17,3	-13,5	-30.592	-70,1

Iturria: Espainiako Bankua.

Zehazki, gordailuek %6,6 egin zuten gora, 2008tik izan duten gorakadarik handiena baita, produktu horietan sektore publikoak (%8,9) eta pribatuak (%6,5) izandako hazkundeari esker. Guztira, 87.000 milioi euro inguru izan ziren 2019ko amaieran, errekor berria.


Sektore publikoak 4.800 milioi eurora arte igo zituen bere gordailuak, eta kopuru hori 2009an zegoen mailan dago. Sektore pribatuari dagokionez, errentagarritasun ia hutsaleko egoera batean, EAEko familiek berriz ere lehentasuna eman zioten segurtasunari eta dirua berehala eskuratzeko gaitasunari, gerta zitezkeen kontrako egoerei aurre egiteko berme gisa, eta berriz ere ageriko eta

aurrezkiaren hartutako gordailuen alde egin zuten. Ekonomiaren hobekuntzak beraien aurrezteko ahalmena handitu zuen, eta horri orain arte eperako gordailuetara bideratutako zenbatekoaren zati handi bat lekualdatu izana gehituta, ageriko eta aurrezkiaren hartzeko gordailuak bultzatu zituzten, %11,4 handitu ziren eta 69.105 milioi euro baino gehiago pilatu zituzten. Zenbateko horrek gordailu pribatu guztien %84,1 biltzen du. Atzeraldi Handiaren hasieran, 2008an, gordailu pribatu guztien %38,2 ziren agerikoak eta kontuan zeuden gordailuak. Hamabi urtean ehuneko hori bikoiztu baino gehiago egin da.


Likideziaren aldeko nahi horrek kalte egin zien eperako gordailuei, eta horiek beren seigarren uzkurdua jarraitua bizi izan zuten, hamargarrena 2013an izandako gorakada arina alde batera utziz gero. Izan ere, 2019an, EAEko eragileek 2.031 milioi euro baino gehiago kendu zituzten eperako produktuetatik, eta datu hori 30.600 milioi ingurura iristen da 2008. urtearen amaieran mota horretako produktuetan inbertitutako kopuruarekin alderatuz gero.

Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren % 65. irudia

Kredituak guztira eta gordailuak guztira (BPGaren %)



Kreditu pribatuak eta publikoak (BPGaren %)




Iturria: Espainiako Bankua eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Gordailuen gorakada horri esker, EAEko ekonomiak saldo positiboa mantendu zuen ekonomiaren finantzaketan esku hartzen duten banku sistemako bi tresna nagusien artean: kredituak eta


gordailuak. Historikoki hala izan zen, higiezin kreditua eta horrekin batera kreditu osoa nabarmen gorarazi zuen higiezin booma arte. Hori horrela izanda, 1995ean, gordailuak kredituak baino %41,7 gehiago ziren. 2003an joera hori aldatu zen eta 2007an kredituak gordailuak baino %20,0 gehiago ziren. 2013an balioak berdindu egin ziren, eta gordailuek kredituak gainditu zituzten %0,7 batean. Aurreko mailen aldean, ehuneko hori txikia da, baina joera historikora itzultzea ekarri zuen. 2019an, ehuneko hori %26,9ra igo zen.

Kredituen bilakaera
66. irudia


Arlo publikoari emandako kredituak. Aldakuntza tasak




Arlo publikoari emandako kredituak. Milioi euro



Arlo pribatuari emandako kredituak. Aldakuntza tasak



Arlo pribatuari emandako kredituak. Milioi euro



Iturria: Espainiako Bankua.

Izan ere, EBZren likidezia ponpaketak ahalbidetu zituen aldeko finantzaketa baldintzak, lan merkatuaren hobekuntza eta enpresei eta etxeei bideratutako maileguak onartzeko irizpideak erlaxatzea gorabehera, EAeko sektore pribatuari bideratutako kredituek berriro ere murriztu zuten zorpetze maila. Hain zuzen ere, sektore pribatuaren zorra, guztira, 61.000 milioi eurotik behera geratu zen, 2005etik izan duen balio txikiena baita. Zenbateko horrek esan nahi du zorpetze maila 2008an izandako maximoa baino %28,7 txikiagoa izan zela, eta haren zorra ia 24.500 milioi euro murriztu dela ordutik.

Sektore publikoaren kreditu bizia, bestalde, %6,6 handitu zen 2019. urtean. Hala eta guztiz ere, kasu honetan arreta berezia merezi du hiruhileko bilakaera aztertzeak. Izan ere, hazkunde handi hori urteko lehen sei hilabeteetan zorpetzeak izan zuten gorakadaren ondorio izan zen, bigarren seihilekoan joera hori guztiz alderantzikatu baitzen. Hala, 2019ko bigarren hiruhilekoan 8.330 milioiko zorra gainditu ostean, 7.618 milioi euroko zorrarekin itxi zuen abendua, BPGaren %9,6 delarik. Bilakaera horien guztien ondorioz, kreditu guztiak %0,1 hazi ziren, hazkunde txiki bat, baina azken hiru urteetako lehena.

Espainiako Bankuak argitaratutako azken datuek sektore pribatuaren finantza egoera onbideratzeko joera hori bermatzen dute. Hain zuzen ere, Espainiako bankuen berankortasunak %4,9an itxi zuen abendua, eta horrekin %5,0tik behera jaitsi zen hamar urtean lehen aldiz. Horiek horrela izanda, sei ekitaldi jarraian kateatu ditu beherakadak jasotzen eta 2009ko uztaitetik beste minimo bat ezarri du. Era berean, estatu mailan egindako 2019ko finantza kontuen arabera, familien finantza aberastasun garbia, finantza aktibo guztien pasiboak kenduta lortzen dena, %10,0 handitu zen 2019an, 1,64 bilioi eurora iritsi arte. Datu hori BPGaren %132 da, ratioa 2018koa baino 7,7 puntu handiagoa delarik. Era berean, sozietate ez finantzarioen eta irabazi asmorik gabeko familien eta erakundeen (ISFLSH) zor gordin bateratuak 1,615 bilioi eurotan itxi zuen ekitaldia, BPGaren %129,7 eta 2018an erregistratutako maila baino 4,5 puntu txikiagoa. Balio horiek agerian uzten dute sektore pribatuak bere zorpetzea murrizteko eta aberastasuna handitzeko egindako doikuntza garrantzitsua.


7.5 Familien finantza egoera

Euskadiko etxebizitzaren merkatuak gorantz jarraitu zuen 2019an. Hala jasotzen dute Sustapen Ministerioak argitaratutako estatistikek. Izan ere, 2019an 23.644 eragiketa erregistratu ziren, 2018an formalizatutakoak baino %2,1 gehiago, hau da, seigarren urtez jarraian hazi zen. Ez eta


2019ko ekainean Higiezinaren Kreditu Lege berria indarrean sartu zelako udako hilabeteetan izandako geldialdiak ere ez zuen geldiarazi transakzioen sinaduraren eta hipotekak ematearen urteko balantzea. Halaber, zifra hori 2007tik lortutako handiena izan zen, 26.573 eragiketa erregistratu baitziren orduan, eta, horrenbestez, EAE krisi ekonomikoaren aurreko mailalara hurbildu zen. Urrun geratzen dira 2013an formalizatutako 10.736 transakzioak, higiezinaren krisiaren unerik okerreanean. Prezioen jaitsierak lagundu zuen transakzioen gorakada horretan. Zehazki, INEK argitaratutako datuetan oinarrituta, etxebizitzaren prezioen indizea batez beste %4,3 hazi zen 2019an, 2018ko %5,4aren azpitik.

Etxebizitzaren hipotekaren bilakaera. Mila
67. irudia

Formalizatutako hipotekaren batez besteko zenbatekoa



Formalizatutako hipotekak



Iturria: INE.


Datu horiek ez datoz bat estatu mailako higiezinaren merkatuaren bilakaerarekin, zeren eta merkatu horretan, transakzioak %2,2 murriztu baitziren eta prezioak igo egin ziren aurreko urtearekin alderatuta. Bost urtean transakzioetan izan den lehen jaitsiera da. 2014an, higiezinaren susperraldia hasi zenean, transakzioek %20,0ko gorakada handia izan zuten, baina azken lau urteetan, berriz, urteko salmentak %10,0 eta %15,0 bitartean hazi ziren.

Era berean, Notariotzaren Kontseilu Nagusiak dituen estatistiken arabera, hipoteka mailegu baten bidez finantzatutako etxebizitzaren erosketen ehunekoak gora egin zuen berriro, eta 2019an egindako transakzio guztien %48,0 bildu zuen, duela ia hamarkada batetik izandako ehunekorik handiena baita. Zehatz-mehatz azalduta, interes tasa baxuek, kreditu erakundearen finantzaketa baldintza mesedegarriek eta EAEko familien egoera ekonomiko onberak etxebizitzak erosteko formalizatutako hipoteken igoera berria ahalbidetu zuten, %2,2 handitu baitziren. Zehatzago, 2018an baino 397 hipoteka gehiago sinatu ziren, %5,4ko balio handiagoarekin. Gainera, 2019an 2014an baino 5.330 hipoteka gehiago formalizatu ziren, urte hartan 11.469 baino ez baitziren sinatu, orain arteko minimoa. Hala ere, bere erritmoa moteldu egin da azken urte honetan. Azken hiru urteetan %8,0 inguruko edo hortik gorako tasetan hazi ondoren, 2019an hazkunde erritmoak sei puntuko dinamismoa galdu zuen.


Interes tasen bilakaera

68. irudia

12 hileko euriborra



Hipoteken interes tasak



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteka maileguen interes tasa aldakorrak etengabe murrizten ari dira, hiru urte eta erdi balio negatiboetan daraman euriborrak bultzatuta. Halaber, 2019ko abuztuaren bere lurzoru historikoa markatu zuen (-%0,356). Hala ere, tasa finkoa oso txikia izan zen (urtearen zati handi bat %3,01 izan zen) eta gero eta jarraitzaile gehiago erakarri zituen. Zehazki, 2019an hipoteken batez besteko interes tasa finkoa %3,05 izan zen, 2009an ordaintzen zen %5,72tik urrun, eta 2018an itxi zenarekin

bat etorri (%3,03). Tasa aldakorra, bestalde, %2,28koa izan zen. Tasa finkoak tasa aldakorraren gainetik jarraitzen badu ere, tasa finkoan formalizatutako hipotekak hazi egin ziren berriro, eta sinatutako hipoteka guztien %42,2 bildu zuten. Igoera hori azaltzen da, batetik, EAEko eragileen arriskuarekiko arbuioagatik, zeinek nahiago baitute tasa finko egonkor bat, haien bilakaerari buruzko ziurgabetasunik gabe, eta, bestetik, banku erakundeek produktuak tasa finkoan sustatzeko aurkeztutako pizgarriengatik, horiek errentagarritasun handiagoa sortzen baitute hipoteka aldakorrek baino.

7.6 Gizarte aurreikuspena

Inbertsio zorroen errentagarritasunaren bilakaera onak (%9,0 inguru 2019an) EAEko borondatezko gizarte prestazioko erakundeen (BGAE) ondarearen hazkundera bultzatu zuen. Azken horrek, historian lehen aldiz, 25.000 milioi euro gainditu zituen, 2018an baino 1.900 milioi gehiago, eta 26.000 milioiren (25.939 milioi) atarian geratu zen. Kopuru horrek esan nahi du %7,9ko igoera izan dela 2018. urtearen amaieran erregistratutako zenbatekoarekin alderatuta, eta tasa positiboetara itzuli dela urte horretan izandako jaitziera puntualaren ondoren, hazkunde txikiko testuinguru batean sistema garatu izanaren ondorioz. Ondare hori Euskadiko BPGaren %32,72 baino gehiago da, Estatuko sistemena baino askoz handiagoa (%8,8) eta Europar Batasuna 13ko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa (%35,0). Hala ere, Federazioak beti nabarmentzen duen bezala, oso urrun dago esparru horretan gehien garatutako herrialdeetatik (BPGaren %45,0tik %173,0ra lortzen da beraietan), bai eta ELGEn batez bestekotik ere (% 53,3).


Prestazioak, bestalde, 883,5 milioi eurotik gorakoak izan ziren, 2018an baino %0,4 gutxiago, eta horrek esan nahi du erakunde horiek 4.400 milioi euro baino gehiago ordaindu dizkietela bazkideei azken bost ekitaldietan. Halaber, urteko kuotak edo ekarpenak 852 milioi eurotik gorakoak izan ziren, %7,1eko batez besteko igoerarekin, aurreko ekitaldian egindakoak baino ia 57 milioi euro gehiago. Datu horiek adierazten dute sistemak, zortzigarren urtez jarraian, gastu (prestazio) gehiago izan zituela diru sarrerak baino (ekarpen). Hala ere, 2019an desoreka hori askoz txikiagoa izan zen. Zehazki, bien arteko aldea 30,8 milioi eurora jaitzi zen, 2018an erregistratutakoa (90,8 milioi euro) baino heren bat gutxiago, eta 2014an izandako 197 milioi eurotik urrun.

Azkenik, bazkide kopuruari dagokionez, 2018an erregistratutako hazkundera ez zuen finkatzerik lortu, eta 2019an, berriz, kuoten kopuruak behera egin zuen. Enpleguaren kategoriak bakarrik lortu


zuen bazkide kopurua handitzea, eta beste hirurak, hau da, bazkideak, banakakoak eta bereizi gabeak, uzkurto egin ziren. Hain zuzen ere, %0,1 jaitsi zen bazkide kopurua.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE). Milioi euro.
69. irudia

Ondarea



Ekarpenak eta prestazioak



Iturria: Euskadiko Gizarte Emendiotarako Borondatezko Erakundeen Baterakuntza.